

**UNIBERTSITATEKO MASTERRA:
INGENIARITZA INDUSTRIALA**

MASTER AMAIERAKO LANA

**TSH KATEKO HOTELAREN
ERAIKUNTZAKO BREEAM ZIURTAGIRIA
LORTZEKO ZEREGINEN KUDEAKETA**

Ikaslea	<i>⟨Leonet Etxegia, Idoia⟩</i>
Zuzendaria	<i>⟨Orbe Mateo, Aimar⟩</i>
Saila	<i>Ingeniaritza Mekanikoa</i>
Ikasturtea	<i>⟨2021/2022⟩</i>

Bilbo, 2022ko apirilak 13⟩

ABSTRACT

Construction has lost its traditional tone and has acquired a much more global meaning, the commitment to sustainability largely being the source of much of this change. Among the sustainability certificates that endorse this rise in Green Architecture, there is BREEAM, a methodology based on a cyclical assessment of ten constructive aspects, which has made it possible to recycle 100 % of the waste generated during the foundation phase of the TSH Donostia building.

RESUMEN

Hace tiempo que la construcción ha perdido su tono tradicional y ha adquirido un significado mucho más global, siendo la apuesta por la sostenibilidad la fuente de gran parte de este cambio. Entre los certificados de sostenibilidad que avalan este auge de la arquitectura verde se encuentra BREEAM, una metodología basada en la evaluación cíclica de diez aspectos relacionados con la construcción, que han permitido reciclar el 100% de los residuos generados en la fase de cimentación del edificio TSH Donostia.

LABURPENA

Aspaldian da eraikuntzak bere kutsu tradizionala galdu eta askoz ere esanahi globalagoa hartu duenik, jasangarritasunaren aldeko apustua izan delarik hein handi baten aldaketa horren iturri. Arkitektura berdearen gorakada hori bermatzen duten jasangarritasun ziurtagirien artean dago BREEAM, eraikuntzarekin erlazionatutako hamar aspekturen ebaluazio ziklikoan oinarritutako metodologia, zeini esker, TSH Donostia eraikinaren zimentazio fasean sortutako hondakinen % 100 birziklatzea lortu den.

HITZ GAKOAK

Eraikuntza jasangarria

Jasangarritasun Ziurtagiria

Arkitektura berdea

Arkitektura jasangarria

BREEAM

The Student Hotel

AKRONIMOAK

BREEAM *Building Research Establishment Environmental Assessment Methodology*

BRE *Building Research Establishment*

GJH Garapen Jasangarriko Helburuak

DF Diseinu Fasea

EOF Diseinu Osteko Fasea

ITG *Instituto Tecnológico de Galicia* (Galiziako Institutu Teknologikoa)

NSO *National Scheme Operator* (Eskema Nazionalen Operadorea)

UNE: *Una Norma Española*

KPI Funtzionamendu Adierazle Gakoak

GKE: Gobernuz Kanpoko Erakundea

KDKT (GST): Kudeaketa (*Gestión*)

OO: Osasuna eta Ongizatea

ENE: Energia

URA: Ura

GAR: Garraioa

MAT: Materialak

HOND: Hondakinak

LEE: Lurraren Erabilera Ekologikoa

KUTS: Kutsadura

BER: Berrikuntza

NBE: Nazio Batuen Erakundea

LEED: *Leadership in Energy and Environmental Design*

DGNB: *German Sustainable Building Council*

EGA Ebaluatu Gabeko Adierazlea

PPD *Porcentaje Estimado de Insatisfechos* (Pozik Ez Daudenen Ehunekoak)

PMV *Voto Medio Estimado* (Balioetsitako Bataz Besteko Botoa)

TSH *The Student Hotel*

CTE *Código Técnico de la Edificación* (Eraikuntzako Kode Teknikoa)

IESE: Instituto de Estudios Superiores dela Empresa

IKS (SGA): Ingurumen Kudeaketa Sistema (*Sistema de Gestión Ambiental*)

EDUKIEN TAULA

1.	SARRERA	9
2.	TESTUINGURUA	9
3.	HELBURUAK ETA IRISMENA.....	12
4.	BREEAM.....	14
	BREEAM ES	17
	BREEAM-EN ABANTAILAK	18
5.	METODOLOGIA	20
	ERAIKUNTZA BERRIRAKO BREEAM ESKEMA.....	21
	ESKEMAREN OSAGAIK ETA EBALUAZIO METODOLOGIA	22
	GUTXIENENKO BALDINTZAK	24
	EBALUAZIO METODOLOGIA	25
	EBALUAZIO ADIBIDEA: BILBAO INTERMODAL	30
	ERAIKINAREN BIZI-ZIKLOAREN FASEAK	32
	DISEINU-FASEA (DF).....	32
	ERAIKUNTZA OSTEKO FASEA (EOF).....	33
6.	TSH DONOSTIA.....	33
	THE STUDENT HOTEL ENPRESAREN EZAUGARRI OROKORRAK	33
	JASANGARRITASUNA	35
	PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA.....	36
	KOKALEKUA	36
	JASANGARRITASUNA ETA EFIZIENTZIA ENERGETIKOA	39
	ERAIKINAREN EZAUGARRI OROKORRAK	39
	ERAIKINAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK	41
7.	BREEAM VERY GOOD ZIURTAPENAREN LORPEN PROZESUA: TSH DONOSTIA	44
	KUDEAKETA	45
	OSASUNA ETA ONGIZATEA	100
	ENERGIA.....	102
	GARRAIOA.....	103
	URA	104
	MATERIALAK.....	106
	HONDAKINAK	109
	LURRAREN ERABILERA EKOLOGIKOA	116
	KUTSADURA.....	124
	BERRIKUNTZA	125
8.	ONDORIOAK	125
9.	IRITZI PERTSONALA	127
10.	BIBLIOGRAFIA.....	129

ERANSKINAK.....	137
ERANSKINA I: BREEAM EBALUAZIO METODOLOGIA – EBIDENTZIEN BIDALKETA EGUNERATZEKO ZERRENDA	137
ERANSKINA I: 1. EBALUAZIO PERIODOKO EMAITZAK	138
ERANSKINA II: FPE 1.4. INGURUMEN TESTUINGURUAREN ANALISIA	145
ERANSKINA II: FPE 1.4. OBRAKO INGURUMEN ASPEKTUEN IDENTIFIKAZIOA	146
ERANSKINA II: FPE 1.4. BULEGOKO INGURUMEN ASPEKTUEN IDENTIFIKAZIOA	147
ERANSKINA II: FPE 1.4. ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA	148
ERANSKINA III: FPE 1.7. INGURUMEN ASPEKTUEN EBALUAZIOA.....	149
ERANSKINA IV: FPO-4.7. ESKAKIZUN LEGALEN BETEKIZUNA.....	150
ERANSKINA IV: INGURUMEN KUDEAKETA SISTEMA.....	151
ERANSKINA V: GARRAIOEN ERREGISTRO TAULA	156
ERANSKINA V: HONDAKINEN GARRAIOEN ERREGISTRO TAULA	157

IRUDIEN ZERRENDA

1. Irudia. Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) [7].	10
2. Irudia. Mundu mailako Eraikinen Iraunkortasun Ziurtagiri desberdinak [14].	11
3. Irudia. TSH Donostia proiektuaren egitasmoa martxotik hasi eta ekaina bitartean.	13
4. Irudia. BREEAM ziurtagiriaren GANTT diagramaren laburpena I.	14
5. Irudia. BREEAM ziurtagiriaren GANTT diagramaren laburpena II.	15
6. Irudia. BREEAM zigiluaren kodearen oinarria.	16
7. Irudia. BREEAM ziurtagiriaren abantailak.	20
8. Irudia. Eraikuntza Berriko BREEAM eskemaren ebaluazio-kategoriak.	22
9. Irudia. BREEAM Ebaluazio Erreminta - Proiektuaren xehetasunak.	25
10. Irudia. BREEAM Ebaluazio Erreminta - Puntuazioa.	26
11. Irudia. BREEAM Ebaluazio Erreminta - Ebidentzia zerrenda.	27
12. Irudia. Ebaluazio metodologiaren fluxu-diagrama.	27
13. Irudia. BREEAM 1. Ebaluazio-prozesuaren GANTT diagrama.	28
14. Irudia. Bilbao Intermodalen proiektua.	30
15. Irudia. TSH kateko hotelak (horiz jadanik badaudenak eta beltzez martxan daudenak) [42].	34
16. Irudia. TSHk bere ostalariei eskainitako bizikletak.	35
17. Irudia. Loiolako Erriberak auzoko egoera eraldaketa urbanistikoa jasan aurretik.	36
18. Irudia. Obrak hasi aurreko egoera (Gizarte Segurantzaren eraikina falta da ondoko partzelan).	37
19. Irudia. Partzelaren kokalekua Loiolako Erriberak auzoaren baitan.	37
20. Irudia. Partzelaren plano.	38
21. Irudia. TSH Donostia proiektua.	39
22. Irudia. Jesús María Alkain plazarako ataripea.	40
23. Irudia. Diseinu-ezaugarri orokorrak.	41
24. Irudia. Pila-piloteen xehetasun estrukturalak.	42
25. Zutabeen ezaugarri geometrikoak.	42
26. Irudia. Zimendu lauzaren plano.	43
27. Irudia. KDKT02_1_A3 ataleko ebidentzia I.	47
28. Irudia. KDKT02_1_A3 ataleko ebidentzia II.	47
29. Irudia. KDKT02_1_C ataleko ebidentzia I.	51
30. Irudia. KDKT02_1_C ataleko ebidentzia II.	51
31. Irudia. KDKT02_1_E ataleko ebidentzia.	51
32. Irudia. KDKT02 - 2. Harreman ona bizilagunekin - Hesitura jartzeko baimena.	59
33. Irudia. EEHKP Onarpen akta.	73
34. Irudia. PO-4. Obraren egikaritzea eta jarraipena: Obrako unitateen jarraipena eta kontrola.	75
35. Irudia. PO-4. Obraren egikaritzea eta jarraipena: Materialen eta produktuen jasotze prozedura eta kontrola.	75
36. Irudia. PPO-4.2. Hondakinen kudeaketa: Hondakin ez arriskutsuak (HEA).	77
37. Irudia. PPO-4.2. Hondakinen kudeaketa: Hondakin arriskutsuak (HA).	78
38. Irudia. Ingurumen Kudeaketa Politika.	79
39. Irudia. Ingurumen jardunbide egokien eskuliburua.	80
40. Irudia. Fase I gunea - 11 lerrokatzeraino.	82
41. Irudia. Fase II gunea.	83
42. Irudia. Ezponden altuera maximoa [62].	84
43. Irudia. Grabitazio bidezko sedimentazioa.	84
44. Irudia. Obrako kontagailuaren irakurketa.	95
45. Irudia. Ur kontsumo totala.	95

TAULEN ZERRENDA

1. Taula. Eraikuntza Berriko BREEAM eskemarekin ebalua daitezkeen eraikin motak.....	21
2. Taula. BREEAM kategorien haztapenak.	22
3. Taula. BREEAM mailen erreferentziazko balioak.	23
4. Taula. Gutxieneko baldintzak.	24
5. Taula. Bilbao Intermodalen BREEAM ebaluazio eskema.	30
6. Taula. Bilbao Intermodaleko KPI ebaluaketa.	31
7. Taula. KDKT02 Eraikuntza praktika arduratsuak.	45
8. Taula. KDKT02-1. Sarbide segurua eta egokia ataleko frogatze-zerrenda	46
9. Taula. KDKT02-2. Harreman ona auzokideekin ataleko frogatze-zerrenda.	54
10. Taula II. KDKT02-2. Harreman ona auzokideekin ataleko frogatze-zerrenda.	55
11. Taula. KDKT02 - 2. Harreman ona bizilagunekin - Soinu-maila neurketa.	58
12. Taula. KDKT02-3. Ingurumenarekiko kontzientziazioa ataleko frogatze-zerrenda.	63
13. Taula. Magnitueda eta intentsitatearen maila ezartzeko irizpideak.	65
14. Taula. Ingurumen aspektuen garrantzia-matrizea.	66
15. Taula. Ingurumen aspektuen ebaluazioa: hartutako erabakiak.	66
16. Taula. Ingurumen mehatxu eta aukerei aurre egiteko hartutako ekintzak.	68
17. Taula. FPE 1.9. Ingurumen aspektu esanguratsuen aurreko jarduerak.	71
18. Taula. FPE 1.10. Gertakari eta istripu potentzialen identifikazioa - Sutea instalazio finkoetan.	72
19. Taula. PPE 1.1. Araudiaren betekizuna.	74
20. Taula. FPO-4.7. Eskakizun legalen betekizuna: iruzkinak.	74
21. Taula. Eskaerarik gabeko ezpondetarako gehinezko altuera onargarria NTP 278 arauaren arabera.	83
22. Taula. KDKT02- 4. Lan-inguru segurua eta errespetuzkoa ataleko frogatze-zerrenda.	85
23. Taula. Ekaineko garbiketa erregistroa.	86
24. Taula. KDKT03 Ingurumen-inpaktuak obran.	91
25. Taula. Energia kontsumoaren erregistroa.	93
26. Taula. Ur-kontsumoaren erregistroa.	94
27. Taula. Obrako kontagailuaren irakurketa.	95
28. Taula. KDKT03 – 1. Zarata eta bibrazioak ataleko frogatze-zerrenda.	97
29. Taula. KDKT03 – 2. Airearen kalitatea ataleko frogatze-zerrenda.	97
30. Taula. KDKT03 – 3. Jariatze-uren kudeaketa ataleko frogatze-zerrenda.	98
31. Taula. KDKT03 – 4. Material arriskutsuak ataleko frogatze-zerrenda.	99
32. Taula. ENE08 Energetikoki eraginkorrak diren ekipoak.	103
33. Taula. URA01 Ur-kontsumoa.	104
34. Taula. URA02 Ur-kontsumoaren monitorizazioa.	105
35. Taula. MAT01 Materialen bizi-zikloaren inpaktua.	106
36. Taula. MAT01 Materialen kontsumoaren erregistroa.	107
37. Taula. MAT02 Materialen hornikuntza arduratsua.	107
38. Taula. MAT03 Isolamendua.	108
39. Taula. HOND01 Eraikuntzako hondakinen kudeaketa.	109
40. Taula. Zabortegetatik desbideratzeen BREEAM ES helburuak, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak berreskuratze-tasa nazionalaren arabera.	110
41. Hondakinen erregistro taula.	112
42. Taula. Hondakinen sailkapena LER kodigoaren arabera.	113
43. Taula. HOND02 Agregakin birziklatuak.	114
44. Taula. Agregakinen aplikazio baimenduak, motaren arabera sailkatuak.	115
45. Taula. LEE02 Kokalekuaren balio ekologikoa eta balio ekologikoa duten bertako elementuen babesa.	116
46. Taula. Kokalekuaren balio ekologikoaren hobekuntza.	117
47. Taula. Proposatutako espezieak.	118
48. Taula. LEE04 Epe luzeko inpaktua biodibertsitatean.	119
49. Taula. LEE05 - Higaduraren kontrola.	122
50. Taula. LEE05 - Higadura arriskuaren arabera sailkapena.	122

51. Taula. LEE05 - Higadura saihesteko hartu beharreko neurriak.....	123
52. Taula. LEE05 Higaduraren kontrola frogatze zerrenda.	123
53. Taula. LEE05 Higadura kontrolatzeko jarraipen-plana eraikuntza fasean.....	124

1. SARRERA

Azken bost urteetan, jasangarritasun hitzaren internet bidezko bilaketa-bolumena % 342 igo da, kontzeptua bera gizartean beran errotu denaren seinale [1]. Hori da behintzat Veepee salmenta pribatuen plataforma digitalak IESE Bussiness School unibertsitate prestigiotsuarekin batera burututako Espainiako *ecommerce*aren etorkizunaren inguruan burututako ikerketan adierazitakoa [2]. Ingurumenarekiko kontzientziazio hori bera, eraikuntzako esparrura ere iritsi da, orain arte eraikuntzak izandako esanahia aldatzeraino eta ikuspuntu erabat ezberdina hartzeraino.

Horixe bera da, hain zuzen ere, dokumentu honetan aztertzen dena. Arkitektura jasangarriaren kontzeptuan murgildurik, eraikuntzak bide jasangarriagoa har dezan bideratu duten jazoera desberdinak aztertzen dira, marko legal sendo baten pean, ondoren ikuspuntu hori egikaritzeko aukera ematen duen ziurtagiri baten – BREEAM – metodologia eta adierazgarriak zehatz mehatz aztertzeko; hori dena Construcciones Amenabar S.A. enpresak TSH Donostia hotelaren eraikuntza prozesuan duen kontratista printzipalaren ikuspuntutik.

Horrenbestez, proiektuaren nondik norakoak hobe ulertzeko asmoz, haren xehetasunak deskribatzen dira, jasangarritasunarekiko lotura duten ezaugarriak azpimarratuz, segidan, BREEAM ziurtagiria lortu ahal izateko jarraitu beharreko irizpideen berri emateko, proiektu honetan haiekin betetzeko jarraitu beharreko pausoak nabarmenduz. Amaitzeko, BREEAMaren alderdi positibo eta negatiboen aldeko eztabaida aurkeztzen da, datu objektiboetan zein iritzi pertsonalean eta proiektuan izandako esperientzian oinarriturik, aurretik aztertutako denak benetan izan dezakeen eragina aztertzeko, eta etorkizunean izan daitezkeen joerak aurreikusteko.

2. TESTUINGURUA

Eraikinaren esanahi tradizionala alde batera utzirik, aspaldian da arkitektura eta eraikuntzaren askoz ere ikuspuntu globalago bat hartu denik; intrintsekoan eraikuntzan parte hartzen duten elementuez gain, bizi-ziklo guztia aintzakotzat hartu eta jasangarritasunerako bidea irekiz [3][4].

Eraikuntza edota arkitektura jasangarri kontzeptua, garapen jasangarritik eratorria da, Gro Brundtland lehen ministra norvegiarrak 1987ko Nazio Batuetako 42. saioan aurkezturiko kontzeptua berau, *Guztion Etorkizuna (Our Common Future)* txostenean. Bertan, zera deritzo, «Garapena jasangarria da, egungo belaunaldiaren beharrak asebetetzen dituenean, etorkizuneko belaunaldiek beren premiak asetzeko duten gaitasuna arriskuan jarri gabe». 1992an, Rio de Janeiroko Lurraren Goi Bileran bildutako estatuburuak konpromisoa hartu zuten «... egungo beharrei erantzungo dieten garapen-bideak elkarrekin bilatzeko, etorkizuneko belaunaldiek bereak asetzeko dituzten gaitasunak arriskuan jarri gabe». Horrela bada, hiru dira garapen jasangarriaren oinarriak [5]:

- Materialen bizi-zikloaren analisisa
- Lehengaien eta energia berriztagarrien erabilera

- Baliabide naturalak erazteko, ustiatzeko eta hondakinak suntsitzeko edo birziklatzeko erabilitako material eta energia kantitateak murriztea.

Rio de Janeiroko Batzar honetan bertan, mundu mailako akademikoek, ikertzaileek eta GKEk deituta, ezagutza-lerro bakoitzaren jakintzaren inguruan egoera zein zen eztabaidatzeko bilera bat burutu zen. Ehunka lan aztertu ziren bertan, eta horien artean zeuden ingurumen kontzientzia azaldu izan zuten hainbat arkitektoarenak, batez ere, eguzki-arkitektura¹, arkitektura bioklimatiko² edota arkitektura alternatibo³ bezalako joera berritzaileetatik zetozenak [6].

Ildo beretik, 2015eko irailean, 193 herrialdek 2030 Agenda deritzona onartu zuten NBEko Batzar Orokorrean. Agenda horrek Garapen Jasangarriko 17 Helburu (ikus 1. Irudia) ditu (GJH), eta bertan, herrialde sinatzaileek neurri ausart eta eraldatzaileak hartzeko konpromisoa hartzen dute, mundua jasangarritasunaren eta erresilientziaren bidetik bideratzeko [7]. Nazio Batuen Erakundearen (2015) hitzetan [8], 2030 Agenda, «pertsonek, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan bat da, bake unibertsala eta justiziarako sarbidea indartzeko asmoa duena». Gainera, azpimarratzekoa da agenda hau Milurtekoko Garapen Helburuen (New York, 2000) jarraipen gisa aurkeztu zela, zeinetan 15 urteren buruan – 2015erako hain zuzen ere - lortzeko 8 helburu ezarri ziren, 8 adierazle ezberdinetan (muturreko pobrezia eta gosea, hezkuntza unibertsala, genero berdintasuna, haurren babesa, amen segurtasuna, gaixotasunak, ingurumenaren iraunkortasuna eta Garapenerako Nazioarteko Erakundea) oinarrituak [9].



1. Irudia. Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) [7].

¹ Eguzki-arkitektura eguzki-energia pasiboa eguzki-panelen teknologiarekin integratzea da, eguzki-erakin aktibo bat osatuz. Azken horrek aurrera egin du XX. mendeko azken hamarkadatik eraikuntza-teknika modernoekin batera [10].

² Arkitektura bioklimatiko eraikinak diseinatzean datza, baldintza klimatikoak kontuan hartuta, eskura dauden baliabideak aprobetxatuz (eguzkia, landaredia, euria, haizeak) ingurumen-inpaktuak murrizteko, energia-kontsumoak murrizten saiatuz. Arkitektura bioklimatiko estuki lotuta dago eraikuntza ekologikoarekin, hau da, ingurumenarekiko arduratsua diren eta baliabideak modu eraginkorrean okupatzen dituzten eraikuntza-egitura edo -prozesuekin [11].

³ Arkitektura alternatiboak, arkitektura jasangarriaren parte izanik, oreka lortu nahi du iraunkortasun ekologikoaren eta eraikuntzaren diseinu, material eta teknikaren artean, horretarako material ez konbentzionalak (polimeroak, plastiko birziklatuak...) erabiliz eta eraikitze teknika eta metodo berriak sortuz [12].

Horrela bada, eraikin iraunkorra edo jasangarria, baliabideen erabileraren eraginkortasuna — energia, ura eta materialak — handitzean zentratzen den diseinu-filosofia baten emaitza da, eta eraikuntzak giza osasunean eta ingurumenean eragiten duen eragina murrizten du eraikinaren bizitzan zehar, hobeto aztertzearen, diseinuaren, eraikuntzaren, funtzionamenduaren, mantentzearen eta erauztearen bidez [13]. Eraikin berdeen mugimenduaren parte izanik, gai honi heltzeko ikusmira anitz izan dira, baina denek badute funts argi bat: eraikinak, eta haien ingurunea, gizakien osasunean eta ingurune naturalean duen inpaktua ahalik eta gehien murrizteko diseinatuak izan behar dira (a) energia, ura eta beste baliabide batzuk erabiliz, b) okupatzaileen osasuna babestuz eta langileen produktibitatea hobetuz, eta c) hondakinak, kutsadura eta ingurumen-degradazioa murriztuz.

Eraikuntzen garapen berri honetarako konpromisoa benetakoa dela ziurtatzeko ordea, argi dago nolabait egiaztatu beharra dagoela, eta honen harira dator, hain zuzen ere, Eraikinen Iraunkortasun Ziurtagiriaren sorrera, eraikinen gauzatzaren fase denetan sostengarritasun printzipioak betetzen direla bermatzeko. Gaur egun, hainbat metodologia desberdin aurki daitezke eraikinen iraunkortasuna ebaluatzen dutenak, haien diseinuan, eraikuntzan eta funtzionamenduan oinarrituz, besteak beste, BREEAM (Errsuma Batua), LEED⁴ eta WELL⁵ (EEBB), DGNB⁶ (Alemania) eta VERDE⁷ (Espainia)



2. Irudia. Mundu mailako Eraikinen Iraunkortasun Ziurtagiri desberdinak [14].

⁴ Leadership in Energy and Environmental Design, Estatu Batuetan garatu zuen 1993an US Green Building Council (USGBC) delakoak eta proba objektiboak erabiltzen ditu hainbat arlotan berariazko baldintzak betetzen direla justifikatzeko.

⁵ Merkatuaren beharrek bultzatuta sortu zuen Delosek 2014ean, Wellness Real Estate™ren aitzindariak. Etxeak, bulegoak, ikastetxeak eta beste ingurune batzuk eraldatzea du helburu, diseinu/eraikuntzako erabaki guztien erdigunean osasuna eta ongizatea kontuan hartuta.

⁶ Deutsche Gesellschaft für Nachhaltiges Bauen eraikinen ebaluaziorako plangintza- eta optimizazio-metodologia bat da, German Sustainable Building Council erakundeak 2009an garatua. Oreka ezin hobea erakusten du alderdi sozial, ingurumeneko eta ekonomikoaren artean.

⁷ Valoración de Eficiencia de Referencia de Edificios GBC Españak 2009an sortutako tresna bat da, UNE 15643-2, UNE 15643-3 eta UNE 15643-4 arauetan oinarritua ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-portaerak ebaluatzeko, metodologiaren ardatz bizi-zikloaren azterketa duelarik.

3. HELBURUAK ETA IRISMENA

Lan honen helburu nagusia, Eraikuntza Berriko BREEAM ziurtagiria lortzeko jarraitu beharreko metodologia zehatz-mehatz azaltzea da, bere gain hartzen dituen esparru guztien analisia eginez eta ataletako bakoitzean lortu beharreko ziurtapen guztien deskribapen bat aurrera eramanez. Horrez gain, eraikuntza eta arkitekturaren munduan azkeneko urteetan emandako jasangarritasunerako aurrerapausoa azpimarratu nahi da, bide horretan BREEAM bezalako ziurtagiriek duten garrantzia nabarmenduz.

Kontuan ipini nahi da jasangarritasunaren inplementazioa, ez datorrela ingurugiroaren babeste tradizionalaren eskutik soilik, baizik eta askoz ere haratago doala, pertsonen ongizatea bezalako kontzeptuak bere baitan hartzen dituelarik, eta ez bakarrik erabiltzaileena, baizik eta eraikitze prozesuan zehar parte hartzen dutenena, obrako langileetatik hasi eta proiektugileetaraino. Horren harira, aspektu horiek denak kontuan hartzen dituen ziurtagiri bat lortzeko informazio-, prozesu- eta ebidentzia-sare konplexuaren isla izan nahi du lan honek.

Aipatu behar da, prozesu horiek denak burutzeko oinarria, *The Student Hotel Donostia* proiektua izan dela, Construcciones Amenabar S.A enpresarentzako praktika lan-hitzarmen baten baitan. Proiektuak aztergai, diseinu-fasetik eratorritako prozesuak eta eraikuntza-fasean egin beharrekoak izango ditu, batez ere, **zimentazio-fasean** oinarriturik; izan ere, proiektuaren hasiera data martxoak 1 izanik, lanak ekainak 31 arte bitarteko eginbeharrak biltzen eta analizatzen ditu, proiektuaren egitasmoa abiapuntutzat harturik (ikus 3. Irudia).

Nombre de tarea	REND. TEORICO POR EQUIPO	Duración	Nº DE EQUIPOS	Nombres de los recursos	Comienzo	Fin	DURACIÓN CALCULADA	redecensora	Sucesoras	Margen de demora total	Demora permisible
<input checked="" type="checkbox"/> THE STUDENT HOTEL IN SAN SEBASTIAN	0	436 días	0		lun 15/11/21	lun 17/07/23				0 días	0 sem.
<input type="checkbox"/> DEMOLICIONES Y MOVIMIENTO DE TIERRAS	0	98 días	0		lun 13/12/21	mié 27/04/22				0 días	0 días
Excavación en mina del solar, sin canon de vertido	150	43 días	3	MOVIMIENTO DE TIERRA	lun 28/02/22	mié 27/04/22	42,08	97	99;100	0 días	0 días
Demolición de viga de coronación (sin canon de vertido)	100	1 día	1	STRUCTURA HORMIGÓN	jue 10/03/22	jue 10/03/22	0,67	107	86	350 días	0 días
De relleno de zanjas y trasdós de muros y obras de	250	2 días	1	MOVIMIENTO DE TIERRA	vie 11/03/22	lun 14/03/22	1,85	85		350 días	350 días
<input type="checkbox"/> MUROS PANTALLA Y PILOTES	0	115 días	0		lun 20/12/21	vie 27/05/22				0 días	0 días
Montaje de acodalamiento en fase del hormigonado de PB	100	3 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	lun 28/02/22	mié 02/03/22	2,51	97	107	345 días	0 días
De extendido de geotextil y una capa de 20 cm. de espesor (por debajo del	500	6 días	1	MOVIMIENTO DE TIERRA	jue 28/04/22	jue 05/05/22	5,05	84	101FF	0 días	0 días
De repicado de pantallas perimetrales 70 cm (losa de subpresión	25	12 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	jue 28/04/22	vie 13/05/22	11,84	84	100CC+4 días;	302 días	0 días
Hormig. de limpieza HM-15	200	3 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	mar 03/05/22	jue 05/05/22	2,05	99FF	104	0 días	0 días
Anclaje químico D-20/25mm Long (0,25+0,50)cm. en losa de subpresión	50	10 días	2	STRUCTURA HORMIGÓN	mié 04/05/22	mar 17/05/22	9,96	100CC+4 días;		304 días	304 días
Junta bentonita	150	4 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	lun 16/05/22	jue 19/05/22	3,37	100		302 días	302 días
De hormigón armado HA-30/B/20/lla en losa de subpresión/cimenta	50	16 días	2	STRUCTURA HORMIGÓN	vie 06/05/22	vie 27/05/22	15,54	101	100FF;112;108;	0 días	0 días
De hormigón armado HA-30/B/20/lla en muros de depósitos de 25 cm	15	3 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	mié 25/05/22	vie 27/05/22	2,51	104FF		296 días	296 días
<input type="checkbox"/> ESTRUCTURA DE HORMIGON	0	218 días	0		jue 03/03/22	lun 02/01/23				62 días	62 días
De HA-25/B/20/lla en muretes situados en la Calle Otamendi ada y petos hu	15	5 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	jue 03/03/22	mié 09/03/22	4,96	98	148CC;147	345 días	0 días
De repicado de pantallas perimetrales 40 cm (losa de techo Plan	100	3 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	lun 30/05/22	mié 01/06/22	2,96	104	109CC	3 días	0 días
Anclaje químico D-16/20mm Long (0,25+0,50)cm. En losa de Techo de Planta	50	10 días	2	STRUCTURA HORMIGÓN	lun 30/05/22	vie 10/06/22	9,96	108CC	110CC	3 días	3 días
De losa de hormigón armado HA-30/B/20/lla de 30 cm. de espesor, TECHO S	25	15 días	2	STRUCTURA HORMIGÓN	jue 02/06/22	mié 22/06/22	14,08	109CC;112	111CC;115;	0 días	0 días
Hormig. de limpieza HM-15	50	2 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	jue 02/06/22	vie 03/06/22	0,2	110CC		291 días	291 días
De hormigón armado HA-40/F/20/lla en pilares de S2 a S1	20	3 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	lun 30/05/22	mié 01/06/22	2,99	104	110;113CC	0 días	0 días
De hormigón armado HA-40/F/20/lla en muros de núcleos 1 y 2 de S2 a S1	15	3 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	lun 30/05/22	mié 01/06/22	2,32	112CC		293 días	293 días
<input type="checkbox"/> ESTRUCTURA DE HORMIGON	0	218 días	0		jue 03/03/22	lun 02/01/23				62 días	62 días
De HA-25/B/20/lla en muretes situados en la Calle Otamendi ada y petos hu	15	5 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	jue 03/03/22	mié 09/03/22	4,96	98	148CC;147	345 días	0 días
De repicado de pantallas perimetrales 40 cm (losa de techo Plan	100	3 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	lun 30/05/22	mié 01/06/22	2,96	104	109CC	3 días	0 días
Anclaje químico D-16/20mm Long (0,25+0,50)cm. En losa de Techo de Planta	50	10 días	2	STRUCTURA HORMIGÓN	lun 30/05/22	vie 10/06/22	9,96	108CC	110CC	3 días	3 días
De losa de hormigón armado HA-30/B/20/lla de 30 cm. de espesor, TECHO S	25	15 días	2	STRUCTURA HORMIGÓN	jue 02/06/22	mié 22/06/22	14,08	109CC;112	111CC;115;	0 días	0 días
Hormig. de limpieza HM-15	50	2 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	jue 02/06/22	vie 03/06/22	0,2	110CC		291 días	291 días
De hormigón armado HA-40/F/20/lla en pilares de S2 a S1	20	3 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	lun 30/05/22	mié 01/06/22	2,99	104	110;113CC	0 días	0 días
De hormigón armado HA-40/F/20/lla en muros de núcleos 1 y 2 de S2 a S1	15	3 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	lun 30/05/22	mié 01/06/22	2,32	112CC		293 días	293 días
De acabado de la superficie de las losas en rampas de garaje y	1500	1 día	1	STRUCTURA HORMIGÓN	mié 22/06/22	mié 22/06/22	0,67	110FF		278 días	278 días
De hormigón armado HA-40/F/20/lla en pilares de S1 a PB	20	4 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	jue 23/06/22	mar 28/06/22	3,06	110	116CC;117	0 días	0 días
De hormigón armado HA-40/F/20/lla en muros de núcleos 1 y 2 de S1 a PB	15	3 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	jue 23/06/22	lun 27/06/22	2,69	115CC	119	150 días	0 días
De hormigón armado HA-40/B/20/lla en pilares de PB a P1	20	5 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	mié 29/06/22	mar 05/07/22	4,53	115	118CC;121	0 días	0 días
De hormigón armado HA-40/B/20/lla en muros de núcleos 1 y 2 de PB a P1	15	5 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	mié 29/06/22	mar 05/07/22	4,01	117CC		269 días	269 días
De hormigón armado HA-30/B/20/lla en vigas en rampas de garage S2 a PB	15	4 días	1	STRUCTURA HORMIGÓN	mar 28/06/22	vie 01/07/22	3,06	116	120	150 días	0 días
<input type="checkbox"/> ALBAÑILERIA	0	210 días	0		jue 03/03/22	mié 21/12/22				148 días	148 días
Recibido de premarcos interiores	100	13 días	1	ALBAÑILERÍA	jue 03/03/22	lun 21/03/22	12,42	107CC		345 días	345 días
Suministro y colocación de Cassonetto de 0,90x2,10 m. P-4 y Pa-	10	2 días	1	ALBAÑILERÍA	jue 03/03/22	vie 04/03/22	1,82	107CC		356 días	356 días
<input type="checkbox"/> ELECTRICIDAD	0	264 días	0		vie 17/06/22	mié 21/06/23				18 días	18 días
- RED DE TIERRAS Y PARARRAYOS	0	190 días	0		vie 17/06/22	jue 09/03/23				92 días	92 días
Red de Tierras	200	4 días	1	ELECTRICIDAD	vie 17/06/22	mié 22/06/22	3,12	110FF		278 días	278 días
PROGRAMA DE CONTROL DE CALIDAD	0	425 días	0	CONTROL DE CALIDAD	lun 29/11/21	vie 14/07/23				1 día	1 día
SEGURIDAD Y SALUD	0	425 días	0	SEGURIDAD Y SALUD	lun 29/11/21	vie 14/07/23				1 día	1 día
GESTION DE RESIDUOS	0	425 días	0	MEDIO AMBIENTE	lun 29/11/21	vie 14/07/23				1 día	1 día

3. Irudia. TSH Donostia proiektuaren egitasmoa martxotik hasi eta ekaina bitartean.

Tarte honek, bi fase nagusi hartzen ditu bere baitan BREEAM ziurtagiriari dagokionean:

- BREEAM ebidentzien bidalketa: jomuga maiatzak 20.
- BREEAM ebidentzien ebaluaketa: jomuga ekainak 30.

Id		Nombre de tarea	Duración	Comienzo	Fin
1		BREEAM MAL	88 días?	mar 01/03/22	jue 30/06/22
2		GST	59 días?	mar 01/03/22	vie 20/05/22
3		GST02	48 días?	mar 01/03/22	jue 05/05/22
4		1. ACCESO SEGURO Y ADECUADO	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
5		a1. aparcamiento	0 días	mar 01/03/22	mar 01/03/22
6		a2. iluminación	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
7		a3. accesos	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
8		a4. vallas	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
9		b1. caminos peatonales	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
10		b2. visitantes discapacitados	0 días	mié 02/03/22	mié 02/03/22
11		b3. información riesgos	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
12		c. accesos camiones	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
13		d. procedimiento de recepción	0 días	jue 03/03/22	jue 03/03/22
14		e. buzón	0 días	vie 04/03/22	vie 04/03/22
15		f. comunidades minoritarias	0 días	lun 07/03/22	lun 07/03/22
16		g. señales de tráfico	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
17		h. metodología de recepción	0 días	vie 04/03/22	vie 04/03/22
18		2. BUENA RELACIÓN CON EL VECIND.	30 días?	mar 01/03/22	lun 11/04/22
19		a. cartas de presentación	0 días	mar 08/03/22	mar 08/03/22
20		b. restricción horaria	0 días	mié 09/03/22	mié 09/03/22
21		c1. color vallas	0 días	jue 10/03/22	jue 10/03/22
22		c2. camino peatonal	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
23		c3. señales iluminadas	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
24		c4. entorno	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
25		d. reclamaciones	0 días	mié 09/03/22	mié 09/03/22
26		e. tablón de anuncios	0 días	jue 10/03/22	jue 10/03/22
27		f. luz de obra	30 días?	mar 01/03/22	lun 11/04/22
28		g. EPIs	0 días	vie 11/03/22	vie 11/03/22
29		h. restricción volumen	0 días	lun 14/03/22	lun 14/03/22
30		3. CONCIENCIACIÓN MEDIOAMBIENTAL	7 días	mar 15/03/22	jue 24/03/22
31		a. contaminación lumínica	0 días	mar 15/03/22	mar 15/03/22
32		b. medidas de ahorro energético	0 días	mié 16/03/22	mié 16/03/22
33		c. estrategias de minimización impac	0 días	jue 17/03/22	jue 17/03/22
34		d. medidas de ahorro de agua	0 días	vie 18/03/22	vie 18/03/22
35		e. fuentes de energía alternativas	0 días	lun 21/03/22	lun 21/03/22
36		f. vertidos	0 días	mar 22/03/22	mar 22/03/22
37		g. colectores	0 días	mié 23/03/22	mié 23/03/22
38		h. acopios	0 días	jue 24/03/22	jue 24/03/22
39		4. ACCESO SEGURO Y ADECUADO	48 días?	mar 01/03/22	jue 05/05/22
40		a1. inodoros independientes	0 días	mar 22/03/22	mar 22/03/22
41		a2. duchas funcionales	0 días	mié 23/03/22	mié 23/03/22
42		a3. taquillas	0 días	jue 24/03/22	jue 24/03/22
43		a4. zona fumadores	0 días	vie 25/03/22	vie 25/03/22
44		a5. alojamiento	0 días	vie 25/03/22	vie 25/03/22
45		b1. zonas anexas	30 días?	mar 01/03/22	lun 11/04/22
46		b2. instalaciones	28 días	mié 23/03/22	vie 29/04/22
47		b3. fumadores	30 días	vie 25/03/22	jue 05/05/22
48		c1. cantina	0 días	lun 11/04/22	lun 11/04/22
49		c2. Inodoros	0 días	vie 29/04/22	vie 29/04/22
50		c3. fumadores	0 días	jue 05/05/22	jue 05/05/22
51		d. EPIs visitantes	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
52		e1. formación trabajadores	0 días	mar 01/03/22	mar 01/03/22
53		e2. exposición al sol	0 días	lun 02/05/22	lun 02/05/22
54		e3. identificación trabajadores	0 días	jue 03/03/22	jue 03/03/22
55		e4. incidentes	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
56		e5. primeros auxilios	0 días	mar 01/03/22	mar 01/03/22
57		f. comisaría y hospital	1 día?	mar 01/03/22	mar 01/03/22
58		g. inspección	1 día?	mar 01/03/22	mar 01/03/22
59		h. emergencias	30 días	mar 01/03/22	lun 11/04/22
60		GST03	59 días?	mar 01/03/22	vie 20/05/22
61		1. DESIGNACIÓN RESPONSABLE	0 días	mar 01/03/22	mar 01/03/22
62		2. REGISTRO CONSUMO ENERGÍA	57 días	mar 01/03/22	mié 18/05/22
63		3. INFORME CONSUMO ENERGÍA	0 días	mié 18/05/22	mié 18/05/22
64		4. REGISTRO CONSUMO AGUA	57 días?	mar 01/03/22	mié 18/05/22
65		5. INFORME CONSUMO AGUA	0 días	mié 18/05/22	mié 18/05/22
66		6. REGISTRO TRANSPORTES	57 días?	mar 01/03/22	mié 18/05/22
67		7. INFORME CONSUMO COMBUSTIBLE	0 días	mié 18/05/22	mié 18/05/22
68		8. MADERA	0 días	mar 01/03/22	mar 01/03/22
69		9. SGA	0 días	mié 02/03/22	mié 02/03/22

4. Irudia. BREEAM ziurtagiriaren GANTT diagramaren laburpena I.

70		10. RUIDO Y VIBRACIÓN	18 días	lun 11/04/22	jue 05/05/22
71		a. planificación	0 días	jue 05/05/22	jue 05/05/22
72		b. control de ruido	0 días	jue 05/05/22	jue 05/05/22
73		c. voladura	0 días	jue 05/05/22	jue 05/05/22
74		d. transporte	0 días	lun 11/04/22	lun 11/04/22
75		11. CALIDAD DEL AIRE	31 días	jue 24/03/22	jue 05/05/22
76		a. reducción del polvo	0 días	jue 24/03/22	jue 24/03/22
77		b. reducción polvo vehículos	0 días	vie 25/03/22	vie 25/03/22
78		c. ausencia quemas	0 días	jue 05/05/22	jue 05/05/22
79		13. GESTIÓN DE ESCORRENTÍAS	11 días	jue 05/05/22	vie 20/05/22
80		a. plano de drenaje	0 días	jue 05/05/22	jue 05/05/22
81		b. planificación	0 días	vie 06/05/22	vie 06/05/22
82		c. inclinación pendientes	0 días	lun 09/05/22	lun 09/05/22
83		d. mantillo	0 días	mar 10/05/22	mar 10/05/22
84		e. recuperación vegetación	11 días	vie 06/05/22	vie 20/05/22
85		f. balsas de sedimentación	0 días	mié 11/05/22	mié 11/05/22
86		g. desviación de escorrentías	0 días	jue 12/05/22	jue 12/05/22
87		h. sistemas de drenaje	0 días	vie 06/05/22	vie 06/05/22
88		i. actividades contaminantes	0 días	vie 13/05/22	vie 13/05/22
89		RSD	59 días?	mar 01/03/22	vie 20/05/22
90		RSD01	59 días?	mar 01/03/22	vie 20/05/22
91		1. EFICIENCIA DE LOS RECURSOS EN	0 días	mar 01/03/22	mar 01/03/22
92		2. RECICLAJE	0 días	mié 02/03/22	mié 02/03/22
93		3. DESVÍO RECURSOS VERTEDERO	59 días?	mar 01/03/22	vie 20/05/22
94		USE	59 días?	mar 01/03/22	vie 20/05/22
95		USE02	59 días?	mar 01/03/22	vie 20/05/22
96		1. PROTECCIÓN ÁRBOLES	59 días?	mar 01/03/22	vie 20/05/22
97		USE04	59 días	mar 01/03/22	vie 20/05/22
98		1. RETIRADA ESPECIE INVASORA	0 días	mar 01/03/22	mar 01/03/22
99		2. MANTENIMIENTO ÁRBOLES	0 días	vie 20/05/22	vie 20/05/22
100		USE05	59 días	mar 01/03/22	vie 20/05/22
101		1. RESPONSABLE BIODIVERSIDAD	0 días	mar 01/03/22	mar 01/03/22
102		2. FORMACIÓN TRABAJADORES	0 días	jue 24/03/22	jue 24/03/22
103		3. REGISTRO INCIDENTES	59 días	mar 01/03/22	vie 20/05/22
104		USE07	42 días	jue 24/03/22	vie 20/05/22
105		1. PROTECCIÓN PARCELA	29 días	mar 12/04/22	vie 20/05/22
106		2. PROTECCIÓN ACOPIOS	42 días	jue 24/03/22	vie 20/05/22
107		3. ACCESOS CAMIONES	0 días	lun 11/04/22	lun 11/04/22
108		4. LIMPIEZA IMBORNALES	0 días	vie 20/05/22	vie 20/05/22
109		BREEAM 1ª EVALUACION	29 días?	lun 23/05/22	jue 30/06/22
110		FIN PROYECTO	0 días	jue 30/06/22	jue 30/06/22

5. Irudia. BREEAM ziurtagiriaren GANTT diagramaren laburpena II.

Building Research Establishment Environmental Assessment Methodology (BREEAM), erakundearen beraren hitzetan [15], «...munduko iraunkortasun-ebaluaziorako metodo garrantzitsuenetariko bat da proiektu, azpiegitura eta eraikuntzen plan-maisua⁸ burutzeko. Eraikitako ingurunearen bizi-zikloan errendimendu handiena duten aktiboen balioa ezagutzen eta islatzen du, eraikuntza berritik hasi eta erabilera eta berrikuntzaraino».


Ebaluazio hori, hirugarrenen bidez ziurtatzen du BREEAM-ak, zeintzuek aktibo baten ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-iraunkortasunaren jardunaren azterketa egiten duten, *Building Research Establishment* (BRE) garatutako estandarretan oinarriturik. Horrek esan nahi du, halabeharrez, BREEAM kalifikazioa duten eraikinak ingurune jasangarriagoak direla, bertan bizi eta lan egiten duten pertsonen ongizatea abalatzten dutenak, baliabide naturalak babesten laguntzen dutenak eta higiezinetako inbertsioak erakargarriagoak egiten dituztenak.

1990ean sortu zen, Erresuma Batuan, diseinu fasean zeuden banakako eraikinetan oinarriturik, haien ebaluazioa aurrera eramateko eskema bakar gisa. Ordutik, BREEAMek 1.000.000 eraikin baino gehiago ziurtatu ditu [15], eta, gaur egun, mundu osoko 63 herrialdetan baino gehiagotan aurki daiteke, hedapen prozesuan aurkitzen delarik. Egun, eraikinen bizi-ziklo osoa hartzen duten

⁸ *Master Planning* bezala ezagutua, elementu guztiak orekatu eta harmonizatzen dituen epe luzeko plan integratua da, jabetza pribatuak edota eraikinak garatzeko edo hobetzeko metodoan oinarritua. Prozesu hori proiektuaren hasieran egiten da, eta espazioaren ikuspegia definitzen eta bateratzen laguntzen du [16].

nazioarteko eskemen familia bihurturik, esparru askoz ere zabalagoa jorratzen duelarik: eraikuntza berritik hasi eta baita lehendik dauden eraikin eta birgaitutakoak ere [17].

BREEAM zigilua eskuratzen duten eraikinen kokapena edozein dela ere, izendatzaile komun bat aurkezten dute haien osotasunean; plangintza, eraikuntza eta funtzionamendua, iraunkortasun-jardunbide printzipio zorrotzenen arabera diseinatuak eta egikarituak izan direla, prozesuko atal guztietan erakundearen inplikazioa funtsezkoa izanik. Horretarako, erakundeak printzipio eta betekizun estrategiko horiek denak biltzen dituen kodean du bere oinarria, *BRE Global Code for a Sustainable Built Environment*, eraikuntza ingurunearen ingurumen-, gizarte- eta ekonomia- inpaktua minimizatzeko, kudeatzeko, ebaluatzeko eta ziurtatzeko ikuspegi integratua definitzen duena. Gainera, BREEAMek ikuspegi oso malgua izaten jarraitzen badu ere, banakako sistemen multzoak oinarri zientifiko eta portaera sendoak dituela bermatzeko balio du (ikus 6. Irudia).



6. Irudia. BREEAM zigiluaren kodearen oinarria.

Are gehiago, BREEAMek, jabeen, okupatzaileen, diseinatzaileen eta langileen kontzientziazioa areagotzeko dihardu, bizi-zikloan oinarritutako ikuspegiaren fundaturik, iraunkortasunerako arduraren handiagotzeak dakartzan abantailen inguruan heziz. Halaber, irtenbide egoki eta errentagarriak ezartzen laguntzen die eta baita merkatuak haien lorpenak onar ditzan lagundu ere.

BREEAM ES

BREEAMen kudeaketaren eta etengabeko garapenaren atzean BRE Global dago, zein herrialde bakoitzean Eskema Nazionalen Operadore independenteez (NSO⁹) baliotzen den BREEAM sistema independente espezifiko lokalak garatu eta kudeatzeko.

BREEAM markaren sortzailea eta jabea BRE Global da, Erresuma Batuarentzat NSO osatzen duena eta Nazioarteko BREEAM mugaz gaindiko eskemaren garapenaz eta kudeaketaz ere arduratzen dena. BRE Global bitartekoen ziurtaginerako eta onarpenerako erakunde independentea da, BRE Groupen parte dena, BRE Trusten jabetzakoa berau. Azken hau ikerketa eta formakuntzara zuzenduriko irabazi-asmorik gabeko fundazioa da, eta eraikuntzaren arloan ezagutzaren, berrikuntzaren eta komunikazioaren aurrerapenaren alde lan egiten du.

Espainiako kasuan, Galiziako Institutu Teknologikoa (ITG) da BREEAM metodologiaren erakunde gordailuzaina, hots NSOa; jasangarritasun-sistema kudeatzeaz eta BREEAM ESeK aurreikusitako jasangarritasun-eskakizunen eraikuntza-proiektu eta -obren egokitasun-maila ziurtatzeaz arduratzen den erakundea da. BREEAM ESeK, BREak garatutako ezagutza eta esperientzia guztia biltzen ditu, eta aldi berean, Espainiako errealitatera egokitzen du, bertako legedia, arauak eta estandarrak eta merkatu-jardunbide onenak aintzakotzat harturik, *globalki pentsatu eta tokian tokikoa aplikatu* filosofiarri jarraiki. Horrela, metodologiaren kalitate eta gardentasuna bermatzen dira, herrialde eta eskualde desberdinen artean eraikinak konparatzeko aukera ematen baita, haiek Espainiako errealitate legal eta teknikora egokituz.

ITG 1991ko otsailean eratu zuten Galiziako Arkitektoen, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien eta Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialek, eta Galiziako Xuntak interes galegoko deklaratu zuen 1991/6ko ekainaren 18ko Aginduan. Hiru kide sortzaileez gain, honako hauek ere fundazioaren patronatuko kide dira: meatze-ingeniarien elkargo ofiziala, Galiziako nekazaritza-ingeniarien elkargo ofiziala, Galiziako Ontzi- eta ozeano-ingeniarien elkargo ofiziala, Galiziako enpresaburuen konfederazioa, A Coruña, Santiago de Compostelako eta Vigoko unibertsitateetako ikerketa-errektoreordeak, eta Galiziako Xunta.

ITGk UNE-EN ISO 9001:2008¹⁰ arauaren araberako ziurtagiria dauka, eta erakundeak arauaren betekizunekin bat datorren kalitatea kudeatzeko sistema du, BREEAMen araberako Eraikuntzaren Iraunkortasunaren Ebaluazioa bermatuz. BREEAM ES aholkulariak ziurtatzeko sistema ere badu, UNE-EN ISO/IEC 17024:2012¹¹ nazioarteko arauaren arabera. Era berean, UNE 1660026¹² arauaren arabera ziurtatuta dago. Arau horrek I+Garen kudeaketa egokia bermatzen du, bai propioa, bai kanpoan egiten dena.

BREEAM ESen helburuak betetzen direla ziurtatzeko, hainbat agente desberdinez osatuta dago erakundea:

- a) Aholku Batzordearen zeregina, BREEAM ESen misioa betetzen dela zaintzea da. Aholku Batzordea BREEAM ES ereduaren ziurtaginaren bilakaeran, sustapenean eta hedapenean aktiboki parte-

⁹ National Scheme Operators

¹⁰ Kalitatea Kudeatzeko Sistemak. Betekizunak. (ISO 9001:2008).

¹¹ Egokitasunaren Ebaluazioa. Pertsonen ziurtagiriak egiten dituzten erakundeentzako baldintza orokorrak. (ISO/IEC 17024:2012).

¹² I+G+b kudeatzeko sistemaren betekizunak.

hartzen duten erakundeek osatzen dute, eta eraikuntzaren sektoreko alderdi interesdunen ordezkariak dira (proiektugileak, sustatzaileak, eraikitzaileak, ingurumen-fundazioak eta -erakundeak, finantza-erakundeak, aseguru-etxeak eta administrazioak). Izaera estrategikoa du, aditu-taldeen lana gainbegiratzen du eta BREEAM ESen misioa betetzen lagunduko duten ereduaren bilakaeraren abagune nagusiak proposatzen ditu. Hauek dira Aholku Batzordearen eginkizunak eta erantzukizunak:

- i. Metodologiak alderdi interesdun guztien helburuei erantzuten diela ziurtatzea.
 - ii. BREEAM ereduaren ezarpena eta erabilera sustatzea lurralde nazional osoan, Espainian, oro har, iraunkortasuna sustatzen laguntzeko, eta, bereziki, eraikuntza-ekintzetan laguntzeko.
 - iii. Gidatzea eta bermatzea BREEAM metodologia estatuko berezitasunetara, merkatura eta araudira etengabe egokitzen dela, lantaldeen emaitzak gainbegiraturaz.
- b) Lantaldeak (kategoria bakoitzeko bat) arlo bakoitzean prestigio handiko teknikariez osaturikoak dira, eta metodoaren betekizunak Espainiako errealitatera egokitzea eta hala mantentzen laguntzea dute jomuga.
- c) Aholkulariak teknikari akreditatuak eta independenteak dira, espezializazio-ikastaroen bidez gaituak, eraikuntzaren tipologia desberdinen arabera, aholkularitza- eta ebaluazio-prozesuak egiteko proiektuaren fasetik egikaritzera eta eraikuntza ondoko fasera arte.

BREEAM-EN ABANTAILAK

BREEAMek zalantzan jartzen du oraindik oso hedatuta dagoen topiko bat: kalitate oneko eraikin jasangarriak diseinatzea askoz ere garestiagoa da, arauzko nahitaezko eskakizunak soilik betetzen dituztenak baino. Ikerketa-azterketen multzo gero eta handiagoak erakusten du, askotan, aukera jasangarriek ez dakartela inolako gainkosturik eraikuntza-proiektuetan inbertitzerako orduan, edo kostu hori txikia izan ohi dela, ezinbestean [18].

Argi dago beraz, BREEAM edota antzerako zigiluen abantaila nagusienetariko bat, ekonomikoa dela. Alde batetik, jasangarritasunari lotutako eraginkortasuna eta kalitatea areagotzeak, lagundu egiten du eraikin horiek merkataritzaren aldetik erakargarriagoak izan daitezen. Horrela, gero eta gehiago dira BREEAM sailkapena duten eraikinen inbertsiogileei errentagarritasun-indize altuagoak eta sustatzaileei eta jabeei alokairuaren prezioak eta salmentagatiko prima altuagoak ematen dizkietela erakusten duten adibideak [19]. BREEAM proiektuan zehar tresna gisa erabiltzeak berrikuntza ere erraztu dezake, eta horrek kostuak aurrezteka eta balioa gehitzea ekarriko du, eraikin hobeak eraikiz eta erabiltzaileentzako baldintzak hobetuz [20]. Esan beharra dago, bestalde, TESTUINGURUA atalean azaldu den moduan, Europa mailan azken urteotan jasangarritasunaren aldeko apustu handia egi dela, hainbat hitzarmen eta akordioen bitartez, etorkizun hurbilean ageriko aldaketa bat egin dadin mundu jasangarriago bat lortze aldera; horregatik nahiko ohikoak izaten dira erakundeen aldetik, eraikuntza jasangarria babesten duten diru-laguntzak [21] edota zerga-pizgarriak eskaintzea [22].

Horrez gain, esan berri den bezala, merkatuari eskainitako produktuak merkatuan dagoen eskaintza baino kalitate-baremo eta estatus-maila hobekoak baditu, eskuratze-prezioak igo egin daitezke, higiezinaren (% 7,5) eta errentaren (% 3) balioa handituz. Gizarteak ingurumenarekiko duen inplikazioa eta kontzientziak geroz eta nabarmenagoa izanik, geroz eta jende gehiago arduratzen da aukera jasangarriagoak hautatzeaz, eta beharrezkoa bada, aukera horientatik gehiago ordaintzeko predisposizioa aurkeztu ohi dute [23]. Portaera horren adibide dira, azken urteotan, eraikuntzatik at dauden beste produktu batzuek salmenten gorakada [24], besteak beste, elikagai ekologikoa [25], jasangarritasun politikak jarraitzen dituzten zerbitzuena [26] edota energia iturri ordezkioak erabiltzen dituzten autoena [27][28]. Hala ere, esan beharra dago, jasangarritasunaren gorespen honek, baduela bere arriskua, eta berez bultzatu nahi dituen printzipioak kaltetuak suerta daitezkeela *inflazio berdea*¹³ deituriko fenomenoaren eskutik [29][30].

Gainera, sarritan, lehendik aipatutako inbertsioak, funtzionamendu- eta mantentze gastu txikiagoen (%7 - %8) bidez berreskuratzen dira, eta, azken batean, eraikinaren bizitza-zikloan aurrezpenak sortzen dira, hasierako inbertsio hori justifikatu dezaketena. Izan ere, BREEAM ziurtagiria duten eraikinek, praktika tradizionalerako eraikinetan alderatuz, ur- eta energia-kontsumo (elektrizitatea, berokuntza...) -%40-50 eta %20-50 artean hurrenez hurren - baxuagoak dituzte, diseinu fase hasita eraikuntza jasangarriko eta aurrezteko jarraitutako prozesuari esker, eraikinaren bizi-ziklo osoan zehar mantentze-kostuak baxuagoak izan daitezkeen eragiten dutenak [31].

Alderdi ekonomikoak alde batera utzirik, BREEAM ziurtagiriari lotutako jasangarritasuna hobetzeak, errentagarritasuna hobetzeaz gain, baditu beste hainbat onura, bai ingurumen-esparruan, eta baita soziokulturalen ere: ingurumen arloan, aipatutako energiaren eta uraren kontsumoaren gutxitzeaz gain, beste alderdi batzuen optimizazioak (etxebizitzaren kokapena, hondakinen tratamendua, erabilitako hozgarriak, isolatzaileak, berogailu-sistema...), CO₂ isuriak murriztea dakar; arlo sozialean, airearen kalitatea, argiztapena, zarata-maila eta obrako eta ingurune txukuntasuna bezalako aspektuak hartzen ditu kontuan, onuragarriak izanik eraikinaren erabilera egiten duten pertsonen – eta baita ez dutenena ere – erosotasuna eta bizi-kalitateko; eta alderdi kulturalak berriz, eraikuntza ulertzeko modua aldatzearekin erlazionatuta daude, material jasangarrien erabilera sustatuz, eraikin baten bizi-ziklo osoan modu jasangarrian eraikitzearen garrantziaz sentsibilizatuz eta ingurumenarekiko kontzientziakoa sustatuz.

Illo beretik, jasangarritasun-zigiluek berekin dakarten barne-erosotasuna hobetzeko alderdiei esker, hainbat azterlanen bidez frogatu da proiektatutako eraikinaren azken erabiltzaileen okupazio- edo gogobetetze-indizeak handiagoak direla eraikuntza tradizionalerako eraikinetakoen batez besteko baino. Honen arrazoia begi-bistakoa da, izan ere, zenbat eta gusturago sentitu barne-espazio batean, orduan eta denbora gehiago igaro ohi da bertan. Hori lortzeko, espazio itxietako argiztapen naturalaren alderdiak hobetu behar dira, barneko airearen kalitatea hobetu, baldintza termiko eta akustikoak hobetu, kanpoaldeko bistak barrutik ikusteko aukera izan ... eta alderdi hauek denak betetzen direla ziurtatzeaz arduratzen da hain zuzen ere, BREEAM ziurtagiria. Erabiltzaileen gogobetetasunaren handitze horri esker, okupazio-tasa % 3,5 baino handiagoa izan ohi dute BREEAM ziurtagiria eskuratutako eraikinek [32].

¹³ Inflazio berdea kontsumo-prezioen azelerazioa da, karbono-isurpenik gabeko ekonomia bateranzko trantsizioari lotutako produktuen garestitzeak eraginda, bai erabiltzeari utzi behar zaionengatik, bai sustatu behar direnengatik [29].

Lehen esan bezala, eraikin jasangarria izatea, ez da, horrenbestez, kalitate txarrekoa izatea. Izan ere, diseinu integraleko prozesuari esker, azpiegitura berriaren diseinu- eta eraikuntza-prozesuan parte hartzen duten eragile guztiak elkarlanean aritzen dira diziplina anitzeko lantalde bat osatzeko, eraikinen funtzionaltasuna, malgutasuna eta iraunkortasuna hobetuz. BREEAMek ezarritako printzipioak lantalde multidisziplinari horretan parte hartzen duten esparruetako bakoitzean jorratzen dira, eta ondorioz, lanaren azken emaitza, faktore guztiak zehatz-mehatz aztertuak izan dituen azpiegitura egoki berri bat da, non proiektu-etapatik obrak gauzatzean ager daitezkeen arazoak ezabatuak izan diren. Ikerketa-azterlan batzuek eraikin iraunkorren balio eta kalitatearen hobetzea ere nabarmendu dute. BREEAMek eskatutako estandarrak betetzeko, plangintza, diseinu, zehaztapen eta xehatze arduratsua egin behar da, bai eta lan-harreman ona mantendu ere, bezeroaren eta proiektu-taldearen artean [33][3].

Azkenik, eraikinaren erabilera egingo duen enpresa, erakunde, norbanako edota bestelako edozein organizazioren gizarte-erantzukizun korporatiboaren politika aditzera emateko aukera eskaintzen du. Enpresen gizarte-erantzukizuna, enpresak akziodun eta bezeroekiko duen harreman etikoak definitzen duen kudeaketa-modua da, eta gizartearen garapen jasangarriarekin bateragarriak diren enpresa-jomugak ezartzearekin erlazionatuta dago. Horretarako, etorkizuneko belaunaldientzako ingurumen- eta kultura-baliabideak babesten ditu, aniztasuna errespetatzen du eta gizarte desberdintasunak murriztea du helburu [34].



7. Irudia. BREEAM ziurtagiriaren abantailak.

5. METODOLOGIA

Atal honetan, Eraikuntza Berriko BREEAM ziurtagiria lortu ahal izateko, jarraitu beharreko ebaluazio-metodologiaren oinarriak azaltzen dira, haiek aurrera eramateko ebaluazio-erremintak zeintzuk diren azalduz, baita ebaluazio eskemen funtzionamenduaren funtsa deskribatu ere.

ERAIKUNTZA BERRIRAKO BREEAM ESKEMA

BREEAM ES Eraikuntza Berria eskemak eraikin berriek beren bizi-zikloan zehar duten iraunkortasuna ebaluatzeko balio du, diseinu-faseetatik eraikuntza-fasera arte. Eraikuntza Berria, EB, egitura independente berri bat edo lehendik dagoen egitura baten handitze berri bat eragiten duen eraikinari deritzo, obra amaitu ondoren lehen aldiz martxan jarriko dena.

1. Taula. Eraikuntza Berriko BREEAM eskemarekin ebalua daitezkeen eraikin motak.

SEKTOREA	ERAIKIN MOTA	DESKRIBAPENA				
KOMERTZIALA	Bulegoak	Bulego orokorren eraikinak Ikerketa- eta garapen-eremuak dituzten bulegoak (hau da, 1. kategoriako laborategiak ¹⁴ soilik)				
	Industrialak	Unitate industrialak: biltegiatze/banaketa nabea Unitate industrialak: ibilgailuen prozesua/fabrikazioa/mantentze-lanak				
	Komertzialak	Denda/merkataritze-gune Biltegia/merkataritze-poligonoa Burtsaz kanpoko zerbitzuen hornitzailea; adibidez, finantza- eta higiezin-agentziak, ABLE ¹⁵ Kontzesionarioak Jatetxeak, kafetegiak eta edari-establezimenduak Eramateko prestatutako janaria				
	ERAIKIN PUBLIKOAK	Irakaskuntzakoak	Haur Hezkuntza Lehen Hezkuntza Bigarren Hezkuntza Goi-mailako hezkuntza			
			Sanitarioak	Medikuntza-kontsultategia Osasun-zentroa Klinika Ospitalea		
				Judizialak	Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak Merkataritze arloko epaitegiak Familia-epaitegiak Lan-arloko epaitegiak Administrazioarekiko auzien epaitegiak Probintzia-auzitegiak Justizia Auzitegi Nagusia Auzitegi Nazionala Auzitegi Gorena Konstituzio Auzitegia Epaitegi konbinatuak	
Egoitza-erakundeak					Zaharren egoitzak Ikasleen egoitzak eta hotelak, hostalak eta pentsioak	
		Egoitzakoak ez diren erakundeak	Museoak, arte-galeriak Liburutegiak Eguneko zentroa, gizarte-etxea, gizarte-zentroa Gurtza lekua			
BESTELAKOAK			Bilera eta aisialdirako gunak		Zineak Antzokiak, kontzertu-aretoak Erakustaretoak eta hitzaldi-aretoak Aire zabaleko eta barruko kirolak, gimnasioak eta jolas-guneak (igerilekuarekin edo gabe)	
					Bestelakoak	Garraio zentroak Ikerketa- eta garapen-zentroak (2. ¹⁶ eta 3. ¹⁷ kategoriako laborategiak) Hautzaindegia

¹⁴ 1. Biosegurtasun maila. Maila honetan laborategiko langileentzat eta ingurumenerako arrisku minimoa duten agenteekin lan egiten da. Maila honetan ez da ekipo berezirik behar, ezta instalazioen diseinu espezifikorik ere [35].


¹⁵ Aldi Baterako Laneko Enpresa. Langile bat eta haren enplegatzaileen arteko bitartekaria. 14/1994 Legeak arautzen ditu ABLEak [36].

¹⁶ 1. mailaren antzekoa da, baina langile eta ingurumeneratzako arrisku ertaineko agenteak erabiltzen dira. [35].

¹⁷ Maila hori dago laborategi klinikoetan, diagnostiko-laborategietan, unibertsitateko laborategi batzuetan eta ikerketa-laborategi batzuetan. Bertan, lana egiten da agente exotikoekin edo kalte larria eta hilgarria eragin dezaketenekin, arnastearen edo horien eraginpean egotearen ondorioz. Instalazioek diseinu berezia behar dute izan [35].

ESKEMAREN OSAGAIK ETA EBALUAZIO METODOLOGIA

Eraikuntza Berriko BREEAM eskemak, eraikinaren inpaktua ebaluatzen du hamar kategoriatan (ikus 8. Irudia): Kudeaketa, Osasuna eta Ongizatea, Energia, Garraioa, Ura, Materialak, Hondakinak, Lurzoruaren Erabilera Ekologikoa, Kutsadura eta Berrikuntza. Ondoren, jasangarritasun-maila desberdinetan oinarriturik, haietako bakoitzaren ziurtapena burutzen du, era berean, etorkizuneko eraikin jasangarriagoak lortzeko gida-tekniko eta erreferentzia gisa erabiltzeko [37].




8. Irudia. Eraikuntza Berriko BREEAM eskemaren ebaluazio-kategoriak.

BREEAM ES osatzen duten kategoriatan bakoitzari haztapen bat dagokio. Haztapenek BREEAM ESei jorrotutako iraunkortasun-betekizunen inpaktu erlatiboa definitzeko — eta, ondorioz, sailkatzeko — bitarteko bat ematen dute. BREEAM ESei erabiltzen duen haztapen-sistema, aditu-talde batek adostasunez onartutako haztapenen konbinazio batetik eratorria da. Haztapen horiek kategorien balio erlatiboak eta BREEAM ES global puntuazioa lortzeko egiten duten ekarpena zehazteko erabiltzen dira. BREEAM ESei erabiltzeko haztapenak, 2. Taulan daude eskuragarri.

2. Taula. BREEAM kategorien haztapenak.

KATEGORIA	HAZTAPENA
Kudeaketa (KDKT)	11,5
Osasuna eta Ongizatea (OO)	14
Energia (ENE)	18
Garraioa (GAR)	8
Ura (URA)	10,5
Materialak (MAT)	12
Hondakinak (HOND)	7
Lurzoruaren Erabilera Ekologikoa (LEE)	9,5
Kutsadura (KUTS)	9,5
Berrikuntza (BER)	10



Esan bezala, haztapen horiek eraikinaren puntuazio orokorra lortzeko erabiltzen dira. Hala ere, haztapen horiek aplikatu ahal izateko, lehenik eta behin kategoriatako bakoitzean, puntuazio bat lortu behar da.

Puntuazio hori lortzeko, kategoriatako bakoitzean baldintza edota betebeharrak ezartzen dira. Betekizun bakoitzak berariaz lantzen du eraikinaren ingurumen-inpaktua edo okupatzaileekin lotutako faktore bat, ekarpen hori kuantifikatzeko, puntu kopuru jakin bat esleitzen zaiolarik. Puntuak ematen dira eraikin batek baldintza horretarako definitutako portaera-jardunbide onenen

mailak betetzen dituenean — hau da, ingurumen-inpaktua arintzea lortu badu — edo Osasunari eta Ongizateari buruzko betekizunaren kasuan, okupatzaileekin lotutako faktore bati men egin baldin badio, hala nola erosotasun termikoari, argiztapen naturalerako sarbideari edo akustikaren kalitateari.

Banakako eskakizun bakoitzean lor daitekeen puntu kopurua aldatu egiten da. Normalean, zenbat eta puntu gehiago izan eskuragarri, orduan eta garrantzitsuagoa izango da eskakizunaren ekarpena eraikinaren ingurumen inpaktua arintzerako orduan. Hainbat puntu eskuragarri dauden kasuetan, horiek ematea eskala mailakatu batean oinarritzen da oro har, non gero eta estandar handiagoekin bat datozen portaerei puntu kopuru handiagoa esleitzen baitzaie.

Garrantzitsua da azpimarratzea, eraikin baten portaeraren ebaluazio honek, erabiltzaileei Funtzionamendu Adierazle Gakoen (KPI¹⁸) multzo fidagarri bat eskaintzen diela, eraikinarekin lotutako inpaktu, funtzionamendu eta eraikitze-prozesuari dagokionez. Hala bada, balio horiek ingurumen-baldintza indibidualei buruzko antolamendu-politika baten helburu espezifikoak babesten dituzten portaera-mailak definitzeko erabil daitezke. Laburbilduz, puntuatze- eta haztatze-prozesu hori, lau pausotan banatzen da:

1. Kategoriatako bakoitzari puntuazio bat esleitzen zaio. Puntuazio hori erabakitzeaz arduratzen dena, BREEAM Aholkularia da, eta obra bakoitzari, aholkulari bat dagokio. Honek, betekizun bakoitzean zehaztutako irizpideen arabera puntuazioa esleitzen dio kategoria bakoitzari.
2. Kategoria bakoitzean, eraikin mota, kokalekua eta bestelako ezaugarriak kontuan harturik, puntuazio maximo eskuragarri bat dago. Puntuazio maximo horietatik aholkulariak esleitutakoaren arabera, kategoria bakoitzean lortutako puntuen portzentaia kalkulatzen da.
3. Aholkulariak kategoria bakoitzean lortutako ehuneko hori dagokion haztapenarekin biderkatzen du kategoriako ingurumeneko puntuazio orokorra lortuz.
4. Kategoria bakoitzeko puntuazioen batuketatik BREEAM ES global puntuazioa lortzen da. Azkenik, puntuazio orokor hori BREEAM ES sailkapenaren erreferentzia-balioekin alderatzen da, eta gutxieneko baldintza guztiak bete badira, BREEAM ES bidezko sailkapena ematen da.

Lortutako puntuazio horren arabera, BREEAMak bost maila desberdinetan banatzen ditu baldintza puntuazio minimoak lortu dituzten eraikuntza berriko eraikinak: Egokia, Ona, Oso ona, Bikaina eta Apartekoa. Maila horietako bakoitza eskuratzeko erreferentziazko balioak 3. Taulan ageri dira.

3. Taula. BREEAM mailen erreferentziazko balioak.

MAILA	ERREFERENTZIAZKO BALIOA
APARTEKOA	≥ 85%
BIKAINA	≥ 70%
OSO ONA	≥ 55%
ONA	≥ 45%
EGOKIA	≥ 30%

BREEAM ES sailkapen batek aukera ematen die bezeroei eta interesa duten beste alderdi batzuei eraikin baten portaera BREEAM ES sailkapenaren arabera sailkatutako beste eraikin batzuenarekin

¹⁸ Key Performance Indicator. Ekintza bat edo ekimen multzo bat erakundeak proposatutako helburuei benetan erantzuten ari zaien neurtzeko modu bat da [38].

alderatzeko, ebaluazioaren bizi-zikloaren fase berean. Zentzu horretan, BREEAM sailkapen bakoitzak, oro har, honako hauen pareko portaera du:

- Apartekoa: eraikin berrien % 1 baino gutxiago (berritzailea).
- Bikaina: eraikin berrien % 10 (jardunbide onenak).
- Oso ona: eraikin berrien % 25 (jardunbide egoki aurreratuak).
- Ona: eraikin berrien % 50 (bitarteko jardunbide egokiak).
- Egokia: eraikin berrien % 75 (jardunbide egoki estandarrik).

GUTXIENKO BALDINTZAK

Ebaluazio-metodologiako azken puntu horretan aipatutako gutxieneko baldintza horiek, BREEAMak berak ezartzen ditu kategorietako bakoitzerako. Hein handi batean, kategorietako bakoitzean, puntu gehienak aukerakoak dira, malgutasuna bermatzeko, eta atal baten betetze eza, beste bat betetzearekin konpentsa daiteke. Baina badira hainbat kategorია, non sailkapen espezifiko bat lortzean funtsezko jasangarritasun printzipioari uko ez egitearren, BREEAMek bai ala bai bete beharreko baldintzak ezartzen dituen.

Beraz, BREEAM sailkapen konkretu bat lortzeko, maila horri dagokion erreferentziazko balio minimo hori lortu beharko da, baita maila horri esleitutako baldintza minimoen puntuazioa ere. Bi eskaera horiek lortzerakoan, biak ala biak, orduan bakarrik lortuko da BREEAM ziurtagiria.

Hau da, baliteke kategoría baten ziurtapena lortzeko puntuazio minimoa lortzea, baina gutxieneko baldintza horiek betetzen ez badira, aholkulariak ez du kategoría hori ziurtatutzat emango. Kategoría bakoitzerako gutxieneko baldintza horiek, 4. Taulan daude eskuragarri.

4. Taula. Gutxieneko baldintzak.

BETEBEHARRA	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
KDKT01: Kudeaketa jasangarria	1 ¹	1	1	1	2
KDKT02: Eraikuntza jasangarriko praktikak	-	-	-	1	2
KDKT04: Interesdun alderdien partaidetza	-	1	1	1	1
OO01: Ikusmen-erosotasuna	Aurre-betekizuna ²	Aurre-betekizuna	Aurre-betekizuna	Aurre-betekizuna	Aurre-betekizuna
OO04: Uraren kalitatea	1 Irizpidea ³	1 Irizpidea	1 Irizpidea	1 Irizpidea	1 Irizpidea
ENE01: Efizientzia energetikoa	-	-	-	6	10
ENE02: Monitorizazio energetikoa	-	-	-	1	1
ENE04: Karbono emisio baxuko edo gabeko teknologien erabilpena	-	-	-	1	1
URA01: Ur-kontsumoa	-	-	1	2	3
URA02: Ur-kontsumoaren monitorizazioa	1 Irizpidea	1 Irizpidea	1 Irizpidea	1 Irizpidea	1 Irizpidea
MAT02: Hornikuntza arduratsua	-	-	-	-	1 Irizpidea
HOND01: Eraikuntzako hondakinen kudeaketa	-	-	-	-	1
RSD03: Hiri-hondakinen kudeaketa	-	-	-	-	2

¹ Zenbaki hutsez adierazitakoetan, atal bakoitzean adierazitako irizpide guztietatik, gutxienez adierazitako irizpide kopurua frogatu beharko da atal horretako puntuazio eskuragarria lortu ahal izateko.

² Kasu hauetan, atal bakoitzeko irizpideak betetzeak ez du atala justifikatzeko balioko, aurrebetekizuna bezala izendatutako irizpidea bete ezean. Ataletako bakoitzean deskribatzen da atal horretako aurreirizpidea zein den.

³ Kategoría bakoitzean, 1 zenbakiaz identifikatutako irizpidea izango da bete beharreko betekizun minimoa.


EBALUAZIO METODOLOGIA

BREEAM ES ebidentzien ebaluazioa, fase bakoitzean eginkizunak frogatzeko ardua duen agentearen eta esleitutako BREEAM Aholkularien arteko informazio eta ebidentzien elkartruke baten bidez burutzen da. Ebaluazio prozesua hasi aurretik, Aholkulariak, ondorengo erremintak bidaltzen dizkie BREEAM ebidentziak biltzeko arduradunei:

- Ebaluazio-fase horri dagozkion aurkeztu beharreko ebidentzia-zerrenda.
- Ebidentziak aurkeztu beharreko lehen tasun zerrenda.

Behin ebaluazio-erreminta horiek behin bidalirik, lehenengo ebaluazio epea ezartzen da, zeinerako lehen ebidentzia-zerrendan adierazitako froga denak bildu eta bidali beharko zaizkion Aholkulariari. Behin ebidentziak bidalita, Aholkularia BREEAM ES Ebaluazio Erremintaz baliatzen da. Erreminta hori, hainbat atalez osaturik dago.

1. Ebaluazioaren xehetasunak



Información general	
Código de registro BREEAM ES	esperando confirmación
Nombre del cliente	esperando confirmación
Usuario final del edificio	TSH
Nombre del Asesor	Susana López Crous
Organización autorizada	JG Ingeniería
Detalles del edificio	
Nombre del edificio	TSH Donostia
Dirección del edificio	C/ Hermanos Otamendi 902G, San Sebastián, Gipuzkoa
Código postal	20014
Tipo de edificio (descripción principal)	Multiresidencial
Tipo de edificio (subgrupo)	Multiresidencial - Residencia universitaria
Área del edificio (Superficie construida) m ²	46.987
Área del edificio (Superficie útil) m ²	42.288
Esquema BREEAM ES	Nueva Construcción
Versión	2015
Tipo de proyecto	Nueva construcción (acondicionado)
Fase de evaluación	Diseño (provisional)
Tipo de localización	Áreas urbanas medias (>25,000 población)
Instalaciones del edificio - tipo de sistema de calefacción	Sistema por aire
Instalaciones del edificio - tipo de sistema de refrigeración	Aire acondicionado
Instalaciones del edificio - tipo de sistema de agua caliente sanitaria	Suministro y distribución centralizada
Instalaciones del edificio - controles	Controles standard (tiempo/temperatura)
Si es aplicable, ¿la zona operativa del edificio industrial está calefactada y/o refrigerada?	Opción no aplicable al tipo de edificio
Si es aplicable, ¿el edificio industrial contiene una zona de oficinas?	Opción no aplicable al tipo de edificio
El edificio contiene inquilinos múltiples/departamentos/áreas funcionales	Si
Refrigeración comercial/industrial y sistemas de almacenamiento en frío	Si
¿Cuenta el edificio a evaluar con zonas externas dentro de los límites del emplazamiento y/o con aparcamiento cubierto/subterráneo (es decir, acceso de vehículos y zonas de aparcamiento)?	Si
Vegetación interna o externa y/o paisaje ajardinado blando	Si
¿Hay asociado algún riesgo de peligros naturales (o inundaciones) en la zona de evaluación?	No
Sistema de lavado de vehículos	No
Sistema de transporte de personas (ascensores y/o escaleras mecánicas)	Si
¿Hay piscinas interiores o exteriores?	Si
¿Hay laboratorios en el edificio a evaluar?	Sin laboratorio
Nivel de contención del laboratorio	No hay laboratorios
Dispositivos y zonas de contención del laboratorio	No

Proiektuaren ezaugarri nagusiak biltzen ditu, hala nola, zein eraikin mota den, zeintzuk diren proiektuan parte hartzen duten agente printzipalak, edota eraikinaren instalazio nagusiak zein motatakoak diren.

2. Puntuazioa

Erreminta honek, ebaluazio-fase bakoitzean, eraikinaren puntuazioa, eta beraz, haren kalifikazio uneoro zein den ezagutzeko aukera ematen du, eta beraz, ataletako bakoitzaren joera zein den aurkezten du, haietako bakoitzean aldaketaren bat egin beharrez gero, hura denboraz egiteko abagunea eskaintzen duelarik.

Erremintaren atal honen funtzionamendua oso simplea da:

- i. Zerrendatuta, ataletako (edo azpiataletako) bakoitzean frogatu beharreko irizpideak agertzen dira.
- ii. Irizpidearen ondoan, gelaxka zabalgarri bat ageri da, zeinek irizpidea betetzen den ala ez zehazteko aukera ematen duen, «Bai» eta «Ez» aukeren bitartez.
- iii. Jarraian, irizpide hori betetzekotan lortu daitezkeen puntu kopurua ageri da.
- iv. Azken zutabe batean, eskuragarri dauden puntu horietatik zenbat lortu diren zehazten da, irizpidea «Bai» bete denaren edo «Ez» bete ez denaren baitan.

Behin taulatxo hori beterik, lortutako puntuak batzen dira, eta puntuazio hori izango da atal horretan eskuragarri dauden puntuetatik lortutako nota. Abiapuntua nota hori izanik, atal horretan lortutako puntuazioak kategoriako puntuazio globalean zenbateko kontribuzioa duen kalkulatu da. Baina badira zentzu honetan hainbat ñabardura: lehenik eta behin, lortutako puntuazioa, eta beraz, azpiatalaren kontribuzioa, irizpide motaren arabera izango da eta nahiz eta gainontzeko irizpide denak «Bai» kalifikaziodunak izan, irizpide minimoetan «Ez» ageri bada, eskuratutako puntuazioaren gelaxkan 0 bat agertuko da zuzenean; era berean, puntuazio minimora iristen ez bada, nahiz eta berezko puntuazioa hala ez izan, ataleko puntuazio globala nulua izango da.

GST 1 Gestión sostenible

Nº de puntos disponibles		6	Contribución total del Requisito a la Categoría		3,45%
Nº de puntos de nivel ejemplar		1	Requisitos mínimos aplicables		Si
Criterios de evaluación		¿Cumple?	Puntos disponibles	Puntos obtenidos	
Proyecto en fase de diseño	Criterios 1-3	Si	1	1	
Construcción y entrega	Criterios 4 O 5	No	1	0	
Puesta en servicio	Criterios 6-8	No	1	0	
	Criterios 9-10	No	1	0	
Seguimiento	Criterio 11	Si	1	1	
	Criterios 12 y 13	Si	1	1	
	Nivel ejemplar (Criterio 14)	No	1	0	
Total de puntos BREEAM ES obtenidos			3		
Contribución total del Requisito a la Categoría			1,73%		
Total de puntos de innovación obtenidos			0		
Requisitos mínimos obtenidos		Nivel Excepcional			

10. Irudia. BREEAM Ebaluazio Erreminta - Puntuazioa.

Goiko 10. Irudia, xehetasun hauen adibide bat ageri da, KDKT01 atalaren ebaluazioan oinarriturik.


3. Aurkeztutako ebidentziak

Erremintaren zati hau, zereginen arduradunetako bakoitzak aurkeztutako frogen zerrenda bat besterik ez da, zeinen bidez, froga hori zein kapituluri dagokion eta zertan datzan adierazten den.

BREEAM ES Nueva Construcción 2015. Herramienta de evaluación. Evidencias.			BREEAM® ES	
Nombre del edificio: TSH Donostia				
Id	Evidencia	Requisito de aplicación	Criterio y/o Notas Adicionales	Información/comentarios del Asesor
1	Plano instalación fontanería PB, rev05. proporcionado por C Sesma (23/3/18)	AG 2	1	El plano indica la localización del armario de los contadores de agua ubicada en la esquina nor-este del edificio.
2	Ver Id.1	GST 3	4 y 5	El plano indica que el armario contiene contadores suficientes para cada zona húmeda y que por lo tanto es posible realizar el registro de


11. Irudia. BREEAM Ebaluazio Erreminta - Ebidentzia zerrenda.

Ebaluazio prozedura ikusirik, garbi uler daiteke BREEAM ES ebaluazioa, ebaluazio metodologia zikliko batean oinarriturik dagoela; hots, ebidentzia sorta bat errebisatu ostean, haiek balioztatzekotan, ebidentzia sorta berri bat eskatuko zaio arduradunari, hurrengo ebaluazio-fasean balioztatzeko; ostera, ebidentzietakoren bat balioztatzeko adina egokia ez izanez gero, zuzentzeko eskatuko zaio arduradunari, eta hurrengo ebaluazio-fasean bidali beharko du, aurrera egin ahal izateko. Horrela, ebaluazio-sistemak aurrera darrai, eraikuntza fasea amaitu bitartean.



12. Irudia. Ebaluazio metodologiaren fluxu-diagrama.

Honez gain, ebidentziak bi motatakoak izan daitezke: behin behinekoak edota behin betikoak. Behin behinekoak diren ebidentziak, ebaluazio-fase bakoitzean eguneratu beharko dira; hots, ebaluazio-metodologia bera ez ezik, ebidentzia mota hauek ere ziklikoak dira. Are gehiago, BREEAM ES osatzen duten ebaluazio ebidentzia gehienak, lehen ebaluazio fase honi dagozkionak ezinbestean, mota honetakoak dira. Behin behineko ebidentzien balidazioa beraz, ez da dagokion eraikuntza-fasea amaitu arte osatuko. Behin betikoak diren ebidentziak aldiz, behin justifikatuta, balidatuta geratzen da, eta ez da aurrerantzean justifikatu beharrik izango; mota honetakoak dira, esaterako, baimen bidez frogatzen diren ebidentziak (udaletxetik lortutako baimenak, besteak beste).



13. Irudia. BREEAM 1. Ebaluazio-prozesuaren GANTT diagrama.

4. Ebidentzien eguneraketa taula

Ebaluazio prozedurak izaera zikliko hori duen aldetik, ebaluazio-periodo bakoitzean zein ebidentzia berri aurkeztu diren adierazi behar zaio Aholkulariari. Horrenbestez, taula honen mekanika oso erraza da; ebidentzia berrien zerrenda batean datza, alboan ebidentzia hori ebidentzia-sorta osoaren baitan non aurki daitekeen adierazia duena.

Taula hau, ERANSKINA I: BREEAM EBALUAZIO METODOLOGIA – EBIDENTZIEN BIDALKETA EGUNERATZEKO ZERRENDA atalean aurki daiteke.

5. Zuzenketa erreminta

Erreminta hau ebidentzia-sorta biltzeko arduradunaren eta ebaluazioa burutzen duen BREEAM Aholkulariaren arteko komunikazio erreminta da. Taula honen bitartez, arduradunak egindako lanaren feedbacka jasotzen du, ataletako zein zuzendu behar duen jakitea izanik erreminta honen xedea, hurrengo ebaluazio periodoan balioztatu ahal izateko. Taula hau bost zutabe nagusietan banatuta dago:

- Atala: ebaluazio-ebidentzia zein atali (eta azpiatali, izatekotan) dagokion ezartzen du. Adibidez: KDKT02 → a itema.
- Eskatutako ebidentziak: ebidentzia konkretu batzuk eskatzen diren ataletan, haiek zeintzuk diren deskribatzen du.
- Aurkeztutako ebidentziak: arduradunak irizpideak justifikatzeko aholkulariari bidalitako ebidentzia-zerrenda.
- Iruzkinak: aholkulariaren iruzkinak biltzen ditu; aurkeztutako ebidentziak egokiak diren ala ez, zer zuzendu behar den, hurrengo ebaluaziorako zein ebidentzia gehiago aurkeztu behar diren...
- Egoera: irizpidea balioztatu gabe, balioztatzeko prozesuan edota balioztatuta dagoen finkatzen du.

TSH Donostia hotelaren lehen ebaluazio-periodoko zuzenketa erreminta ERANSKINA I: 1. EBALUAZIO PERIODOKO EMAITZAK dago eskuragarri, Aholkulariaren iruzkinekin batera.

EBALUAZIO ADIBIDEA: BILBAO INTERMODAL




14. Irudia. Bilbao Intermodalen proiektua.

Ebaluazio prozesu hau aurrera nola eramaten den hobeto ulertzeko lez, aurrerago 6. TSH DONOSTIA atalean xehetasun handiagoz azaltzen den kasuaren ebaluazio-prozesurako oinarri izan den **Bilbao Intermodal** Bilboko autobus geltoki berriaren ebaluazio eskema erakusten da (ikus 5. Taula). Taulan bertan ikus daitekeen moduan Bilbao Intermodal proiektuaren azken ebaluazioa ONA izan bazen ere, proiektu hau Construcciones Amenabar S.A. enpresak berak garatua izan zenez, TSH Donostia proiektuaren ziurtapena eskuratzeko prozeduren oinarri moduan erabilia izan da, txosten teknikoak nola garatu, hondakin eta materialen jarraipena nola egin eta bestelako jardueren nondik norakoak kontsultatzerako orduan batik bat, baita BREEAM Aholkulariei bidali beharreko ebidentzien berri izateko ere.

5. Taula. Bilbao Intermodalen BREEAM ebaluazio eskema.

Kategoriak	Puntuazio eskuragarria	Lortutako puntuazioa	Lortutako puntuazioaren ehunekoa (%)	Ingurumen haztapena (%)	Kategoriako amaierako puntuazioa (%)
Kudeaketa	20	7	35,00	11,50	4,03
Osasuna eta Ongizatea	12	3	25,00	14,00	3,50
Energia	24	15	62,50	18,00	11,25
Garraioa	12	12	100,00	8,00	8,00
Ura	9	6	66,67	10,50	7,00
Materialak	11	2	18,18	12,00	2,18
Hondakinak	5	3	60,00	7,00	4,20
Lurraren Erabilera Ekologikoa	12	7	58,33	9,50	5,54
Kutsadura	13	1	7,69	9,50	0,73
Berrikuntza	10	1	10,00	10,00	1,00
BREEAM ES AMAIERAKO PUNUAZIOA					47,43
BREEAM ES KLASIFIKAZIOA					ONA



Kategoria desberdinen ebaluazio eskemaz gain, 6. Taulan eskuragarri daude Eraikuntza Berriko BREEAM ES eskeman aintzakotzat hartzen diren KPIak, eta baita hauen ebaluaketa Bilbao Intermodaleko proiektuan ere. Taula horretan bertan ikus daiteke garrantzia handia hartzen duten alderdiak zeintzuk diren kategoriatako bakoitzean, eta baita haiek ebaluazioan bertan indarra izan dezaten aurrera eraman beharreko analisia zein den ere, eraikuntza-prozesu osoaren zein fasetan aztertzen diren zehazten delarik.

6. Taula. Bilbao Intermodaleko KPI ebaluaketa.

Energia (kontsumoa)	Bizi-zikloaren fasea	Neurketa	Intentsitatea	Unitateak	Guztira	Unitateak
Eraikinaren Funtzionamendua ¹	Erabilera	Modelatua	10,94	kWh/m ² /urte	514.163	kWh/urte
Eraikuntza prozesua ²	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³
Garraioa ⁴	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³
Berotegi-efektuko gasak						
Eraikinaren Funtzionamendua ¹	Erabilera	Modelatua	1,85	kgCO ₂ ^{bal} /m ² /urte	87,097	kgCO ₂ ^{bal} /urte
Eraikuntza prozesua ²	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³
Garraioa ⁴	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³
Berotegi-efektuko gasen isuri zuzena – Hozgarriak ⁵	Erabilera	Modelatua	EGA ³	kgCO ₂ ^{bal} /kW ^{erref}	EGA ³	kgCO ₂ ^{bal}
Sustantzia kutsakorren isuria airera, urera eta lurrera						
NO _x ⁶	Erabilera	Neurtua	EGA ³	mg/kWh	EGA ³	kg/urte
Uraren erabilera						
Eraikinaren Funtzionamendua ⁷	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³
Eraikuntza prozesua ⁸	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³
Eraikuntza hondakinak						
Sortutako eraikuntza-hondakinak ⁹	Eraikuntza	Helburua	3.261,00	tn/m ²	Bai	tn
Zabortegira eramandako hondakinak ¹⁰	Eraikuntza	Helburua	0,00%	m ³ /100m ²	Bai	tn
Materialen hornikuntza						
Materialen hornikuntza arduratsua ¹¹	Eraikuntza	Neurtua	EGA ³	%	-*	-*
Konfort termikoa						
Zenbatetsitako kontengaitzen ehunekoa (PPD) ¹²	Erabilera	Modelatua	EGA ³	PPD (%)	EGA ³	EGA ³
Zenbatetsitako batz besteko botua (PMV) ^{12a}	Erabilera	Modelatua	EGA ³	PMV	EGA ³	EGA ³
Barneko airearen kalitatea						
Formaldehido isuriak ¹³	EGA ³	EGA ³	-*	EGA ³	EGA ³	EGA ³
Osagai Organiko Lurrunkorren Kontzentrazioa ¹³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³	EGA ³

Taulako kontzeptuen deskribapena:

¹ Kalkulu Metodo Nazionalen adierazitako onartutako softwarea erabiliz modelatzea, BREEAM ES definizioaren arabera. Modelatuak barne hartzen ditu eraikinaren energia-kontsumoa, barneko argiztapen-, berokuntza- edo hozte-sistema finkoena, ur beroaren instalazioarena edo aireztapen mekanikoarena (zerbitzuko energia). Jakinarazitako eraginen artean sartzen da ekoiztiko energia (kokalekuan bertan edo kanpoan), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko apirilaren 29ko 2009/28/EE Zuzentarauan, iturri berriztagarrietako energiaren erabilera sustatzekoan, definitzen den bezala. Zuzentaru horrek 2001/77/EE eta 2003/30/EE Zuzentaruak aldatu eta indargabetzen ditu.

² Jakinarazitako inpaktuen artean daude eraikuntza-instalaziotik, ekipamenduetatik eta kokalekuko ostatuetatik egindako energia-kontsumoa. KPI hori ez da ebaluatzen/jakinazten diseinu-fasean.

³ Ebaluatu Gabeko Adierazlea. Kasu horretan daude eskatutako datuak eta KPIa, proiektu-taldeak neurtu/bildu ez dituenak edo eraikin mota edo ebaluazio-fase baterako berritu/kuantifikatu gabek.

⁴ Jasotako inpaktuak eraikina osatzen duten elementu nagusien eraikuntza-materialen garraioa, lurra prestatzeko eta lorategiak jartzeko lanak (fabrikatik kokalekura) eta eraikuntza-hondakinak (obratik hondakinak prozesatzeko gunera) estaltzen ditu. Eraikinaren elementu nagusiak Eraikuntza Berriko BREEAM ES Eskuliburu Teknikoan definituta daude. KPI hau ez da ebaluatzen/jakinazten diseinu-fasean.

⁵ Jasotako eragina 10 urteko azterketa-aldi baterako da. BREEAMen bizi-zikloan eragin zuzena duten CO₂ isurketa baliokideen kalkulua hozteko eta aire girotuko sistematarako Beroketa Atmosferikoaren gaineko Guztizko Inpaktu Baliokidearen kalkulu-metodoan (TEWI) oinarritzen da.

⁶ Jasotako inpaktuak berotzeko, hozteko eta ur bero sanitarioko instalazioen emisioak estaltzen ditu.

⁷ Jasotako inpaktuak okupatzaileek eraikineko aparatu sanitarioen ur kontsumo garbia barne hartzen du. Inpaktuak euri-uren biltzea ere kontuan hartzen du, baita edateko ez den uraren beste iturri onargarri batzuk ere.

⁸ Jasotako inpaktua uraren kontsumo garbia da, hau da, kontuan hartzen du eraikineko ur ez-edangarriaren eskaria konpentsatzeko erabilitako ur grisen eta euri-uren biltzea. KPI hau ez da ebaluatzen/jakinazten diseinu-fasean.

⁹ Eragindako inpaktuak sortutako hondakin ez-arriskutsuak estaltzen ditu.

¹⁰ Eragindako inpaktuak zabortegira bidalitako hondakin ez-arriskutsuak estaltzen ditu.

¹¹ BREEAMek aurkeztu eta ebaluatutako funtsezko elementuen proportzioa jasotzen du txostenak, eta horiek modu arduratsuan hornitzen dira, Eraikuntza Berriko BREEAM ES Eskuliburu Teknikoan definitzen den bezala.

¹² *Porcentaje Estimado de Insatisfechos* (PPD). Teknikoki pozik ez dauden eta hotzegi edo beroegi sentitzen diren pertsonen ehunekoaren aurreikuspen kuantitatiboa ezartzen duen indizea da. UNE-EN 7730:2006 arauaren helburuetarako, teknikoki pozik ez dauden pertsonak oso sententzia beroa, beroa, freskoa edo hotza dutenak dira.

^{12a} *Voto Medio Estimado* (PMV). Giza gorputzaren oreka termikoan oinarritutako sententzia termikoko 7 puntuko eskalarekiko pertsona talde batek emandako botoen batez besteko gorabehera islatzen duen indizea da. Oreka termikoa lortzen da gorputzaren barneko bero-sorkuntza eta inguruneke bero-galera berdinak direnean.

¹³ Konposatu Organikoen Guztizko Kontzentrazioa eraikuntza ondoko aldian (baina okupazioaren aurretik) neurtzen da 8 orduz. Formaldehidoaren kontzentrazioa eraikuntza ostean neurtzen da (baina okupazioaren aurretik), batez beste 30 minutuz. Bi KPIak ISO estandarren arabera neurtzen dira.

* Ebaluatzen ari den eraikinari aplikatzeko ez den KPI.

ERAIKINAREN BIZI-ZIKLOAREN FASEAK

Eraikuntza Berriko BREEAM ES eskemak eraikin berriek, beren inguruneak barne, ingurumenean duten eragina ebaluatu eta sailkatzeko aukera ematen du bizi-zikloaren fase hauetan:

- i. Diseinu-fasea: behin-behineko BREEAM ES sailkapena lortzea dakarrena
- ii. Eraikuntza ondoko fasea: behin-betiko BREEAM ES sailkapena lortzea dakarrena

Fase horietako bakoitzak, bere eginbehar eta betekizunak dauzka BREEAM ziurtagiria lortu ahal izateko, eta horietako bakoitza hertsiki lotuta dago lortu nahi den BREEAM mailarekin. Aparteko BREEAM maila lortu nahi izanez gero, esaterako, diseinu faseak berebiziko garrantzia hartzen du, Berrikuntzako kategoriak izugarriko inportantzia baitu klasifikazio hori lortzerakoan.

DISEINU-FASEA (DF)

Diseinu-fasearen ebaluazio eta behin-behineko BREEAM ES sailkapenari esker, eraikinak diseinu-fasean duen portaera berretsi daiteke. Ahal dela, ebaluazio hori kokalekuan obrak hasi baino lehen

egin behar da. Esan bezala, fase honetako sailkapena behin-behinekoa da, ez baitu adierazten eraikinaren azken portaera Eraikuntza Berriko BREEAM ES eskemari jarraiki.

Aholkulari batek exijitutako mailaren arabeko eraikinaren portaerari buruzko informazioa ebaluatu eta egiaztatu ahal izateko, diseinuak nahiko aurreratua egon behar du, ezarritako irizpide eta baldintzak betetzen diren ala ez ziurtatzeko aukera izan dezan. Horrenbestez, DFren behin-behineko ebaluazioa, Oinarrizko Proiektuaren edota Egikaritze-Proiektuaren fasean burutuko da.

ERAIKUNTZA OSTEKO FASEA (EOF)

Eraikuntzaren behin betiko ebaluazioa eraikuntza-lanak amaitu ondoren osatu eta ziurtatzen da. Ebaluazio osoa, EOFan egin daiteke, aldeztatik diseinu-fasea garatu gabe, horretarako ebaluazio-txosten osoa egin behar delarik. Aldeztatik behin-behineko ziurtagiri bat egon baldin badago (DF), behin-behineko ebaluazioaren eraikuntza osteko berrikuspena egingo da. Berrikuspene honek balio du baieztatuzko eraikinak obraren arabera duen sailkapena eta portaera bat datozela diseinu-fasean ziurtatutakoarekin.

Erabilitako ebaluazio-metodologia edozein izanda ere, hots fase bakarrekoa edota bikoa, argi dagoena da eraikuntza fasean baldintza eta betekizun denen jarraipen sakon eta zehatza burutu beharra dagoela, ondoren, EOFan benetan xehetasun guztiak bete direla justifikatu ahal izateko, eta behin betiko ziurtagiria eskuratzeko. Prozesu hori bera da, eraikuntza faseko betekizun horien justifikazio-metodologia hori bera alegia, dokumentu honetan zehazki azalduko dena.

6. TSH DONOSTIA

Aurretik aipatu bezala, proiektu honen egikaritzea, Construcciones Amenabar S.A. enpresaren baitan burutu da, Donostiako *Otamendi Anaiak 902G* partzelan eraikitzen ari diren The Student Hotel Donostia ikasleentzako egoitza proiektuan parte hartzen ari diren heinean, eraikuntzako enpresa lanetan. Hori dela eta, atal honetan, proiektuaren ezaugarri nagusiak aipatuko dira.

THE STUDENT HOTEL ENPRESAREN EZAUGARRI OROKORRAK

The Student Hotel (TSH) enpresa gazte eta dinamikoa da, ostatatze joera berriekin bat datorrena eta iraunkortasun eta berrikuntza teknologikoarekin oso lotua dagoena, eskaintza moderno bat garatuz, publiko misto bati zuzendua, batez ere ikasle, profesional gazte eta bidaiariei; izaera ireki eta multikulturaleko ingurunean. The Student Hotelen berrikuntza eta aberastasuna, profil askotariko eta osagarriak dituzten bezeroak teiltatu beraren azpian bildu nahi izatearen kontzeptuan datza, kultur oztoporik gabeko giro betearen sortuz, ostatu-hartzaileen esperientzia ezberdina eta aberastasunez betearen izan dadin.

TSH kateko hotelek, ikasle egoitza eta hotel kontzeptu tradizionalak alde batera uzten dituzte, kontzeptu hibrido berritzaile bat sortuz, mugak desitxuratuz, ikasle, bidaiari, profesional, nomada

sortzaile eta ekintzaileek elkarlanean aritzeko aukera izan dezaten diseinu eraberritzaileko espazioak sortuz [39].



15. Irudia. TSH kateko hotelak (horiz jadanik badaudenak eta beltzez martxan daudenak) [42].

Egoitza nagusia Amsterdamen duen enpresa hau, 65 kokalekutara zabaltzeko asmoz dabil datozen 5 urteotan – gaur egun 15 hotel dauzkate jada martxan, eta beste 12 martxan jarriak dira, Donostiakoa barne (ikus 15. Irudia) – Portugalen, Espainian, Frantzian, Eskozian, Italian, Herbehereetan, Alemanian eta Austrian banaturik gutxienez 17.550 logela eta *co-living*¹⁹ eta *co-working*²⁰ espazioetarako 620.000 m² baino gehiago edukiko dituen komunitate hibrido konektatuen hotel-kate nagusia bihurtuz Europan.

TSHk beti epe luzerako ikuspegi batekin jarduten du; izan ere, TSHk bere establezimendu guztietako inbertitzaile eta operadore gisa garatzen ditu proiektuak. Beraz, garapen-etapa guztietan hartutako erabaki guztiek establezimenduen iraunkortasuna bermatzera bideratutako logika bati erantzuten diote, bai eta establezimendu horiek hiriarekin duten harremanari ere.

TSHren estrategia korporatiboaren helburua, kalitatea eta sinpletasuna bilatzen duten bezeroen eskaerari erantzutea da, kalitatezko ostatua arrazoizko prezioetan eskainiz. Nazioarteko izaera eta izaera kosmopolita duten gazteak erakartzeko eta mantentzeko borondatea du, eta aldi berean, bertakoentzat erakargarria izatekoa, jatetxez, tabernaz, ikasketa-gunez eta jolas-eremuez jositako mundu osorako espazio komun irekien konfigurazioari esker.

¹⁹ Coworkingak etxebizitzaren merkatuan duen hedapen edo bilakaera bat da colivinga, egoiliarrei espazioak ematen dizkiena, normalean antzeko profesionalak, eta lantoki bat partekatzeaz gain, esperientziak, lanekoak eta bizitzakoak trukatzeko jarrai dezaketen etxe bat partekatzen dutenak [40].

²⁰ Coworking-guneak partekatutako bulegoak dira. Bertan, profesional autonomoek, telelangileek eta enpresariak lan egiten dute, eta espazioaren kudeatzaileek beren kideen artean eta kideentzat aukera profesionalak eta pertsonalak konektatzen eta sortzen saiatzen dira [41].


Sei bloke nagusi dira komunitate hori sortzen laguntzeko adierazitako osagaiak, eta horien artetik, egonaldiaren arabera, honako hauek zehaztu ditzakegu:

- Egonaldi luzeak: ikasleak 5, 10 edo 12 hilabeteko egonaldietan, eta co-working erabiltzaileak
- Iraupen ertaineko egonaldiak: gutxienez 2 aste.
- Egonaldi laburrak: bisitariak eta turistak hainbat egunetan, asteburuetan...
- Bisitak: espazio komunen erabiltzaileak, jatetxea, tokiko ekitaldiak, kafetegia.

JASANGARRITASUNA

Jasangarritasuna funtsezko elementua da TSH komunitatearen garapenerako. Ez bakarrik kokapen berrien eraikuntzan, baizik eta eguneroko jardunean. Enpresaren lan-sorta osoak, eraikuntza berriko eraikinei dagokienez, BREEAM eraikuntza jasangarriko ziurtagiria du, *Ona*, *Oso Ona* edo *Bikaina* kalifikazioa dutenak. Donostiako eraikinaren kasuan, helburua *Oso Ona* kalifikazioa lortzea da, BREEAM estandarraren arabera ziurtatutako Euskal Autonomia Erkidegoko lehen hotela izanik [43].

Bestalde, TSHk mugikortasun jasangarria sustatzen du bere komunitate osoarentzat, bizikletaz hornituz (ikus 16. Irudia), eguneroko ohituretan hirian mugikortasun hobea sustatuz. Mugikortasun-aukera hau TSHren izaeraren zati bat da, Herbehereetan sortu baitzen, non bizikleta garraiobide nagusia den. Donostia, balio horiekin eta mugikortasun jasangarriaren aldeko apustu handiarekin bat datorren hiria, eta hiriko eremu gehienak lotzen dituen bidegorri-sare zabala, agertoki ezin hobea da mugikortasun mota hori gehiago sustatu eta garatu ahal izateko, hiria eta herritarrak hobetuz.



16. Irudia. TSHk bere ostalariei eskainitako bizikletak.

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

KOKALEKUA

Plangintzatik bertatik, lurzattia Loiolako Erribera auzoko kokapen berezitzat jotzen da. Saihesbidetik hurbilen dagoen partzela da, eta hirugarren sektoreko eraikinen multzo berezi bat osatzen du gizarte-segurantzako eraikinarekin batera, bizitegi-izaera nabarmena duen auzo batean. Bereizketa programatiko horrez gain, eraikina auzoan garatzeko geratzen den azken partzelan dago. Auzoa amaitzen duen eraikina izango da.



17. Irudia. Loiolako Erriberak auzoko egoera eraldaketa urbanistikoa jasan aurretik.

Aldaketa handia jasan du auzoak, eremu naturala izatetik (ikus17. Irudia), ia guztiz urbanizatutako gunea izatera igaro baita (ikus 18. Irudia) hamabost urteren buruan. Bertako partzela bat hautatu izana hotelaren eraikitzerako ez da kasualitatea izan; alabaina, bertako lurrak “kalitate ekologiko kaxkarreko lurrak” direla esan daiteke, betetze-lurrez, padura-lurrez eta buztin-lurrez osaturikoak baitira eta ez baitago partzelan florari dagokionean espezie autoktonorik. Hori dela eta, eraikinaren egikaritzeak gune horretan eduki dezakeen ingurumen-inpaktua, balio ekologiko altuagoko lursail batean eduki dezakeena baino baxuagoa da; horra hor, partzela hori aukeratu izanaren arrazoi nagusia.



18. Irudia. Obrak hasi aurreko egoera (Gizarte Segurantzaren eraikina falta da ondoko partzelan).

Kontuan izan beharreko beste aspektu bat, partzelak balio ekologiko altuko gunetarako duen urruntasuna da. Kontu honi erreparaturik, esan daiteke hautaturiko partzela nahiko egokia dela, ez baitu parke natural, baso, larre, jardin edo bestelakorik ingurunean. Garrantzitsua da gunen gertukotasuna aztertzea, izan ere, obra-fasean sortutako hauts, partikula, kutsadurak (akustikoak eta argiztapenekoak barne) eta isuriek, eragina izan dezakete lurzoru horien kalitatean, biosferan eta faunan.




19. Irudia. Partzelaren kokalekua Loiolako Erriberak auzoaren baitan.

Inpakturik handiena seguruenik, inguruko etxebizitzekiko duen eragin bisuala litzateke, batez ere, Bartzelona Etorbideko etxebizitza-lerroarentzat, haien aurrez aurre kokaturikoa baita hotela, altueran ere haien parekoa delarik. Honek, eraikinak bata bestetik gertuegi egonez gero argiztapen naturalaren gutxitzea ekar lezake baita paisaiaren narriadura ere. Eraikin hau ordea, argiztapenaren desabantaila saihesteko, etxebizitzetatik ahalik eta gehien urrundurik dago, etxebizitza-lerroekin batera, plaza bat osatzen duelarik hain zuzen ere.

Partzelatik gertuen dagoen balio ekologiko handiko elementua, Urumea Ibaia da, zeinek auzoa gurutzatzen duen; kasu honetan ordea, ibaiaren ingurune osoa urbanizatuta dago jada, eta partzela eta ibaiaren artean, hainbat etxebizitza ilera daude jadanik eraikirik. Beraz, obrako jardueren monitorizazio egokia jarraituz gero (ur-isuriaren kudeaketa egokia, obrara heldu eta obratik doazen kamioien gurgipen garbiketa...) ez luke ibaiaren egoeraren okertzerik ekarri beharko.

Gune beretik, Cristina Enea parkea dago, balio ekologiko nabarmenarekin, batez ere florari dagokionean, espezie autoktono ugariaren bizileku izanik, baita faunaren arnagune ere guztiz urbanizaturiko gune zabalean, batez ere txorien kasu. Parkea ordea, ibaiaz bestalde kokaturik dago, hortaz, ibaiarekiko jarraituriko ikuspuntu bera nahikoa litzateke obratik eratorritako eragozpenak saihesteko.



20. Irudia. Partzelaren planoak.

JASANGARRITASUNA ETA EFIZIENTZIA ENERGETIKOA

Proiektu hau BREEAM ziurtapen independentearen estandarpean egin da, eta **BREEAM VERY GOOD** kalifikazioa lortzea du helburu, aurrekontu-baliabideen eta baldintzen arabera. Gainera, BREEAM ziurtagiria duen Euskadiko lehen hotela da.

Bere balio korporatiboen artean, TSHk jasangarritasunaren aldeko apustu konprometitua egiten du, bere hotel proiektu guztiak Europan BREEAM ziurtagiriarekin garatuz, bere hoteletan bere ingurumen eragina murrizteko politika eta estrategia ezberdinak ezartzeaz gain.

ERAIKINAREN EZAUGARRI OROKORRAK



21. Irudia. TSH Donostia proiektua.

TSH Donostia hotela, sei solairuz, beheko solairu batez eta bi sotoz osaturik dago. Sei solairu horietan, apopiloentzako logelak daude, hotelen ohiko distribuzioa jarraituz; korridore nagusi bat eta korridorearen alde bietan, gelak. Lehenengo solairuan, logelez gain, sukaldea, jantokia eta beheko solairuarekin konektaturik dagoen egongela bat ere badaude.

Eraikinaren hotel-kontzeptuak berak garrantzi berezia ematen dio beheko solairuari. Auzoari irekitako espazio gisa ulertzen da eta eraikinaren erabilera publikoenak hartzen ditu, beirazko fatxada garden batek mugatutako espazio batean. Hoteleko sarrera nagusia Otamendi Anaiak kaletik egiten da. Hotelera sartu eta berehala, erabiltzaileak hoteleko harrera aurkitu ahal izango du eta ezkerrean, co-workignari eskainitako espazioak garrantzi berezia du. Espazio horrek sarrera berezi bat du, fatxadan eraikineko sarrera nagusiaren antzera adierazten dena. Barrualdean, lanerako eta harremanetarako hainbat espazio daude. Co-working eremuaren eta beheko solairuaren artean, lanerako espazio malguak daude, bai eta ekitaldiak edo ikastaroak egiteko gelak ere. Oro har, solairu nahiko argia da, eta egongelak, irakurketa-gelak, jolas-guneak eta abar izango ditugu, betiere kanpoaldearekin lotura zuzena izanez gero. Azkenik, Humboldt kalerantz, jatetxea dago. Unitate independentea da, bere sarbide propioekin eta bere barneko ibilbideekin.

Beheko solairuko barruko espazioa kanpokoarekin lotzeko asmoz, proiektuak ataripe bat du barruko plazarantz. Gainera, auzo honetan oso ohikoa den etxadien barruan hiri-jarduera aurkitzea, keinu horrekin auzo osoarentzat harremanetarako eta hiri-bizitzarako espazio bat sortu nahi da. Jatetxera plazatik zuzenean sartzea proposatzen da; beraz, plazaren jarduera are gehiago aktibatzen lagunduko du, eta ostatu-hartzaileentzako, bisitariarentzako eta auzoko bizilagunentzako topalekua izango da.



22. Irudia. Jesús María Alkain plazarako ataripea.

Azpiko bi solairuetan aparkalekua eta instalazioetarako eta beste erabilera osagarri batzuetarako espazio osagarriak daude. Lehen sotoan garajera sartzeko arrapala dago. Arrapala horren inguruan, jatetxeko sukaldea, langileentzako biltegiak eta aldagelak daude, baita jatetxeko komunak ere, eskailera eta igogailu batez konektatuta. Solairuaren beste muturrean, gimnasio bat dago, bere aldagelak dituena. Kanpoaldetik zuzenean sar daiteke espazio horretara, etxadiko patioko plazan dauden eskailera batzuen bidez. Ere mu horretan, halaber, ostalarientzako garbitegia, bizikletak aparkatzeko gunea, hoteleko langileentzako gunek eta establezimenduaren zerbitzu lagungarri batzuk aurki ditzakegu.

Azkenik, estalkien solairuak eraikinaren instalazio-espazio gehienak biltzen ditu. Bi instalazio-kasetoi daude, bakoitza eraikinaren mutur batean eta komunikazio-nukleo bati lotuta. Instalazio-kasetoiek hartzen ez duten espazioan, terraza handi bat dago, 25x5 m²-ko igerilekua duena.

ERAIKINAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

1. Ezaugarri estrukturalak

Zimendu sakoneko proiektua da, non zutabe salbuetsiak piloteen bidez zimendatzen diren. Sotoko esparrua horma-pantaila sistemarekin egindako hormen bidez egiten da. Egitura hormigoi armatuzko

NOTAS GENERALES DE DISEÑO

1. MATERIALES

1.1 HORMIGÓN Y ACERO PASIVO

TIPO	CONTROL	f_{yk}	RECURRIMIENTO
HORMIGÓN DE LIMPIEZA	Hk-150/C7/M	ESTADÍSTICO	1,50
HORMIGÓN EN PANTALLAS	HA-30/R/20/16	ESTADÍSTICO	1,50
HORMIGÓN EN LOSA DE SUSPENSIÓN	HA-30/R/20/16	ESTADÍSTICO	1,50
HORMIGÓN EN RESTO DE LOSAS Y VIGAS	HA-30/R/20/16	ESTADÍSTICO	1,50
HORMIGÓN EN FILARES/MUROS BAJO RASANTE	HA-40/R/20/16	ESTADÍSTICO	1,50
HORMIGÓN EN FILARES/MUROS SOBRE RASANTE	HA-40/R/20/16	ESTADÍSTICO	1,50
ACERO DE ARMADURAS PASIVAS	B-500-S	NORMAL	1,15
ACERO DE ARMADURAS ACTIVAS	Y-1870-S7	NORMAL	1,15

* EN LOS PARAMENTOS HORMIGONADOS CONTRA EL TERRENO EL RECURRIMIENTO MÍNIMO SERÁ 70mm.
 SALVO QUE SE HAYA DISPUESTO UN HORMIGÓN DE LIMPIEZA.
 * EN LA LOSA DE SUSPENSIÓN SE EMPLEARÁ UN HORMIGÓN DE REATRACCIÓN MODERADA.
 * LOS BARRIOS NO MEDIDOS EN LOS PLANOS SE EFECTUARÁN SEGÚN LO DISPUESTO EN LA NORMATIVA
 VIGENTE. ENSE-Instrucción de Hormigón Estructural.
 * VEA OTE DEL PROYECTO Tg=50 A603.


EJECUCIÓN	CONTROL	f_{yk}
CEMENTACIÓN	INTENSO	1,35/1,50
RESTO DE LA OBRA	INTENSO	1,35/1,50

1.2 ACERO DE ARMADURAS PASIVAS

PREVIAMENTE AL DESARROLLO EL CONSTRUCTOR DEBERÁ PRESENTAR LOS PLANOS DE DESPIECE DETALLADO DE ARMADURAS PARA SU APROBACIÓN POR LA DIRECCIÓN DE OBRA.

1.2.2 RADIOS DE DOBLADO

EN LA ARMADURA TRANSVERSAL, SALVO CASOS ESPECIALMENTE INDICADOS, LOS RADIOS DE DOBLADO Y LONGITUDES DE ANCLAJE SERÁN LOS INDICADOS EN EL SIGUIENTE ESQUEMA:



1.2.3 TABLAS DE ANCLAJE Y SOLAPE:

LONGITUDES DE ANCLAJE PARA Fck 30 MPa (m)						
POSICIÓN (°)	#10	#12	#16	#20	#25	#32
POSICIÓN (°)	0,25	0,30	0,40	0,55	0,85	1,35
POSICIÓN (°)	0,35	0,45	0,60	0,75	1,15	1,90

LONGITUDES DE SOLAPE PARA Fck 30 MPa (m)						
POSICIÓN (°)	#10	#12	#16	#20	#25	#32
POSICIÓN (°)	0,50	0,60	0,80	1,05	1,85	2,70
POSICIÓN (°)	0,70	0,85	1,15	1,50	2,30	3,75

LONGITUDES DE ANCLAJE PARA Fck 40 MPa (m)						
POSICIÓN (°)	#10	#12	#16	#20	#25	#32
POSICIÓN (°)	0,25	0,30	0,40	0,50	0,70	1,15
POSICIÓN (°)	0,35	0,45	0,60	0,70	1,00	1,60

LONGITUDES DE SOLAPE PARA Fck 40 MPa (m)						
POSICIÓN (°)	#10	#12	#16	#20	#25	#32
POSICIÓN (°)	0,50	0,60	0,80	1,00	1,40	2,25
POSICIÓN (°)	0,70	0,85	1,15	1,40	1,95	3,15

1.2 ACERO ESTRUCTURAL

TIPO	f_{yk}	CONTROL	EJECUCIÓN
ACERO ESTRUCTURAL EN PERFILES ABIERTO	S-275-2023	275	INTENSO 1,10 INTENSO 1,35/1,50
ACERO ESTRUCTURAL EN PERFILES ARMADOS Y CHAPAS ($140 \times 10 \times 10 \text{ mm}$)	S-355-2023	355	INTENSO 1,10 INTENSO 1,35/1,50
ACERO ESTRUCTURAL EN PERFILES ARMADOS Y CHAPAS ($40 \times 40 \times 8 \text{ mm}$)	S-355-2023	355	INTENSO 1,10 INTENSO 1,35/1,50

1.3. EJECUCIÓN DE LA LOSA DE CEMENTACIÓN

PREVIAMENTE A LA EJECUCIÓN DE LA LOSA DE CEMENTACIÓN EL CONTRATISTA DEBERÁ PRESENTAR EL PROCESO DE HORMIGONADO Y CUIDADO DE LA MISMA PARA SU APROBACIÓN POR LA DIRECCIÓN DE OBRA

2. ESTRUCTURA METÁLICA

2.1 CLASE DE EJECUCIÓN 3 (EXC) SEGÚN ISO 1999

2.2 SEGURIDAD CONTRA INCENDIOS


EL SISTEMA DE PROTECCIÓN DE LA ESTRUCTURA METÁLICA DEBERÁ CUMPLIR UN R-60 DE SEGURIDAD CONTRA INCENDIOS (VER CIRCUO DE SISTEMAS DE PROTECCIÓN).

2.3 SISTEMA DE PROTECCIÓN SUPERFICIES EXTERIORES

2.3.1 PREPARACIÓN DE SUPERFICIES

2.3.1.1 TRATAMIENTO DE CANTOS VIVOS

LOS CANTOS VIVOS SE REDONDEARÁN CON RADIO NO MENOS DE 20mm.



2.3.1.2 ACABADO DE SOLDADURAS

TODAS LAS SOLDADURAS EXTERIORES A TOPE SE PREPARARÁN HASTA ACABADO "A" SEGÚN NACE B070.
TODAS LAS SOLDADURAS EXTERIORES EN ANGLULO SE PREPARARÁN HASTA ACABADO "C" SEGÚN NACE B070.

2.3.1.3 PREPARACIÓN GENERAL

ACERO AL CARBONO: BRANDEADO HASTA GRADO SA 1/2
ACERO INOXIDABLE: DESPESADO Y CHORREADO HASTA PERFL. DE RUGOSIDAD DE 40-70 MICRAS.
ACERO GALVANIZADO: BARRIDO LIGERO A ALTA PRESIÓN HASTA CONSEGUIR UNA SUPERFICIE MATIZADA.

2.3.2 SISTEMA GENERAL PARA ACERO AL CARBONO (CON SEGÚN ISO 12944)

ESPESES TOTAL DEL SISTEMA = 320mm.
APLICACIÓN EN TALLER.

PREPARACIÓN DE SUPERFICIE SEGÚN PUNTO 2.3.1.3

- IMPRESIÓN: 1 CAPA SIZOMAZINC 10MS CON ESPESOR DE PELÍCULA SECA DE 60 MICRAS.
- INTERMEDIA: 1 CAPA SIGOMAST 278 CON ESPESOR DE PELÍCULA SECA DE 160 MICRAS.
- ACABADO INICIAL: 1 CAPA SIGOMUR 530 RAL 9006 CON ESPESOR DE PELÍCULA SECA DE 50 MICRAS.

ACABADO FINAL EN OBRA:

- IMPRESIÓN: 1 CAPA SIGOMOVER 1000 CON ESPESOR DE PELÍCULA SECA DE 60 MICRAS.
- INTERMEDIA: 1 CAPA SIGOMAST 278 CON ESPESOR DE PELÍCULA SECA DE 160 MICRAS.
- ACABADO INICIAL: 1 CAPA SIGOMUR 530 RAL 9006 CON ESPESOR DE PELÍCULA SECA DE 50 MICRAS.

ACABADO FINAL EN OBRA:

- ACABADO FINAL: 1 CAPA GENERAL DE SIGOMUR 530 RAL 9006 CON ESPESOR DE PELÍCULA SECA DE 50 MICRAS.

2.3.3 SISTEMA GENERAL PARA ACERO AL CARBONO + INTERMEDIAE R-60 (CON SEGÚN ISO 12944)

ESPESES TOTAL DEL SISTEMA = 904mm (629 INTUMESCENTE + 275 ANTICORROSION).

APLICACIÓN SISTEMA:

- PREPARACIÓN DE SUPERFICIE SEGÚN PUNTO 2.3.1.3
- IMPRESIÓN: 1 CAPA SIZOMAZINC 10MS CON ESPESOR DE PELÍCULA SECA DE 50 MICRAS.
- INTERMEDIA: 1 CAPA SIGOMOVER 522 CON ESPESOR DE PELÍCULA SECA DE 50 MICRAS.
- ACABADO INICIAL: 1 CAPA SIGOMUR 530 RAL 9006 CON ESPESOR DE PELÍCULA SECA DE 75 MICRAS.

ACABADO FINAL EN OBRA:

- ACABADO FINAL: 1 CAPA SIGOMUR 530 RAL 9006 CON ESPESOR DE PELÍCULA SECA DE 75 MICRAS.

2.4 APROBACION DE SISTEMAS

LOS SISTEMAS DE PROTECCIÓN Y EL COLOR DEBERÁN SER SUPERVISADOS POR LA D.O. PREVIAMENTE A LA EJECUCIÓN.
EL ESPESOR DE INTUMESCENTE A APLICAR DEBERÁ SER JUSTIFICADO POR EL SUMINISTRADOR EN FUNCIÓN DEL ELEMENTO A PROTEGER.

2.5 SOLDADURAS

LAS SOLDADURAS NO ESPECIFICADAS EN PLANOS DEBERÁN SER CONSULTADAS Y APROBADAS POR LA DIRECCIÓN DE OBRA.
CUALQUIER CAMBIO EN LAS SOLDADURAS DE PROYECTO DEBERÁ SER CONSULTADO Y APROBADO POR LA DIRECCIÓN DE OBRA.
SE PODRÁ ESPECIAL CUIDADO EN LA PROTECCIÓN DE LAS SOLDADURAS EJECUTADAS ENTRE EL ACERO AL CARBONO Y EL ACERO INOXIDABLE PARA EVITAR EL RIESGO DE CORROSIÓN BIMETÁLICA.
SE PROCEDERÁ A APLICAR EL SISTEMA DE PROTECCIÓN A LAS UNIONES EFECTUADAS ENTRE AMBOS MATERIALES.
ACABADO DE SOLDADURAS SEGÚN 2.3.1.2.

Nahiz eta aipatu den moduan, ekainean obrarako sarrera-puntuak aldatu, hesiaren inguruko espezifikazioek ez dute inolako aldaketarik jasaten eta haren ezaugarriak mantendu egingo dira obra guztian zehar, beraz, puntu honen justifikazioa behin betikoa da.

○ **GST02_2_C_TSH Donostia**


Txosten honen helburu nagusia, aurreko frogan ezarritakoa betetzen dela ziurtatzea besterik ez da, eta beraz, obraren ingurua txukuna dela eta hesitura ezaugarriak betetzen direla erakusten duten noizean noizko argazkiak aurkeztu dira froga gisa, 1. Sarbide Segurua eta Egokia atalean eskuragarri dauden eta dokumentu honetan atxiki diren argazkien antzekoak.

○ **GST02_2_D_TSH Donostia**

Txosten honetan, bizilagunen erreklamazio eta gatazken kudeaketaren jarraipena dokumentatu da. Proiektuak iraun duen bitartean, jasotako kexen kudeaketa honako prozedura jarraituz egin da:

- i. Euren eskura erreklamazio orriak daudela jakinarazi zaie, kexa modu formalean helarazi nahi izanez gero.


Erreklamazio orria

 AMENABAR		ERRKLAZIO-ORRIA HOJA DE RECLAMACIONES		Nº 000000 Zk.
1. ERREKLAMAZIOGILEA / PERSONA RECLAMANTE				
Izen-abizenak / Nombre y apellidos: _____ NAN / DNI: _____				
Helbidea / Domicilio: _____				
Udalerría / Municipio: _____ PK / CD: _____ LH / TH: _____				
Tif 1: _____ Tif 2: _____ Email: _____				
2. GERTAERAK / HECHOS (Gertaeren azalpen zehatza / Exposición clara de los hechos ocurridos)				
_____ _____ _____				
3. XEDEA / PRETENSIÓN (Lortu nahi duzunaren azalpen zehatza, diru kopuru zehatza barne dirua eskatzekotan / Exposición clara de lo que se quiere obtener, incluida la cantidad económica concreta, en su caso)				
_____ _____				
4. ATXIKITAKO AGIRIAK / DOCUMENTOS QUE SE ADJUNTAN				
<input type="checkbox"/> Kontratuak / Contratos	<input type="checkbox"/> Argazkiak / Fotografías	<input type="checkbox"/> Ordainagiriak / Recibos		
<input type="checkbox"/> Txostenak / Informes	<input type="checkbox"/> Fakturak / Facturas	<input type="checkbox"/> Beste batzuk / Otros		
5. ERREKLAMAZIOA JASO DUEN ENPRESA / EMPRESA RECLAMADA				
Izen komertziala / Nombre comercial: CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A. IFZ / NIF: A20072302 Udalerría / Municipio: Donostia				
Helbidea / Dirección: Paseo Miramón, 185 PK / CP: 20014 Tif: 943 83 11 00 Fax: 943 13 24 6				
Email: info@amenabarconstrucciones.com Baltzu-izena / Razón social: Construcción de obras públicas y privadas				
6. ERREKLAMAZIOA JASO DUEN ENPRESAREN ALEGAZIOAK / ALEGACIONES DE LA EMPRESA RECLAMADA				
_____ _____				
7. IZENPEAK / FIRMAS				8. DATA / FECHA
Erreklamaziogilea/Persona reclamante		Erreklamazioa jasotako empresa/Empresa reclamada		_____

- ii. Kexa modu formalean egin den kasuetan, erreklamazio-orrria erreklamazio liburuan artxibatu da, haren kudeaketari hasiera emateko.
- iii. Kexaren edukia aztertu ostean, alderdi interesdunei haren irtenbidea komunikatu zaie.

○ **Iragarki-ohola**

Bulegoaren atean, bizilagunek ikus dezaten, obrako ekintzen berri ematen duen iragarki ohola zintzilikatu da, non obraren hasiera data, obraren fasea eta obraren amaiera dataren berri ematen den. Jarraian, ekainean eguneraturiko – behin zimendu lanak amaiturik - iragarki-ohola dago eskuragarri.

 AMENABAR		
IRAGARKI-OHOLA TABLÓN DE ANUNCIOS		
Obraren hasiera data / Fecha de inicio de la obra	Obraren fasea / Fase de la obra	Obraren amaiera data / Fecha de finalización de la obra
2021ko azaroaren 15a 15 de noviembre del 2021	1. Lurzorua-ren prestaketa / Preparación del terreno 2. Indusketa eta zimenduak / Excavación y cimentaciones 3. Egitura eta instalakuntzak/ Estructura e instalaciones 4. Igeltseritza / Albañilería 5. Akaberak / Acabados 6. Martxan jartzea / Puesta en marcha 7. Ematea / Entrega	2023ko uztailaren 17a 17 de julio del 2023

○ **GST02_2_F_TSH Donostia**

Atal hau, bereziki gauz edo iluntzean burutzen diren lanen kasuan, bertako argiztapen artifizialak bizilagunak gogaitzen ez dituela frogatzera zuzendurikoa da; Donostiako Udalak, ordea, hertsiki debekatzen du edozein lan burutzea gaueko 22:00ak eta goizeko 8:00ak bitartean [44] eta hilabete hauetan, obraren ixte ordutegia arratsaldeko 8etan izan da, beraz, ez da

argiztapen artifizialaren beharrik apenas izan, oso lan konkretuetarako argiztapena behar izan den ausazko kasuetan izan ezik. Momentu horietan ere bizilagunentzako eragozgarria izan ez dela justifikatzeko, foku horien fitxa teknikoak aurkeztu dira, non haien foku kantitatea (4), argiztapen teknologia (halogenoa edo halogenuro metalikoa, modeloaren arabera), potentzia (1000 W), argiztapen maila (bataz besteko 20 Lux) eta eragin-azalera (3800 m²) zehazten diren.

○ **GST02_2_G_TSH Donostia**

Arropa debeku kartela



SE RUEGA AL PERSONAL DE LA OBRA QUE SE ABSTENGA DE VISITAR LAS INSTALACIONES DEL ENTORNO DE LA OBRA CON LA INDUMENTARIA DE TRABAJO

SE RUEGA, A SU VEZ, QUE SE HAGA USO DE LA INDUMENTARIA ADECUADA EN EL PUESTO DE TRABAJO SIGUIENDO LAS RECOMENDACIONES DE SEGURIDAD Y PREVENCIÓN DE RIESGOS



TSH DONOSTIA
 C/ Hermanos Otamendi 902G, 20014, San Sebastián, Gipuzkoa

Txosten honetan demostratu beharrekoa, kartela langileen gune komun denetan esekita dagoela da. Horretarako, kartelak jangelan, aldageletan, komunetan etab. zintzilikatu dira (gainontzeko kartelekin batera) eta argazki bidez frogatu da. Gune hauek aldaketa bortizik jasan ezean, puntu hau justifikatuta geratuko litzateke obrak dirauen bitartean.

○ **GST02_2_H_TSH Donostia**

Irratia debeku kartela



PROHIBIDO USAR AURICULARES EN EL PUESTO DE TRABAJO



ABSTENERSE DE ESCUCHAR LA RADIO / MÚSICA A GRAN VOLUMEN EN EL PUESTO DE TRABAJO

PROHIBIDO FUMAR EN EL PUESTO DE TRABAJO



PROHIBIDO EL USO DE CIGARRILLOS ELECTRÓNICOS EN EL PUESTO DE TRABAJO



TSH DONOSTIA
 C/ Hermanos Otamendi 902G, 20014, San Sebastián, Gipuzkoa

Aurreko puntuaren antzera, txosten honetan dagokion kartela gune komunetan zintzilikatuta dagoela frogatu beharko da argazki bitartez eta, behin frogatu ostean, balioetsia geratuko da aurrerantzean.

3. Ingurumenarekiko kontzientziazioa

Atal honen helburua eraikitzaileak eraikinaren eraikitze prozesuak ingurumenean duen eragina kontuan hartu duela eta eragin hori arintzeko neurriak hartu dituela frogatzea da.

12. Taula. KDKT02-3. Ingurumenarekiko kontzientziazioa ataleko frogatze-zerrenda.

Item	Irizpideak	Eskutatuko ebidentziak	Eskainitako ebidentziak
a	<ol style="list-style-type: none"> Argi-kutsaduraren ondorioei buruzko murrizketak daude, eta, gainera, argi guztiak direkzionalak eta ez-kutsatzaileak dira. Kokalekuan ingurumen-politika espezifikoa badaude, argiztapenaren gaineko murrizketak ezartzen dituztenak, puntua eman daiteke. 	Argiztapenaren gaineko murrizketak ezartzen dituzten kokalekuko berriazko ingurumen-politiken kopia.	<ol style="list-style-type: none"> Obran erabilitako fokuen ezaugarri energetikoak. Ingurumen Alderdien Ebaluazioa Kontrol Operazionalaren Prozedura PCA Ingurumen-jardunbide egokien eskuliburua
b	<p>Kokalekuan energia aurrezteko neurriak aplikatzen dira. Hona hemen adibide batzuk:</p> <ol style="list-style-type: none"> Energia-kontsumo txikiko argiztapena. Ekipoak itzaltzea erabiltzen ari ez direnean. Termostatoak instalatzea. Tenporizadoreak instalatzea. Energetikoki eraginkorrak diren ekipoa hautatzea. <p>Kokalekuan energia aurrezteko neurriak zehazten dituzten ingurumen-politika espezifikoa badaude, puntua eman daiteke.</p>	Energia aurrezteari buruzko berriazko ingurumen-politiken kopia ¹ .	<ol style="list-style-type: none"> Energia aurrezteko neurriak jasotzen dituen ingurumen-politika (SGA) Ekipamendu eraginkorren fitxak (argiak, makinak, termostatoak...) Ekipo eraginkorren argazkiak eta haien CE marka
c	Kokalekuaren eragina minimizatzeko estrategia berrikusi da. Berrikuspen horretan, kokalekuak ingurumenari dagokionez duen inpaktua aztertu beharko da, bai eta ondorio negatiboak nola gutxitzen ari diren ere (adibidez, baliabide ekologikoak babestuz edo kutsadura kontrolatuz).	<ol style="list-style-type: none"> Inpaktuak minimizatzeko strategiaren kopia¹. 	<ol style="list-style-type: none"> Ekologiako Txosten Teknika². Biodibertsitateko Txosten Teknika². Higaduraren txosten Teknika²
d	<ol style="list-style-type: none"> Kokalekuan ura aurrezteko neurriak aplikatu eta gainbegiratu dira. <p>Kokalekuan ura aurrezteko neurriak nola kudeatu eta gainbegiratu adierazten duten ingurumen-politika espezifikoa badaude, puntua eman daiteke.</p>	<ol style="list-style-type: none"> Ura aurrezteko erabilitako politikaren edo strategiaren kopia. 	<ol style="list-style-type: none"> SGA PCA Ingurumen-jardunbide egokien eskuliburua Kontrol Operazionalaren Prozedura
e	Energia-iturri alternatiboak aztertu dira.	Energia-iturri alternatiboen erabilera aztertzen duten bilera-akten edo aurretiazko azterketen kopia, nahiz eta azkenean haien instalatzea baztertu, bazterte horren zergatia adieraziz.	<ol style="list-style-type: none"> Energia-iturri alternatiboen erabilera aztertzen duen idatzia, Obra Buruak sinaturikoa.
f	Gasoleo-isuriak kontrolatzeko ekipoen eskuragarritasuna	<ol style="list-style-type: none"> Argazkien txostena. 	<ol style="list-style-type: none"> GST02_3_F_TSH Donostia
g	<ol style="list-style-type: none"> Kolektoreen erabilgarritasuna ur-jario handiak daudenean. <p>Ur-jariatze handi baten ondorioak minimizatzeko ingurumen-politika espezifikoa baldin badaude, puntua eman daiteke.</p>	<ol style="list-style-type: none"> Kolektore horien kokaleku-planoa. Puntu honen inguruko hausnarketa adierazten duen gutuna. Puntu honen inguruko ingurumen-politika. 	<ol style="list-style-type: none"> Ur-jariatzeen dreinatze planoak Kolektoreen kokalekua Kolektoreen egoera adierazten duten argazkiak.
h	Materialak eta ekipoa modu ordenatuan metatzen dira, eta horrez gain, babestu eta estali egiten dira, beharrezkoa denean. Gainera, leku nahikoa dago material berriak behar bezala metatzeko.	<ol style="list-style-type: none"> Argazkien txostena. 	<ol style="list-style-type: none"> GST02_3_H_TSH Donostia. Materialen jasotze prozedura

¹ Ingurumen-politika eta ingurumen-jardunbide egokiak dokumentu bakar batean bateratzea gomendatzen da, eta bertan KDKT02 eta KDKT03 atalek ingurumen-kontzientziazioari buruz dituzten alderdi guztiak jasotzea.

² Txosten Tekniko hauek obra hasi aurretik teknikari kualifikatu batek buruturikoak dira. Proiektu honetan egindakoa, txosten horietan azaldutako ingurumen-alderdi eta neurri nagusiak bildu eta Ingurumen Kontzientziazio Politikan (PCA) atxikitzea izan da.

Eskainitako txostenen edukia

○ **Fokuen fitxa teknikoak**

Eraikuntzako fase honetan erabilitako foku gutxi denak, alokatuak izan dira. Horregatik, atal hau justifikatu ahal izateko, enpresa horiei erabilitako fokuen fitxa tekniko denak eskatu zaizkie, non argiztapen sistema (LED, halogenoak...), potentzia, luminantzia eta bestelako faktore esanguratsuak ageri diren eta haiek denak karpetetan bildu, fokuen zerrenda batekin batera, Aholkulariari bidaltzeko.

○ **Ingurumen Alderdien Ebaluazioa**

Ingurumen Alderdien Ebaluazioa, Ingurumena Kudeatzeko Sistema ezartzeko prozesuaren etapa kritikoenetarikoa bat da. Are gehiago, esan daiteke ingurumen-alderdien ebaluazioa dela ISO 14001 arauaren muina. Izan ere, ingurumen-alderdien ebaluaziotik lortutako emaitzek eragina dute helburuetan, eragiketen kontroletan eta Ingurumena Kudeatzeko Sistematan kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuetan [46].

Obrako jarduera guztiak dute nolabaiteko eragina ingurumenean eta inpaktu horiek garrantzi maila desberdina izango dute, eragiten duten ondorioaren arabera. Hori dela eta, kontratistak behar bezala identifikatu behar du ingurumen-alderdi horietatik zeintzuek duten inpaktu esanguratsua ingurumenean. Ildo beretik, garrantzitsua da kontratistak irizpide batzuk zehaztea, ingurumen-alderdi horien garrantzia zehaztu ahal izateko. Ingurumen-alderdiak identifikatzeko prozesu horri esker, kontrolak eta hobekuntzak non aplikatu zehaztu daiteke, organizazioak ingurumen-mailan bere jarduna optimizatu ahal izateko.

Kontratistak obran aplikagarriak diren ingurumen-alderdiak hartu behar ditu kontuan, horietako bakoitzaren garrantzia ebaluatuz. Ingurumen-alderdiak ebaluatzeak berekin dakar azterketa teknikoa egitea eta kontratistaren berezko iritzia aplikatzea. Irizpideen bidez, kontratistak ingurumen-alderdi esanguratsuak eta inpaktuak identifikatu behar ditu, hauen koherentzia bermatuz eta ebaluazio horretatik lortutako emaitzak errepikatzeko aukera emanez. Ingurumen-alderdiak ebaluatzeko irizpideak zehazteko, kontratistak honako hauek hartu behar ditu kontuan:

- i. Ingurumena babesteko irizpideak: inpaktuaren larritasuna, iraupena, tamaina eta maiztasuna.
- ii. Lege-baldintzak: emisio-lizentziak, emisioen mugak eta erregelamenduak (Udal Ordenantzak ere hemen sartuko lirateke).
- iii. Alderdi interesdunen itxaropenak eta premiak: jarduerarekin egindako zarata, usaina eta sortzen duen ikusmen-degradazioa bezalako aspektuak.

Irizpideak identifikatu ondoren, kontratistak horietako bakoitzerako garrantzi-mailak zehaztu behar ditu, hala nola, gertatzeko aukeraren eta larritasunaren araberako mailak. Obra honen

kasuan, ingurumen-alderdien garrantzia-maila zehazteko eskalak modu kualitatiboan egin dira, hau da, ingurumen inpaktua baxua, ertaina edota altua den adieraziz.

Ebaluazio hori osatzeko, hainbat dokumentu erabiltzen dira, zein jarraian banan-banan azalduko diren. Ebaluazio-dokumentu hauek denak, BREEAMaren eskakizunetara egokituak izan dira, alde zuzenetik zeuden dokumentuetatik abiatuz.

FPE 1.4. Ingurumen testuinguruaren analisia 2019 – bizi-zikloa

Egungo ingurumen-testuinguruaren abiapuntua da. Bertan, eraikin baten bizi zikloan – bost faseetan banaturikoa: materialen eskuratzea, obraren egikaritzea, bidalketa eta garraioa, erabilera eta mantenua eta amaierako tratamendua – parte hartzen duten ingurumen aspektuen ebaluazioa burutzen da haien magnitude eta intentsitatearen arabera, eragina baxua, ertaina edo handia den zehaztuz. Eraginaren eskala zehazteko balioak ondorengo irizpideen arabera dira (ikus 13. Taula).

13. Taula. Magnitudea eta intentsitatearen maila ezartzeko irizpideak.

MAGNITUDEA			INTENSITATEA		
BAXUA	1	Energia < 50000 kW Ura < 500 m ³ Materialak < 50000 Tn Emisioak < 10000 kg CO ₂ Isuriak < 100 m ³ Hondakinak < 5000 Tn Lurra < 1000 m ² Soinua < 60 dB	BAXUA	1	Energia: berriztagarria Ura: sare municipala Materialak: ekodiseinua eta etiketa berdea Emisioak: eremu irekia Isuriak: araztegidun kolektore publikora Hondakinak: % 80ko balorizazioa Lurra: alterazio gabe, birjarpena gunean Soinua: > 500 m distantzia obratik
ERTAINA	2	Energia 50000 - 100000 kW Ura 500 - 1000 m ³ Materialak 50000 - 100000 Tn Emisioak 10000 - 50000 kg CO ₂ Isuriak 100 - 1000 m ³ Hondakinak 5000 - 10000 Tn Lurra 1000 - 5000 m ² Soinua 60 - 65 dB	ERTAINA	2	Energia: sare municipala Ura: iturburuko putzua Materialak: ISO 14001 Emisioak: eremu urbano irekia Isuriak: araztegidun kolektore publikora Hondakinak: % 50 - 80ko balorizazioa Lurra: alterazio gabe, beste materialak etab. Soinua: 100 - 500 m distantzia obratik
HANDIA	3	Energia > 100000 kW Ura > 1000 m ³ Materialak > 100000 Tn Emisioak > 50000 kg CO ₂ Isuriak > m ³ Hondakinak > Tn Lurra > m ² Soinua > 65 dB	HANDIA	3	Energia: ekipo elektrogenoa Ura: erreka / ibaitik Materialak: ziurtagiri gabeak Emisioak: eremu urbano itxia Isuriak: araztegi gabeko kolektore publikora Hondakinak: < % 50 balorizazioa Lurra: alterazio fisiko, kimiko edo biologikoa Soinua: < 100 m distantzia obratik

Ingurumen aspektuetako bakoitza irizpide horien arabera ebaluatu ostean, garrantzia eta lehentasunaren arabera zerranda bat ezartzen da etorkizunerako estrategia, betebeharrak eta erantzukizunak zehazteko. Garrantzia maila hori definitzeko, magnitudea eta inpaktua bateratzen dituen lehentasun-matrizea erabiltzen da (ikus 14. Taula).

14. Taula. Ingurumen aspektuen garrantzia-matrizea.

		MAGNITUDEA		
		1	2	3
INTENSITATEA	1	EZ ESANGURATSUA	EZ ESANGURATSUA	EZ ESANGURATSUA
	2	EZ ESANGURATSUA	EZ ESANGURATSUA	ESANGURATSUA
	3	EZ ESANGURATSUA	ESANGURATSUA	ESANGURATSUA

Ebaluazio hori eginik, batik bat lau atal esanguratsu azpimarra daitezke, etorkizunerako ingurumen aspektuetan izandako inpaktua gutxitze aldera. Aukera horiek, eta haiek minimizatzeko hartutako erabakiak, honako hauek dira:

15. Taula. Ingurumen aspektuen ebaluazioa: hartutako erabakiak.

AUKERAK				EKINTZA
BIZI-ZIKOAREN ETAPA	INGURUMEN ASPEKTUA	DESKRIBAPENA	LEHENTASUNA	ERABAKIA
Materialen eskuratzea Obraren egikaritzea	Materialak	Hornitzaileen ingurumen-inpaktuak kontuan hartzea materialen erosketan	Ertaina	ISO 14001 eskatzea, bai eta beste ingurumen-ziurtagiri mota bat ere, hornitzaile/azpikontrata guztiei.
Obraren egikaritzea Erabilera eta mantenua	Denak	Inpaktuen zati bat hirugarrenek egiten dutela (azpikontratak)	Altua	Ingurumen-sentsibilizazioa eta lankidetzakonpromisoa
Obraren egikaritzea Erabilera eta mantenua	Denak	Arau-aldaketen ondorioz ingurumen-arloko lege-baldintzak ez betetzea	Altua	Legeria eguneratzeko eta aztertze zerbizua Kontratuan zehapena jartzeko aukera, obrako ingurumen-baldintza legalak eta ingurumen-baldintza propioak ez betetzeagatik
Materialen eskuratzea Obraren egikaritzea	Energia eta emisioak	Ingurumen-inpaktu txikiagoko teknologiak erabiltzea (kontsumo txikiagoko eta eraginkorragoko ekipoak)	Baxua	Ekipo berriak erosterakoan, ingurumenean duten eragina baloratzea.

FPE 1.4. Ingurumen testuinguruaren analisisa

Aurreko dokumentutik abiatuz, ingurumen egoeraren ebaluazioa egitean datza, obrara aplikatutako ingurumen aspektuak analizatuz. Analisisa, hiru azpi-ebaluaketez osaturik dago:

Testuinguruaren analisisa

Eraikinaren bizi-zikloko etapetako bakoitzean, 2019ko analisisan aztertutako ingurumen aspektuetako bakoitzak zer nolako eragina duen aztertzen du, TSH Donostiako obrara aplikaturik.

Horrela, egon daitezkeen arrisku potentzialak identifikatzen dira, eta 2019an aipaturiko aukerak eta ekintzak zer-nola aplika daitezkeen aztertu. Analisia, ondorengo pausuak jarraituz burutzen da:

- i. **Bizi-zikloaren etaparen identifikazioa:** materialaren eskuratzea, obraren egikaritzea, erabilera eta mantenua eta amaierako tratamendua. Obra honen kasuan, bidalketa eta garraioa ez da aplikaziozkoa, obra ez delako lekualdatzen eta garraioa aurreko bi etapetan aztertzen delako. Aipatzekoa da, ingurumen ebaluazioa obra bere osotasunean hartuz burutzen dela, ez bakarrik dokumentu honek bere baitan hartzen duen denboraldian; horregatik, erabilera eta mantenua eta amaierako tratamendua ebaluazioaren barne dira.
- ii. **Zerikusia duten alderdi interesdunak:** bizi-zikloaren etapa horretan parte hartzen duten agente guztiak identifikatzean datza; hornitzaile, langile, garraiolari, arkitekto...
- iii. **Eragin-maila:** kontratistak etapa horretan izan dezakeen eragina ebaluatzen du, obrara aplikaturik. Adibidez, materialen ekurapenean, hornitzaileen artean aukeratzeko gaitasuna badu kontratistak; ez ordea, material mota hautatzean, proiektuan arkitekto eta zuzendaritza fakultatiboak ezarririk baitator.
- iv. **Kontrol-maila:** kontratistak etapa horretan duen kontrola zehazten du, hau da, zer kontrola dezakeen eta zer ez bereizten du. Esate baterako, aurreko adibidearekin jarraituz, garraioaren ondoriozko ingurumen inpaktua kontrola daiteke hornitzailearen kokalekuaren arabera.
- v. **Ingurumen aspektuak:** aztergai diren ingurumen aspektuetako bakoitzak eragindako ingurumen inpaktuaren jatorria non egon litekeen aztertzen du, etapetako bakoitzean. Aurreko puntuko ildo beretik, materialen eskuratzearen etapan, energiaren kasuan, inpaktu handiera hormigoi eta metalen fabrikazio-prozesuan kontsumitutako energiak izango du.
- vi. **Indarguneak eta ahuleziak:** hau da, kontratistak zer egin dezakeen, zer dagoen bere esku, inpaktu horiek minimizatzeke, eta zerrek eragin dezakeen negatiboki inpaktu horiek minimizatzeke saiakeran.
- vii. **Mehatxuak eta aukerak:** ahulezien antzera, inpaktuak minimizatzeke hartutako erabakiak aurrera eramatea zail litzaketan gertaera potentzialak identifikatzen dira, haien aurrean zein erabaki edo estrategia jarrai daitezkeen zehazteko.

Hala bada, analisia buruturik, eta 2019ko testuinguruaren analisisian egin antzera, arrisku eta aukeren azterketa globala egiten da, 2019an ezarritako helburuei bateratzeko. Analisisik ondorioztatutako estrategia orokorrak, n daude eskuragarri.

16. Taula. Ingurumen mehatxu eta aukerei aurre egiteko hartutako ekintzak.

MEHATXUA	EKINTZA	AUKERA	EKINTZA
Materialak proiektuan ezarririk datoz	Obra bileretan material-aldaketak proposatu, ingurumen inpaktuak murrizteko	Hornitzaileen ingurumen-inpaktuak kontuan hartzea materialen erosketan	ISO 14001 eskatzea hornitzaile/azpikontrata guztiei
Enpresa azpikontratatuak eragin ditzaketen inpaktuak	Ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta lankidetzan aritzeko konpromisoa	Ingurumen-inpaktu txikiagoko teknologiak erabiltzea (kontsumo txikiagoko eta eraginkorragoko ekipoa)	Ekipo berriak erosterakoan, ingurumenean duten eragina baloratzea.
Legeria ez betetzea, jasan ditzakeen aldaketan ondorioz	Legeria eguneratzeko eta aztertzeke zerbitzua		

Testuinguruaren ebaluazio osoa, dokumentu honetako ERANSKINA II FPE 1.4. INGURUMEN TESTUINGURUAREN ANALISIA atalean aurki daiteke.

atalean dago eskuragarri.

Ingurumen aspektuen identifikazioa obran

Ingurumen aspektuetako bakoitzean ekintza desberdinek eduki dezaketen eragina era xehatuago batean aztertzen da, jardueretako bakoitzaren intentsitate eta magnitudea berriz ere analizatuz. Esan daiteke aurreko dokumentuaren jarraipena dela, era sakonago batean. Ebaluazio hau, bi egoeretan burutu daiteke: ebaluazio egoera normalean edota ezohikoan. Egoera ezohiko deritzo, ingurumen aspektuen magnitudea (kantitate, maiztasun edota gainazal-hedadura moduan ulertuta) edota arriskutasuna, larritasuna eta toxikotasuna, enpresaren ohiko jardueren mugetatik kanpo dagoenean. Hori suerta daiteke, esaterako, eraikuntza prozesuan bereziki kutsakorrak diren materialak erabiltzea exijitzen duen eraikuntza jarduerak daudenean. Hotel baten eraikuntza denez aztertutakoa ordea, eta bere dimentsioak ez direnez bereziki ohiz kanpokoak, ebaluazioa egoera normalean burutu dira.

Aurreko ebaluazio txostenaren antzera, obraren ebaluazio osoa ERANSKINA II: FPE 1.4. OBRAKO INGURUMEN ASPEKTUEN IDENTIFIKAZIOA atalean dago eskuragarri.

Ingurumen aspektuen identifikazioa bulegoan

Aurrekoaren baliokidea da, baina obran beharrez, obraren kudeaketara zuzenduriko bulegoan. Bertan, bulegoko ohiko materialen kontsumoa bezalako aspektuak lantzen dira, baita bulegoan erabileratik eratorritakoak ere, bertara iristeko autoen erabileratik eratorritakoak adibidez. Aurrekoaren moduan, ebaluazioa osotasunean, ERANSKINA II: FPE 1.4. BULEGOKO INGURUMEN ASPEKTUEN IDENTIFIKAZIOA atalean aurki daiteke.

Arrisku egoeren identifikazioa

Aurreko aspektuen identifikaziotik, arriskutsuak izan daitezkeen jarduerak ondorioztatzen dira, eta berriro ere haien ebaluazio zehatzagoa burutzen da, gertatzeko posibilitatea duten maiztasuna eta gertatzekotan izango luketen garrantzia aztertuz. Suertatu ahal izateko maiztasuna altua bada edota gertatzekotan haren eragina bereziki arriskutsua baldin bada, ikusmira berezia jarri beharko da jarduera horretan eta saihesteko salbuespeneko neurriak hartu

beharko dira. ERANSKINA II: FPE 1.4. ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA atalean ikus daiteke obra honetarako identifikatutako bi jarduera arriskutsuenak suteekin erlazonaturikoak direla (soldadura jardueren ondoriozkoak, edota bulegoan gerta litekeena). Horiek saihesteko, hainbat neurri hartu dira: su-itxalgailu gehiago instalatzea bai bulegoan eta bai obran (kontainer zein obra-etxoletan), lehendik zeuden aparatuen berrikuspena, bulego barruan erretzea galaraztea eta soldadura lanak elementu oso sukoietatik urrun egitea (aerosolak edo erregai-andelak), besteak beste.

FPE 1.7. Ingurumen aspektuen ebaluazioa

FPE 1.4. analisi tauletatik ondorioztatutako taula logikoak dira, bata obrako ingurumen aspektuak analizatzen dituen eta bestea bulegoak. Obrako aspektuei dagokiena azalduko da, baina bulegokoei dagokiena zinez berdina litzateke. Taula logikoaren osaera, honako hau da:

- i. **Ingurumen aspektuaren identifikazioa:** taularen lehenengo lau zutabeak, obrako ingurumen aspektuen identifikazioen taulako berdin-berdinak dira eta ingurumen aspektua aplikagarria den, zein ingurumen aspekturi dagokion, ebaluatutako jarduera eta ingurumen intzidentzia definitzen dira bertan. Taularen osagaiak berdinak direnez, “=” erreminta logikoa erabiliz formulatu dira.
- ii. **Magnitudearen definizioa:** bi zutabez osaturiko konposizio logikoa da. Horrela dago definiturik: erreferentziatzko taulan, magnitudearen definizioan, “x” batez zein gelaxka hautatuta dagoen begiratu eta horri dagokion magnitudearen definizioa du erantzun; ondoko zutabearen aldiz, definizio horri dagokion maila du emaitza. Portaera logiko hori *IF* komandoa erabiliz lortu da.

$$\text{Magnitude definizioa} = IF (F = "x"; E; IF(H = "x"; G; IF(J = "x"; I; 0)))$$

$$\text{Magnitude maila} = IF (F = "x"; 1; IF(H = "x"; 2; IF(J = "x"; 3; 0)))$$

non:

F, H, J = FPE 1.4. Obrako Ingurumen Aspektuen Identifikazioa taulako ingurumen aspektu bakoitzaren hautatze gelaxkak diren.

E, G, I = FPE 1.4. Obrako Ingurumen Aspektuen Identifikazioa taulako ingurumen aspektu bakoitzaren hautatze gelaxkari dagokion definizioa.

- iii. **Intentsitatearen definizioa:** magnitudearen definizioan egindako gauza berbera egiten da, ekuazio logiko berbera jarraituz, magnitudearen ordena definitzen duten zutabeak sartu orde ekuazioan, intentsitateari dagozkionak hautatuz, noski.
- iv. **Garrantzia maila:** magnitudearen maila eta intentsitatearen maila bateratzen dituen zutabea da, bi balioaren biderketaren bitartez, balio kuantitatibo bat lortuz.

$$\text{Garrantzia maila} = \text{Magnitude maila} \times \text{Intentsitate maila}$$

- v. **Esanguratsutasun irizpidea:** lehenik eta behin, ingurumen aspektu bakoitzarentzat garrantzia maila minimo bat ezartzen du, zeinetatik gora, aspektu hori esanguratsutat joko den. Garrantzia maila hori adierazten duen balio numerikoa 6a da, hau da, aspektuetakoren bat esanguratsua dela kontsideratzeko, magnitude-intentsitate maila

bikote hauetakoren bat bete beharko da: magnitude ertaina eta intentsitate handia, magnitude handia eta intentsitate ertaina, edota magnitude handia eta intentsitate handia. Horrela bada, ekuazio logikoa:

$$Esanguratsutasuna = IF (P = 0; " "; IF(P \geq 6; "ESANGURATSUA"; "EZ ESANGURATSUA"))$$

Non:

P = FPE 1.7. Ingurumen aspektuen ebaluazioa taulako garrantzia maila adierazten duen zutabea den.

- vi. **Enpresaren politikaren araberako esanguratsutasuna:** enpresak, bere ingurumen politikan aspektuetako bakoitza "ESANGURATSU" edo "EZ ESANGURATSU" kontsideratzen duen adierazten du.
- vii. **Gutzizko esanguratsutasuna:** berriz ere beste funtzio logiko bat da. Horrela funtzionatzen du: aurreko bi zutabeetakoren batean aspektua "ESANGURATSU" bezala definitzen bada, guztizko esanguratsutasuna "ESANGURATSUA" izango da; aldiz, bietan "EZ ESANGURATSU"-tzat jotzen bada, orduan aspektua "EZ ESANGURATSUA" definituko da.

$$\begin{aligned}
 \text{Gutzizko esanguratsutasuna} &= IF (R = " "; " "; IF(R \\
 &= "ESANGURATSUA"; "ESANGURATSUA"; IF(S \\
 &= "ESANGURATSUA"; "ESANGURATSUA"; "EZ ESANGURATSUA"))))
 \end{aligned}$$

non:

R = FPE 1.7. Ingurumen aspektuen ebaluazioa taulako esanguratsutasuna adierazten duen zutabea den.

S = FPE 1.7. Ingurumen aspektuen ebaluazioa taulako enpresaren esanguratsutasun politika adierazten duen zutabea den.

Taula, bere osotasunean, ERANSKINA III: FPE 1.7. INGURUMEN ASPEKTUEN EBALUAZIOA eranskinean dago.

FPE 1.8. Arrisku egoeren ebaluazioa

FPE 1.7. Ingurumen aspektuen ebaluazioan egindako gauza berbera egiten du, eta taularen konfigurazioa baliokidea da. Desberdintasun bakarra, zera da, taula FPE 1.4. Obrako Ingurumen Aspektuen Identifikazioa edota FPE 1.4. Bulegoko Ingurumen Aspektuen Identifikazioa tauletan oinarrituta egon beharrean, FPE 1.7. taularen kasu, FPE 1.4. Arriskuen Identifikazioa taulan oinarritua dagoela.

FPE 1.9. Ingurumen aspektu esanguratsuen aurreko jarduerak

Ingurumen aspektu esanguratsuetatik abiatuta, haien jatorria zein den aztertzen du, baita haien eragina minimizatzeko jarraitu beharreko oharrak ezarri ere. Esan daiteke, aurretik egindako ebaluazio denen laburpena dela, obran jardun beharreko arauak ezartzen dituen bereziko atentzioa zor duten alderdietan.

17. Taula. FPE 1.9. Ingurumen aspektu esanguratsuen aurreko jarduerak.

AMENABAR		FPE 1.9. Ingurumen aspektu esanguratsuen aurreko jarduerak		Rev.00
OBRA: TSH Donostia				Kodigoa: 10934
Ingurumen alderdi esanguratsua	Jatorria	Jardunbideak	Irizpidea	Datuen hartze maiztasuna
HAUTSA	Makinaria / lurren mugimendua	Limpieza accesos	Sarbidetan eta inguruetan partikularik ez (argazkiak)	25%-50%-75%
	Indusketa	Sarbidetarako ureztatu		
	Material pikortatua	Ordena eta garbitasuna		
HONDAKINAK	RNP ^{21s}	Gestión RNP/RP	Albaranen jarraipena	25%-50%-75%
	RP ^{22s}	Tramitaciones / PGRCD ²³	SANP ²⁴ /DANP ²⁵ /DSC ²⁶ /NT ²⁷ PGRCD	
	Papera	Kontainer ontziak eta puntu garbia	Puntu garbiaren, kontainer-ontzien eta obraren argazkiak	
ZARATA	Makinaria mugimendua	Makinariaren dokumentazioa.	Marcado CE	25%-50%-75%
	Indusketa	Ordutegia errespetatu eta makinaren arteko distantzia mantendu	Limiteak errespetatu (<85 dB)	
	Zerrak	Zarata neurtzea	Sonometroa	
ISURKETAK	Makinaria	Isurketarik ez dagoela egiaztatzea	Ausencia de vertidos en suelo o regatas/ríos	25%-50%-75%
	Puntu garbia	Puntu garbia / andelak egiaztatzea	Kubetoak	
	Erregai-andelak	Orden y limpieza	Argazkiak	

FPE 1.10. Gertakari eta istripu potentzialen identifikazioa

Obran gerta daitezkeen jazoerarako bakoitzerako hartu beharreko neurriak eta jarraibideak definitzen dituen dokumentua da; hau da, arrisku potentzial moduan identifikatutako istripuren bat gertatuz gero, horren aurrean nola erantzun azaltzen duen gidaliburua da, istripu-mota bakoitzerako bat. Haietako denetarako, modelo berdina erabili da, 18. Taulan ageri denaren baliokidea kasuistika bakoitzera egokitua hain zuzen ere.

²¹ RNP: Residuos No Peligrosos (Hondakin Ez Arriskutsuak).

²² RP: Residuos Peligrosos (Hondakin Arriskutsuak).

²³ PGRCD: Plan de Gestión de Residuos de Construcción y Demolición (Eraikuntza eta Indusketa Hondakinak Kudeatzeko Plana).


²⁴ SANP: Solicitud de Admisión (Eskaera Onarpena).

²⁵ DANP: Documento de Admisión.(Onarpen Dokumentua)

²⁶ DSC: Documento de Seguimiento y Control (Jarraipen eta Kontrol Dokumentua).

²⁷ NT: Notificación de Traslado (Lekualdatze Jakinarazpena)

18. Taula. FPE 1.10. Gertakari eta istripu potentzialen identifikazioa - Sutea instalazio finkoetan.

		FPE 1.10. Gertakari eta istripu potentzialen identifikazioa		Rev.00
IDENTIFIKAZIOA				
Obra: TSH Donostia Obra Burua: David Pineño				
OBRA-UNITATEA: DOKUMENTUEN KUDEAKETA ETA TRATAMENDUA Jarduera/ERAGIKETA: bulegoetan ohiko jarduera garatzea (zirkuitulaburra, gaizki itzalitako zigarrokina, etab.)				
GERTAKARIAREN DESKRIBAPENA: Sutea instalazio finkoetan				
ONDORIO POSIBLEEN DESKRIBAPENA Hondakinak agertzea, hala nola hondar kiskaliak eta erraustu heterogeneoak				
EBALUAZIOA				
Maiztasuna	<input type="checkbox"/> BAXUA (< 1 urte)	<input type="checkbox"/> ERTAINA (hilabeteak)	<input type="checkbox"/> ALTUA (< 1 hilabete)	
Larritasuna	<input type="checkbox"/> BAXUA (gune puntuala)	<input type="checkbox"/> ERTAINA (gune partziala)	<input type="checkbox"/> ALTUA (gune zabala)	
Arriskuaren balorazioa				
<input type="checkbox"/> Ausazkoa	<input type="checkbox"/> Onargarria	<input type="checkbox"/> Neurritsua	<input type="checkbox"/> Garrantzitsua	<input type="checkbox"/> Jasanezina
Ingurumen aspektu esanguratsua		<input type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> EZ	
HARTUTAKO PREBENTZIO NEURRIAK				
Suteen detektagailua Su-itxalgailuak				
EKINTZAK				
Su-itxalgailuak berrikustea (hiru hilean behin kanpoko eta barrukoa) Larrialdi-plana egitea. Ezagutza eta simulazioa Larrialdietako buruaren argibideei jarraitzea Su-itxalgailua baimendutako pertsona batek erabiltzea Iggogailurik ez erabiltzea, baldin badago. Abisua 112ra				

○ **Kontrol Operazionalaren Prozedura**

Kontrol Operazionala ISO 14001 2015 arauan produktuen fabrikazioarekin edo zerbitzuak eskaintzearekin erlazionatutako ingurumen-baldintza guztiak betetzen direla bermatzea helburu duen dokumentua da. Hau da, honako aspektu hauekin zerikusia duten guztiak: produktu kimikoen erabilera, emisio zein isurien sorrera, hondakinen kudeaketa, energiaren eta baliabide naturalen kontsumoa etab [47].

Kontrol Operazionalak enpresaren produkzio-prozesuarekin lotutako ingurumen-alderdiei erantzuna ematea izango du helburu. Kontrol horiek aplikatutako prebentzio-neurriek jardueraren ingurumen-inpaktua minimizatzen dutela bermatu behar dute, eta zehaztu noiz aplikatu behar diren ezohiko zuzenketa-ekintzak.

Kontrol Operazionalak kontratistak zuzeneko eragina duen produktu edo zerbitzuaren bizi-zikloaren etapekin zerikusia duten ingurumen-alderdi guztiak landuko ditu. Gainerako ingurumen-alderdiak diseinu-fasean edo saldu osteko zerbitzuan landu beharko dira.

Kontrol operazionala hainbat dokumentuz osaturikoa da.

Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinak Kudeatzeko Plana (PGRCD - EEHKP)

Eraikuntza prozesua hasi aurretik burutzen den txostena da, non hondakinen kudeaketaren oinarriak zehazten diren, baita, besteak beste, hondakinen zenbateko netoa sortzea espero den

ere, eskakizun oso garrantzitsua BREEAM ziurtagiriarekin betetzeko. Txostenaren edukia honakoa da:

- i. Sarrera.
- ii. Txostenaren funtsa.
- iii. Obran sortuko diren eraikuntza eta eraispenerako hondakin kopuruaren estimazioa.
- iv. Obran hondakinak gutxitzeko prebentzio neurriak.
- v. Obran hondakinen banaketarako hartu beharreko neurriak.
- vi. Obraren barruan hondakinak biltegitatzeko, maneiatzeko, bereizteko eta beste eragiketa batzuetarako aurreikusitako instalazioen deskribapena.
- vii. EEHen kudeaketari buruzko baldintza teknikoen agiria.
- viii. Obran sortutako hondakinen kudeaketa.
- ix. EEHen kudeaketarako aurrekontua
- x. Sortuko diren hondakin arriskutsuen inbentarioa.

EEHKP Onartze akta

Parte interesdun guztiek – kontratistak, kontsultoreak (plana betetzen dela gainbegiratzearen arduradunak, propietateak ezarritako enpresa) eta propietateak -, hondakinen kudeaketa onartzen dutela adierazten duen dokumentua da.

ACTA DE APROBACIÓN-ACEPTACIÓN DEL PLAN DE GESTIÓN DE RCD

PROYECTO	THE STUDENT HOTEL DONOSTIA (GIPUZKOA).
----------	--

PRODUCTOR DE RCD	Saimon Idiákez - TSH RIBERAS DE LOIOLA PROPCO S.L.U
REDACTOR DEL EGR	HOZ FONTÁN ARQUITECTOS
REDACTOR DEL PGR	Marta Ugarte_ CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.
POSEEDOR DE LOS RESIDUOS	CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.
RESPONSABLE EJECUCIÓN PGR	Marta Ugarte_ CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.

Una vez analizado el contenido del mencionado Plan de Gestión de los Residuos de Construcción y Demolición, se hace constar la conformidad con el mismo considerando que reúne las condiciones técnicas requeridas por el R.D.105/2008 y el Decreto 112/2012.

De esta forma, en cumplimiento con lo establecido en el artículo 7 del Decreto 112/2012, de 26 de junio por el que se regula la producción y gestión de residuos de construcción y demolición la Dirección Facultativa, que suscribe, procede a la aprobación formal y el Promotor (Productor), que suscribe, procede a la aceptación formal del reseñado Plan de Gestión de Residuos de Construcción y Demolición, quedando enterado el Contratista principal (Poseedor).

Se advierte que, cualquier modificación que se pretenda introducir al Plan de Gestión de los Residuos de Construcción y Demolición, aprobado, en función del proceso de ejecución de la obra, de la evolución de los trabajos o de las incidencias y modificaciones que pudieran surgir durante su ejecución, requerirá de la aprobación de la Dirección Facultativa y la aceptación por la propiedad, para su efectiva aplicación.

Firmado en San Sebastián a 13 de Enero de 2022:

Productor de Residuos / Dirección Facultativa Promotor	Poseedor de Residuos Contratista	Empresa encargada de la supervisión de los Planes de Gestión de Residuos
 SAIMON IDIÁKEZ TSH RIBERAS DE LOIOLA PROPCO S.L.U	 MARTA UGARTE CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.	 ANDREA TAMÉS BSP CONSULTORES

PPE 1.1. Araudiaren betekizuna

EEHPK erregulatzen duen araudia biltzen da, egungo egoeran bertan ezarritakoa legeriarekin bat datorrela ziurtatzeko. ISO 9001, ISO 14001 eta ISO 45001 dira kontrol operazionala erregulatzen duten araudiak; obrarako EEHPK burutu zenerako indarrean zeuden araudien aldaketak, haien azken bertsioak 2015koa lehen biena eta 2018koa bestearena onarturik baitzeuden proiektua hasi zenerako (2019). ISO 14001ren kasuan, aldaketa nabarmena izan zuen 2015. urtean eta enpresei hura inplantatzeko hiru urteko epea eman zitzaion; aintzakotzat hartutakoak dira beraz EEHPean.

19.Taula. PPE 1.1. Araudiaren betekizuna. .

AMENABAR		PPE 1.1. Araudiaren betekizuna			Rev.02
HELBURUA					
Prozedura honen helburua Construcciones AMENABAR, S.A. enpresan legezko betekizunak eta aplikatzekoak diren beste baldintza batzuk identifikatu eta ebaluatzeko erabiltzen den metodologia deskribatzea da.					
IRISPENA					
Prozesuen kudeaketan eta obren exekuzioan eragina duten nahitaezko nahiz borondatezko lege-xedapen eta arau guztiei aplikatzen zaie.					
DATA	BERRIKUSPENA	ALDAKETAREN JATORRIA	EGILEA	ONESPENA	
28/04/2017	00	ISO9001 eta 14001 arauen 2015ko bertsiora egokitzea	Zuzendaritza	BAI	
28/01/2019	01	2018ko ISO45001 arauaren bertsiora egokitzea	CSMA ¹	BAI	

¹CSMA: *Gestión de la Calidad, Seguridad y del Medioambiente* (Kalitatearen, Segurtasunaren eta Ingurunearen Kudeaketa - KSI)


FPO-4.7. Eskakizun legalen betekizuna

Obran aplikagarria den lege edo arau oro betetzen dela ziurtatzeko garatutako dokumentua da. Horretarako, ERANSKINA IV: FPO-4.7. ESKAKIZUN LEGALEN BETEKIZUNA eskuragarri dagoen taulaz baliatzen da bat, non eskakizun legalak ingurumen aspektuen arabera bananduta agertzen diren. Ebaluazioa hiru hiletik behin egin behar da gutxienez, eta bertan, eskakizuna betetzen den (*A = Aprobado / R = Rechazado*), eta ez betetzekotan haren zergatia edo justifikazioa zein den (*C = Comentario*) adierazten da. Obran, azterketak iraun duen bitartean, eskakizunetakoren bat ez betetzearen kausak n daude eskuragarri.


20. Taula. FPO-4.7. Eskakizun legalen betekizuna: iruzkinak.

AMENABAR		FPO-4.7. Eskakizun legalen betekizuna		Rev.02
Eskakizunaren eskribapena	Justifikazioa			
	C	Iruzkina		
Puntu garbia dago eta era egokian mantentzen da	C1	Oraindik ez da garbigunea jarri, ia obra hasi berria da. Ez dago HARik.		
	C8	Antiguoberriko lursailean obra hasi zenetik, bere lursailean zegoen puntu garbia kendu behar izan da. Laster berriro instalatzea aurreikusten da.		
Hondakinen onartze dokumentua	C2	Obra IKSeem Eusko Jaurlaritzaren programa informatikoan alta emanda dago		
Erabilitako olioaren erregistroa	C3	Ez da beharrezkoa izan obran olio kudeatzea; debekatuta dago obran olio aldatzea.		
Ez dago amiantorik	C4	Obran ez dago amiantorik. Hodiren bat agertuz gero, lana gelditu eta empresa baimenduarekin harremanetan jarriko da.		
Erabiltzen ez diren pneumatikoak	C5	Obran ez dago pneumatikorik.		
Komunikazio arduratsua egiten da balorizatzeo lurrak ematen badira	C6	Lur guztiak baimendutako betelan batean kudeatzen dira.		
Lurzoruaren kalitateari buruzko txostena egin da	C7	Ez da inbentariatutako partzela geoeuskadiko bisorearen arabera, ezta kutsatutakoa ere.		

PO-4. Obraren egikaritzea eta jarraipena



34. Irudia. PO-4. Obraren egikaritzea eta jarraipena: Obrako unitateen jarraipena eta kontrola.



35. Irudia. PO-4. Obraren egikaritzea eta jarraipena: Materialen eta produktuen jasotze prozedura eta kontrola.

Fluxu diagrama horietan (ikus 34. Irudia eta 35. Irudia), jarraipenaren ataletako bakoitzean, bai material zein produktuen kontrolean, bai obrako unitateen kontrolean ere, arduradun bat izendatzen da, ataletako bakoitza egokiro burutzen dela ziurtatu dezan. Zeregin edo ardura horiek, bere baitan, beste bi sekzio nagusitan bana daitezkeela esan daiteke, gutxi gorabehera; lehenik eta behin obran bertan burutu beharrekoak daude, zeinen arduradun nagusia Obrako Arduraduna (O.A.) izango den, eta bestetik, ardura administratiboak daude, zeintzuk Obra Buruak (O.B.) burutu beharko dituen.


Dokumentuaren helburua, obra kontrolatutako baldintzetan eta planifikatutakoaren arabera egingo dela bermatzea da, obra horretarako zehaztutako zuzendaritzak ezarritakoa lortzeko. Hau da, kalitatearekin erlazionaturiko berrikuseta elementua dela esan daiteke. Bi talde nagusitan banatzen da berau, eta bakoitzean obraren jardueretan izan beharreko portaera deskribatzen du. Gehitutako fluxu diagramen bidez, modu laburtuan azaldu dira jarraibide horiek.

IPO-4.2. Ingurumen kontrola obran

EEHKP dokumentu zabalean adierazitako helburu denak betetzeko eta Ingurumen Alderdien Ebaluazioan bildutako jarraibideak biltzen dituen ingurumen jarraibide liburu moduko bat da, enpresaren jardueren ondorioz sortzen diren ingurumen-alderdiak kontrolatzeko. Era berean, instrukzioaren kopia bat ematen zaie enpresa azpikontratatu guztiei, eta, zeintzuek aldi berean, bertan zehazten den moduan jokatzeko konpromisoa hartu behar duten.


PPO-4.2. Hondakinen kudeaketa

PO-4 dokumentuaren antzera, obrako kudeaketa prozesu jakin bat deskribatzea du helburu, kasu honetan, material eta produktu zein obrako unitateena beharrean, obran sortutako hondakinen – arriskutsuak (HA) barne – kudeaketa egokirako jarraitu beharreko metodologia deskribatzen delarik.



36. Irudia. PPO-4.2. Hondakinen kudeaketa: Hondakin ez arriskutsuak (HEA).

Hondakinen kudeaketan ere, pausu bakoitzerako arduradun bat izendatzen da, Obra Burua gehienetan, baina baita Kalitate, Segurtasun eta Ingurumen departamentua ere, zeini HEA-en kudeaketari erlazionatutako ekintzak burutzea dagokion. Obra Arduradunak ez du ia esleitutako jarduera jakinik, baina bere ardura izango da hondakinen kudeaketa obran modu egokian burutzen dela ziurtatzea (hondakin mota bakoitza dagokion edukiontzira botatzen dela ziurtatzea, edukiontzia beteta daudenean baimendutako kudeatzaileari abisua ematea...).



37. Irudia. PPO-4.2. Hondakinen kudeaketa: Hondakin arriskutsuak (HA).

○ **PCA (Política de Control Ambiental) – IKP (Ingurumenaren Kontrolerako Politika)**

Funtsean, Ingurumen Kudeaketako Sistemaren muina da; izan ere, enpresa baten goi-zuzendaritzak ingurumenaren babesarekin lotutako asmoei eta ekintza-printzipioei buruzko adierazpen publiko eta formala da, BREEAMak gain hartzen dituen ingurumen-aspektu denak biltzeko moldatu behar izan dena.

POLÍTICA DE GESTIÓN INTEGRAL

Construcciones Amenabar, S.A., Empresa dedicada a construcción en general; trabajos de demolición y rehabilitación, obra civil e instalaciones, edificación y pabellones, etc. para obra pública y/o privada, marca, a través de su Política de Gestión Integral, las directrices generales de su Sistema de Gestión de la Calidad, Seguridad y Medioambiente.

Esta Política de Gestión Integral se basa en los requisitos normativos de aplicación según UNE-EN ISO 9001, UNE-EN ISO 14001 e ISO 45001, en su revisión en vigor, así como en la base legal de Prevención de Riesgos Laborales y Medioambiente.

El Director Gerente de **Construcciones Amenabar, S.A.** es el máximo responsable de la Política de Gestión Integral implantada en nuestra empresa que incluye lo que a continuación se detalla:

- Un marco de referencia para establecer y revisar los objetivos del Sistema de Gestión Integral en consonancia al Plan Estratégico y contexto de la organización.
- Compromiso de cumplimiento de la legislación y reglamentación Medioambiental, de Calidad y de Seguridad Laboral, así como otros requisitos de interés de la Empresa.
- Evaluar por anticipado las repercusiones potenciales sobre la Seguridad y la Salud de las personas y el Medio Ambiente de todas nuestras actividades y procesos y adoptar las medidas preventivas requeridas, con el fin de eliminar los peligros y reducir los riesgos de SSL.
- Formar y sensibilizar al personal de la empresa, haciéndole participe de la importancia del sistema de gestión, nuestra política orientada hacia la Calidad, el Medio Ambiente y la Prevención de Riesgos Laborales en todas sus actividades, priorizando la comunicación, consulta y la participación, de manera que la responsabilidad de la gestión de la Calidad, el Medio Ambiente y la Prevención de Riesgos Laborales incumba a toda la organización.
- Difundir la Política de Calidad, de Medio Ambiente, de Prevención de Riesgos laborales y de Igualdad entre las empresas subcontratadas y otras partes interesadas, asegurando el cumplimiento de la misma cuando realicen actividades en nuestro centro de trabajo y, comunicando la importancia de una gestión de la SST eficaz y conforme con los requisitos del sistema de gestión de la SST.
- Un compromiso con las personas, para proporcionar condiciones de trabajo seguras y saludables, para la prevención de lesiones y deterioro de la salud relacionados con el trabajo y específicas a nuestro contexto.
- Un compromiso de mejora continua en gestión de calidad, Seguridad y Salud en el Trabajo y de prevención de la contaminación así como protección del medio ambiente, protección de la biodiversidad y de los ecosistemas haciendo uso sostenible de los recursos.
- Un compromiso adquirido ante la sociedad y su personal, desarrollando para ello las acciones propuestas en su Plan de igualdad con arreglo al más estricto respeto del principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, cualesquiera sean las circunstancias personales de las trabajadoras y los trabajadores, esto es, garantizando que el establecimiento de las condiciones de trabajo se realiza con independencia del género de la persona que ocupe el puesto y lo lleva a cabo cumpliendo estrictamente con la legislación aplicable y con las pautas establecidas por su Comisión de Igualdad.

La Política de Gestión Integral de la Empresa se encuentra a disposición de todo el Personal de la Empresa en el departamento de Calidad, Medioambiente y Seguridad así como a disposición del público.



EriK Martín Boticario
Dirección General

○ **SGA (Sistema de Gestión Ambiental) – IKS (Ingurumenaren Kudeaketa Sistema)**

Aurrerago zehaztasun handiagoz azalduko den moduan, ingurumen-inpaktua sor dezaketen enpresaren jarduerak kontrolatzean datza, inpaktu horiek ingurumenean duten eragina murrizteko asmoz. Obra zehatz honetarako burututakoa, ERANSKINA IV: INGURUMEN KUDEAKETA SISTEMA atalean aurki daiteke.

○ **Ingurumen Jardunbide Egokien Eskuliburua**

Eskuliburu honetan, azken finean, aurreko dokumentuetan, IKP eta IKSan batik bat bildutako kontzeptuak bateratzen dira, modu laburtuan, langile guztiek eskuragarri izan dezaten eta ingurumenaren babeserako jarraitu beharreko jardunbideak zeintzuk diren argitzeko. Noski, aurretik enpresan zegoen eskuliburuari, BREEAMak ezarritako irizpideak gehitu zaizkio.

Eskuliburu hau langileei are gehiago hurbiltzeko, kartel batzuk ere prestatu dira, ingurumen-aspektu denetan ezarritako jarraibideekin, eta bulego eta gune komun denetan zintzilikatu, langileek uneoro eskuragarri izan dezaten.

Ingurumen Jardunbide Egokien Kartela



BUENAS PRÁCTICAS AMBIENTALES
 THE STUDENT HOTEL RESIDENCIA DONOSTIA

<p>CONTAMINACIÓN DEL AIRE Y AGUA</p> <ul style="list-style-type: none"> *Riega los caminos y materiales que puedan producir polvo *Circula a baja velocidad evitando levantar polvo *La evacuación y depósito de escombros en los contenedores, se realizará con los elementos de protección necesarios para evitar la propagación de polvo (toldos, etc.) *Se interrumpirán trabajos que impliquen movimiento de tierras, excavación etc, en caso de fuertes vientos en zonas con núcleos urbanos cercanos *Limpieza de ruedas de los vehículos antes de salir de obra *Cubre los contenedores para su transporte y al finalizar la jornada *Queda prohibido cualquier tipo de quema en obra *Mantén limpios los imbornales/sumideros de la obra *Desempeño de cualquier actividad que podría resultar contaminante en aquellas zonas designadas y debidamente aisladas, lejos de ríos, pozos o cualquier otro curso de agua. *Empleo de mantillo para la estabilización de las zonas expuestas y recubrimiento de pendientes o canales escarpados, por ejemplo, con una esterilla de yute. 	<p>VERTIDOS</p> <ul style="list-style-type: none"> *Limpia los elemento de hormigonado en los lugares habilitados para tal fin *Empleo de superficies impermeables en aquellas zonas de repostaje de combustible y zonas de traslado de fluidos. *Los productos químicos deben ser almacenados en los puntos habilitados para ello que deberán estar protegidos frente a derrames *Si se produce algún derrame accidental de aceites u otros productos notificalo al responsable de obra para proceder a su rápida actuación y retirada a punto limpio *En el punto limpio se dispone de sepiolita para posibles vertidos *Los cambios de aceite de maquinaria se realizará en taller autorizado para ello *Queda prohibido todo vertido de aceites usado en aguas superficiales o subterráneas y en los sistemas de alcantarillado o reevacuación de aguas residuales.
<p>ORDEN Y LIMPIEZA</p> <ul style="list-style-type: none"> *La obra debe estar limpia y ordenada *Mantén los acopios y los almacenamientos en condiciones adecuadas: de manera ordenada, protegidos y en caso de que fuese necesario o posible, cubiertos (áridos, cerámicas etc. para evitar la dispersión de polvo). *Mantén limpios los accesos *Mantén limpia y ordenada la oficina *Utiliza los contenedores habilitados para cada tipo de residuo *Utiliza las sacas adecuadas para cada tipo de residuo. Respeta el etiquetado. NO mezclar tipos de residuos. 	<p>RESIDUOS</p> <ul style="list-style-type: none"> *No mezcles los residuos. Deposita cada residuo en su contenedor *Selecciona para su reciclado los siguientes residuo: madera, metal, hormigón, escombro, yeso/pladur/escayola, plástico, papel y cartón y depositalos en su contenedor *Procura reciclar también los residuos no generados en obra (en el comedor, aseos...) *Evita al máximo el residuo de mezcla *El punto limpio es SOLO para depositar restos de envases que hayan contenido producto químico o restos de materiales impregnados con residuo peligroso. Evitar colocar otros elementos como por ejemplo, EPIS. *Mantén el punto limpio protegido
<p>AHORRO DE AGUA Y ENERGIA</p> <ul style="list-style-type: none"> *Apaga las luces cuando no sea necesario *Cierra grifos cuando no sea usen *Utiliza el agua que necesites, no malgastes *Mantén los equipos en modo ECO *Apaga los equipos cuando no estén en uso, o una vez terminada la jornada. 	<p>BIODIVERSIDAD Y EROSIÓN</p> <ul style="list-style-type: none"> *Vigila la correcta protección de los árboles adyacentes de la zona de obra. En caso de detectar daños habla con el Responsable de la obra *Minimiza el área de actuación para un menor deterioro de la parcela *Mantener los imbornales despejados de las zonas de urbanización. Instalar mallas porosas cuando haya previsión de lluvia intensa para evitar el acceso de materiales sueltos a los colectores urbanos. *Protege los taludes de los agentes meteorológicos que puedan ocasionar erosión en la materia orgánica del terreno *Protege el suelo en zonas de acopio de materiales incorporando siempre una superficie impermeable como base de todo acopio susceptible de derrame *Establece estas ubicaciones en las zonas bajas de la parcela. *Restaura los suelos degradados en las áreas coincidentes con las instalaciones de elementos auxiliares o temporales
<p>RUIDO</p> <ul style="list-style-type: none"> *Respeta los horarios autorizados según su planificación *Evita, si es posible, la realización de tareas simultaneas que generen ruido *Está prohibido el uso de radios en obra *Está prohibido el uso de auriculares en obra *No generes ruidos innecesarios (maquinaria, motores, etc) *Utiliza maquinaria de bajo impacto acústico 	

○ **Makinariaren fitxa teknikoak**

Obran erabilitako makinaria, tresna edota erreminten efizientzia energetikoa justifikatzeko, aztertutako periodoan zehar alokatutako erreminta denen jarraipena egin da, haietako bakoitzaren fitxa teknikoak eskatuz enpresa hornitzaileei eta CE marka baduten ala ez adieraziz . Esan beharra dago, obraren fasea dela eta, oso gutxi izan direla zuzenean alokatutako erremintak, makineria dena azpikontratutako enpresek ekarria baita.

CE Marka

Fabrikatzaileak produktua ebaluatu duela frogatzen du, eta beraz, da Europar Batasunak eskatzen dituen segurtasun-, osasun- eta ingurumen-baldintzak betetzen dituela. CE marka nahitaezkoa da Europar Batasunean merkaturatuko diren munduko edozein lekutan fabrikatutako produktuentzat [48]. Hori dela eta, fokuen fitxa teknikoekin egin den moduan, makineria denarekin zerrenda bat burutu da obrara erreminta desberdinak (zerrak, zulagailuak...) ekarri heinean, non marka modeloa eta CE marka adierazi diren.

○ **Energia-iturri alternatiboen analisia**

Ez da energia iturri berriztagarririk erabili obraren energia iturri gisa; arrazoi ekonomikoak direla medio, ez da posible izan halakorik egiterik. Horregatik, justifikazio moduan, Obra Buruak idatziriko adierazpena aurkeztu da, non arrazoi nagusiak adierazten diren, laburbilduz honakoak direlarik:

- i. Energia iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten etxolak alokatzeak ekarriko zukeen gastu jasanezina.
- ii. Mota horretako etxolak alokatzen dituzten enpresarik gertu aurkitu ez izana.
- iii. Energia berriztagarrien instalakuntza ezartzeko arazo logistiko, ekonomiko eta espazio arazoak.

El señor David Pineño, Jefe de Obra de la empresa CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A., como responsable principal de la obra TSH Donostia

Confirma que:

Se ha descartado la posibilidad de la utilización de fuentes de energía alternativa para el suministro energético de casetas y la propia obra alegando los siguientes motivos:

- 1. Existe, en la actualidad, un gran problema de suministro de casetas de obra, por lo que ha premiado la rapidez de suministro, reutilizando casetas quedadas en desuso en otras obras de la empresa.
- 2. El incremento económico que supone la contratación de casetas de obra autosuficientes energéticamente, no siendo competitivos comparándolos a las casetas convencionales.
- 3. No existe o no se ha dado con empresa alguna en el País Vasco que suministre este tipo de casetas de obra. El porte a la obra, además de suponer un incremento en el gasto, entendemos que desestimaría el beneficio energético que pudiese aportar.
- 4. La parcela no consta con instalación energética alternativa alguna.
- 5. Dada la potencia necesaria en la obra, no es posible realizar una instalación de energía renovable (por ejemplo, de paneles fotovoltaicos) en el espacio que se dispone, además del gasto económico insostenible que acarrearía.
- 6. En su defecto, se ha optado por solicitar a la empresa IBERDROLA poder acceder a la red eléctrica de BT facilitando una acometida por la calle Pablo Sarasate, entendiendo que es menos perjudicial para el medio ambiente que los equipos eléctricos.

Y para que conste se firma en el lugar y fecha indicado
En San Sebastián, a 15 de noviembre de 2021.


○ **GST02_3_F_TSH Donostia**

Obran, erabilitako erreminta edo makinariak behar izanez gero zein ekipo elektrogenoaren energia iturritzat, momentuko beharra asetzeko gasolio andel bat instalatu da, IKSan datozen baldintzak betetzen direlarik, besteak beste, isuriak arriskutsuak izan daitezkeen gunetatik (erreka bazterrak, ur-korronteak...) urrun kokatzea, behar bezala babesturik (obra-edukiontzi batean) egotea eta erabileratik etor daitezkeen ausazko isurietatik behar bezala babesturik egotea kubeta baten bitartez.


○ **Ur-jariatzeen dreinatze-planoa**

Obraren hasieran, indusketa-fasea hasi aurretik, partzelara isuritako euri-uren dreinatzea aurretik zeuden estolderia-sarearen bitartez burutu da, izan ere, partzelaren kota zero izateak, eta haren ingurune guztia urbanizatuta egoteak, higadura handiak egon ahal izatea eta ondorioz, partikula anitzen isuria saihesten zuen. Hala eta guztiz ere, eta batez ere, kamioiek berekin ekar zitzaizketen partikula eta bestelakoen euri-uren sarerako isuria saihesteko, pilote eta pantailen egikaritze fasean dekantazio-putzu bat instalatu da.

Behin indusketa fasea hastean ordea, dreinatze-plano bat diseinatu beharra sortu da; jada dekantazio-putzuarekin nahikoa ez, eta instalazio berri bat ezarri da. Izan ere, dekantazio-planoa obraren Fase II gunean kokaturik dago, indusketa Fase I gunetik hasi bitartean.



40. Irudia. Fase I gunea - 11 lerrokatzeraino.



41. Irudia. Fase II gunea.


Fase I gunean, ordea, arazo bat sortzen da; Fase II gunean ez bezala, partzelaren mugak, muga urbanoarekin bat egiten du, eta beraz ezin liteke dekantazio-putzu bat instalatu. Arazoari irtenbidea, modu honetara ematen zaio:

- i. Malda kontrolatuko (gehiegizko higadura saihesteko eta ezponden egonkortasuna bermatzeko) ezponden bitartez, euri-urak partzelako Fase I guneko kota baxuenera zuzendu dira. Aintzakotzat hartu behar da, barne-ur korronteen existentzia eta lurzoruaren plastikotasun handia, hots, eman litezkeen bi kondiziorik kritikoek ezponden egonkortasunerako. Hori dela eta, NTP 278²⁸ arauan ezarritakoa jarraituz, kasu okerrenaren hipotesiaren arabera, ezponden malda 60º baino txikiagoa izatea komeni da, eta altuera maximoa berriz, 2,40 metrotakoa, jarraiko 21. Taulari jarraiki.

21. Taula. Eskaerarik gabeko ezpondetarako gehinezko altuera onargarria NTP 278 arauaren arabera.

Lurzoru mota	Ezpondaren angelua β	Konpresio sinplearekiko erresistentzia Ru (kg/cm ²)				
		0,250	0,375	0,500	0,625	$\geq 0,750$
Buztin eta lohi oso plastikoak	30	2,40	4,60	6,80	7,00	7,00
	45	2,40	4,00	5,70	7,00	7,00
	60	2,40	3,60	4,90	6,25	7,00
Plastikotasun ertaineko buztin eta lohiak	30	2,40	4,90	7,00	7,00	7,00
	45	2,40	4,10	5,90	7,00	7,00
	60	2,40	3,60	4,90	6,30	7,00
Plastikotasun baxuko buztin eta lohiak, buztin aretsuak eta are buztintsuak	30	4,50	7,00	7,00	7,00	7,00
	45	3,20	5,40	7,00	7,00	7,00
	60	2,50	3,90	5,30	6,80	7,00

²⁸ NTP: Nota Técnica de Prevención (Prebentzio Ohar Teknikoa).



42. Irudia. Ezponden altuera maximoa [62].

Fase I gunean 8 metroko kota desberdintasuna dagoenez batz bestea, indusketa era eskalatuan egin da, pixkanaka-pixkanaka kotan behera jaitsiz.

- ii. Euri-urak, zein lurrazpiko ur-jarioak kota baxuenera bideratu ostean, bonba baten bitartez kota zerora zuzendu dira, bertan instalatutako kontainer batera isurtzeko. Kontainer hau instalatu izanaren arrazoi nagusia dekantazio-putzu bat instalatu ahal izateko espazio falta izan da, kontainerrak behar izan denean hura mugitzeko eskaintzen duen erraztasunaz gain.
- iii. Kontainer honetan jarraitutako printzipio fisikoa, dekantazio-putzu batean jarraitzen denaren berdina da; grabitazio bidezko dekantazioa. Horrela bada, eskitako partikula ugari dituen ur nahasketa heterogeneoa, geldirik dagoen ontzi batean nahikoa denboraz utziz gero, partikulek grabitazioaren ondorioz jasandako sedimentazioaren fenomenoari esker, partikulak alde batetik eta ura bestetik dituen nahastean bihurtzen da. Fenomeno honi esker, partikula denak kontainerraren behealdean geratu, eta ur gardena ur fekalen sarera isuri da, badaezpada ere, ur grisén zuzeneko Urumea ibairako isuria saihesteko, egon litezkeen akatsen ondorio. Metodo inprobisatu hau baliagarria izateko, ordea, garrantzitsua izan da noizean noizeko kontainerraren garbiketa; ura gardena ateratzeari uztean, sedimentuak indusketa lurrera isuri dira, eta berriz ere instalakuntza martxan jarri da.



43. Irudia. Grabitazio bidezko sedimentazioa.

Fase II gunearekin hastean, hasieran dekantazio-putzua erabili da, posiblea izan den bitartean, eta behin erabili ezina izan denean, Fase I gunean erabilitako metodologia berdina jarraitu da.

○ **Materialen metatze-planoa**

Materialen metatze-planoa, Materialen Harrera Protokoloaren baitan aurki daiteke.

4. Lan-inguru segurua eta errespetuzkoa

Atal honen helburua, enpresa kontratistak obra modu garbian eta seguruan kudeatzen duela erakustea da, langileen ongizatea bermatzeko eta haien osasun eta segurtasunerako arriskuak minimizatzen. Atal hau betetzen dela frogatzeko, 22. Taulan erakutsitako baldintzak bete behar dira.

22. Taula. KDKT02- 4. Lan-inguru segurua eta errespetuzkoa ataleko frogatze-zerrenda

Item	Irizpideak	Eskatutako ebidentziak	Eskaintako ebidentziak
a	Langileentzako eta bisitarietzako instalazio egokiak daude kokalekuan. Honako hauek jaso behar dituzte, gutxienez: 1. Komun independenteak gizonentzat, emakumeentzat eta desgaituentzat. 2. Dutxa funtzionalak eta aldatzeko eremuak. 3. Leihatilak aldageletan. 4. Erretzeko gune espezifikoak (indarrean dagoen araudiaren arabera aplikatzeko denean). 5. Ostatu egokia eta segurua (ematen bada).	1. Argazkien txostena.	1. GST02_4_A_TSH Donostia
b	Kokalekuko instalazioak garbi eta mantentze-egoera onean daude: 1. Kantinari erantsitako eremuak, bulegoak eta edukiontzia. 2. Kokalekuko zerbitzu pertsonaletako instalazioak (komunak eta aldatzeko eremuak barne). 3. Erretzeko gune espezifikoak (indarrean dagoen araudiaren arabera aplikatzeko denean).	1. Argazkien txostena.	1. GST02_4_B_TSH Donostia 2. Garbiketa kudeaketa
c	Eremu pribatuak edo inpaktu bisualekoak ezkutuan daude. Honako hauek jaso behar dituzte, gutxienez: 1. Kantinari, bulegoak eta edukiontziei erantsitako eremuak, hala badagokio. 2. Komunak. 3. Erretzeko gune espezifikoak (indarrean dagoen araudiaren arabera aplikatzeko denean).	1. Argazkien txostena.	1. GST02_4_C_TSH Donostia
d	Bisitariak NBE garbiak dituzte eskuragarri.	1. Enpresaren harrera politika eta prozeduren kopia. 2. Argazkien txostena.	1. PSS. 2. GST02_4_D_TSH Donostia
e	Osasun- eta segurtasun-prozedurak daude gai hauei dagokienez: 1. Langile guztien prestakuntza egokia, langile atzerritarrek barne, osasunari eta segurtasunari dagokienez jardunbide onenak uler ditzaten, eta kokalekuan informazioa erakustea. 2. Langileen eguzkiarekiko babesa. 3. Langileen identifikazioa. BREEAMak argi eta garbi adierazten du langile guztiek identifikazio-txartel bat eduki behar dutela norberaren argazki eta datuekin (enpresa, izen-abizenak, NAN zenbakia...). 4. Gertakari (arin eta larri) ia gertakari guztien txostenak egitea. 5. Lehen sorospenerako ekipo nahikoa kokalekuan jarduteko prest daudela bermatzea.	1. Langileek jasotako OO formakuntza dokumentuen kopia. 2. Kartelak gomendioekin. 3. Langileen identifikazio eta lanera sartzeko kontrolaren prozeduren deskribapena. 4. Istripuak ikertzeko dokumentuaren kopia. Obraren amaierarako batere ez baldin bada gertatu, gutun sinatua, justifikatuta. 5. Argazkien txostena.	1. GST02_4_E1_TSH Donostia 2. GST02_4_E2_TSH Donostia 3. GST02_4_E3_TSH Donostia 4. GST02_4_E4_TSH Donostia 5. GST02_4_E5_TSH Donostia
f	Polizia-etxea eta ospitalea (istripuei eta larrialdiei aurre egiteko gaitasuna duena) adierazten dituen kartelak daude gutxienez gune hauetan: harrera, kantina eta bulego nagusia.	1. Argazkien txostena.	1. GST02_4_F_TSH Donostia
g	Osasun eta segurtasun ikuskatzaile batek kokalekua ikuskatu du.	1. Egindako ikuskapen-txostenaren kopia.	1. Bilera-aktak
h	Larrialdi ihesbideak ondo identifikatuta daude eta ebakuazio-prozedura garbia dago	1. Argazkien txostena 2. Sute-simulakroen prozeduraren kopia eta emaitzen kopia.	1. GST02_4_H_TSH Donostia 2. PSS

Eskainitako txostenen edukia







○ GST02_4_A_TSH Donostia

Txosten honen bitartez, langileen eskura dauden instalakuntza denak egoera egokian, garbi eta txukun daudela erakutsi behar da, horretarako instalakuntza horien argazkiak bilduz. TSH Donostiako obran, instalakuntza horiek bi alderdi nagusitan banatzen dira: obran bertan, non langileen eta enkargatuen etxolatxoak dauden (beren komun, aldagela eta dutxekin); eta bulegoa, non langileen aldagela nagusia, jangela eta emakumezkoen eta mugikortasun mugatukoaren komunak kokatzen diren.

○ GST02_4_B_TSH Donostia

Atal honetako lehenengo txostenaren jarraipena den honetan, aurkeztutako espazio horiek garbi mantentzen direla azaldu behar da txosten honetan. Argazkiez gain, garbiketa plana ere atxikitzen da, non garbitzaileak, astero instalakuntza denak garbitu ostean, garbikuntzaren berri ematen duen guneetako bakoitzean taula bat sinatuz; hasieran, astean behinerako hitzartutako garbiketa, astean bitan garbitzera - asteazken eta ostiraletan – pasatzea erabakitzen da, nahikoa ez zela ohartuta. Jarraian, ekaineko garbiketa erregistroa ageri da, adibide moduan.

23. Taula. Ekaineko garbiketa erregistroa.

	REGISTRO DE LIMPIEZA				TSH DONOSTIA
	LUNES	MARTES	MIÉRCOLES	JUEVES	VIERNES
-	-	1	2	3	
					
6	7	8	9	10	
					
13	14	15	16	17	
					
20	21	22	23	24	
					
27	28	29	30	-	
					

○ GST02_4_C_TSH Donostia

Aurreko txostenaren antzera, honen xede nagusia, langileentzako prestaturiko azpiegiturek ezaugarri egokiak dituztela bermatzea da, foku zentrala, haien pribatutasuna izanik. Esan bezala, irizpideari jarraiki, aldagela, jangela zein komunak, kanpo-ingurumenetik zeharo isolatuta daude, haien zati handi bat bulegoan bertan egonik, eta ondorioz, guztiz beteko litzateke puntu honen justifikazioa.

○ **GST02_4_D_TSH Donostia**

Bisitariak obrara joan ahal izatea bermatzeko, uneoro haientzat nahikoa NBE badaudela ziurtatu behar da, eta horretara zuzenduriko armairu edo apalategi bat egon beharko da obran, gutxienezko elementu hauek biltzen dituen:

- i. Txaleko islatzaileak
- ii. Kaskoak
- iii. Obrarako egokiak diren babes-botak.

Argazkien bitartez, apal edota armairu horren existentzia frogatu da, zeinak gainera, egokiro seinaleztatuta egon beharko duen.

Horrez gain, Construcciones Amenabar enpresako Segurtasun Sailak TSH Donostia obrarako garatutako Segurtasun eta Osasun Protokoloa (*PSS – Protocolo de Seguridad y Salud*) ere aurkezten da, non bisitarien harrera plana deskribatzen den.

○ **GST02_4_E1_TSH Donostia**

Langileek segurtasunaren inguruan formakuntza egokia dutela justifikatzeko, hiru dokumentu aurkeztu dira:

- i. FPA-1.9. Información a los trabajadores PSS

Obraren hasieran, eta gremio edo lan-talde berriak lanean hasten direnean, hitzaldi bat ematen zaie langileei, non ondorengo gai nagusiak lantzen diren:

- ii. Jaso izanaren adierazpena

Aurreko hitzaldiaren amaieran, dokumentu bat sinatzen dute bai langileak, bai hitzaldia ematen duen arduradunak, bi alderdien onespenez.

- iii. Lan-prebentzioari buruzko ikastaroa

Langile orok, obrako edozein jarduera hasi aurretik, gutxienez 60 h-ko prebentzio ikastaroa jaso izana justifikatu beharko du, hala dela frogatzen duen agiri bat aurkeztuz. Agiri horiek denak *Metacontratas* softwaretik eskuratu, eta atal honetan froga moduan atxiki dira. Langileen pribatutasuna errespetatzeko asmoz, agiri horiek ez dira dokumentu honetan atxikitu.

○ **GST02_4_E2_TSH Donostia**

Batez ere, udarako hilabeteetara zuzendurik, langileei aspektu honetan ere formakuntza egokia ematen zaiela justifikatzen da txosten honetan. Aurreko atalean aipatutako hitzaldiko gai-zerrendan alderdi hau gehitzeaz gain, langileen gune komunetan gomendio nagusiak biltzen dituen kartelak zintzilikatu dira.

Eguzkiaren aurkako babesa

RECOMENDACIONES PARA LA EXPOSICIÓN SOLAR

<p>UTILIZAR PROTECCIÓN SOLAR</p> 	<p>MANTENERSE HIDRATADO</p> 
<p>TRABAJAR A LA SOMBRA SI ES POSIBLE</p> 	<p>TAPAR LAS ZONAS EXPUESTAS</p> 
<p>The Student Hotel Donostia C/ Hermanos Otamendi 902 G, 20014, San Sebastián, Gipuzkoa</p>	

○ **GST02_4_E3_TSH Donostia**

BREEAM ziurtagiria ezarri aurretik enpresan erabilitako langileen identifikazio metodologia baliozkoa ez izan, eta aldatzera behartu du. Aldaketa hau ezarri aurretiko metodologia oso sinplea zen: langileek, egunero, obrara iritsi bezain pronto, haien izen-zerrenda zeukan taula batean sinatzen zuten. BREEAMak ordea, langileetako bakoitzak txartel-identifikatzaile bat eduki behar duela ezartzen du nahitaez. Txartel horrek eduki beharreko gutxieneko edukia:

- i. Langilearen argazkia
- ii. Zenbaki identifikatzailea (NAN edo baliokidea)
- iii. Enpresa
- iv. Obra

Langileak, txartel hori soinean eraman behar du obran dagoen bitartean eta obrara langile berriak sartzen diren aldiro, txartel identifikatzaileak egin beharko zaizkie.

○ **GST02_4_E4_TSH Donostia**

Atal hau enpresako Segurtasun eta Osasun saileko teknikariei dagokie, haiek baitira obran suertatutako gorabehera zein istripuen kudeaketaz arduratzen direnak. Kudeaketa aurera nola eramaten den argitzeko, honako dokumentuak erantsi dira froga moduan:

- i. FPSM – 1.12 Datos de incidente laboral
- ii. FPSM – 1.13 Informe interno de investigación de accidentes


iii. FPSM – 1.14 Parte incidencia. Daños a terceros.

iv. FPSM – 1.15 Registro de reclamaciones.

○ **GST02_4_E5_TSH Donostia**

Langileen eskura daude, bai obrako etxola gunean, bai bulegoan ere. Non dauden ikus dezan Aholkulariak, planoak atxiki da. Horrez gain, txostenean, kit bakoitzean zer dagoen eta erabilera jarraipenak ere gehitu dira.

Lehen sorospeneko kiten ezarpenaren planoak



○ **GST02_4_F_TSH Donostia**

Gainontzeko kartelak eseki diren gune denetan, komisaria eta ospitale nagusiak non diren azaltzen duen kartela ere ipini da, hori hala dela frogatzeko argazkiez baliatuz.

Lehenengo ebaluazioan aipatu da ordea, mapa hauek handiagoak izan behar dutela, langileek erraztasunez ikusi ahal izateko. Beraz, bigarren ebaluazio periodo aldia hasterakoan, hori zuzentzeko geratu da, bakoitzerako kartel independente bat egiteko asmoz.

Komisaria eta ospitalea

HOSPITALES CERCANOS:

Hospital Quirón



Egia Kalea, 20012 Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa
 Tlf: [943 43 71 00](tel:943437100)

Hospital Universitario Donostia



Begiristain Doktorea Pasealekua, s/n, 20014 Donostia, Gipuzkoa
 Tlf: [943 00 70 00](tel:943007000)



TSH DONOSTIA
 C/ Hermanos Otamendi 902G,
 20014, San Sebastián, Gipuzkoa

COMISARIÁS CERCANAS:

Comisaría Provincial San Sebastián



Urumea Pasealekua, 34, 20012 Donostia, Gipuzkoa
 Tlf: [943 44 98 00](tel:943449800)

Ertzaintza



Kristina Infantaren Kalea, 28, 20008 San Sebastián-Donostia, Gipuzkoa
 Tlf: [943 53 86 06](tel:943538606)

○ **GST02_4_G_TSH Donostia**


Obra honetarako, promotoreak, kontruktorako segurtasun ordezkariak gain, Segurtasun eta Osasun alderdiez arduratzeko kanpo enpresa bat kontratatu du, aholkularitza lana bete dezan: BSP. Hala bada, hiru agente desberdinek dira obran segurtasun alderdiak gainbegiratzen: Construcciones Amenabarreko Segurtasun eta Osasun Saileko ordezkariak, Prevennova Seguridad y Salud S.L. kanpo enpresako teknikariak eta obra egunero bisitatzen duen BSP Consultores enpresako ikuskatzailea.

Haiek denek jorratutako alderdiak asteroko obra bisitako bileran lantzen dira, eta horregatik, froga moduan, bilera horietako aktetako OO atalari dagozkion zatiak aurkeztu dira. Astero noski, akta horiek berrituz joan behar izan da.

○ **GST02_4_H_TSH Donostia**

Aurretik aipatutako obrarako egindako Segurtasun eta Osasun Planean, obrarako diseinaturiko ebakuazio-planaren berri ematen da, beraz, froga moduan aurkeztua izan da. Horrez gain obran zein bulegoan su-itxalgailuak non kokatzen diren adierazten duen planoaren ere garatu da, froga gisa.

Su itxalgailuen planoaren



KDKT03 INGURUMEN-INPAKTUAK OBRAN

Atal honen helburua obra-eremuen kudeaketa ingurumena errespetatuz egitea da, baliabideen erabilerrari, energia-kontsumoari eta kutsadurari dagokienez.

24. Taula. KDKT03 Ingurumen-inpaktuak obran.

PUNTU ESKURAGARRIAK	BETEKIZUN MINIMOAK				
	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
5	0	0	0	0	0

1. Aspektu orokorrak

Kontratatistak pertsona bat edo batzuk izendatu beharko ditu, eraikuntza-prozesu guztietatik eratorritako energiaren, uraren eta garraioaren kontsumoari buruzko datuak gainbegiratu, erregistratu eta jakinarazteko ardura har dezaten, baita beste ingurumen-aspektuei dagozkien zereginen (biodibertsitatea, higadura...) koordinaketa eraman dezaten ere. Izendapen hori *Designación Responsable* izeneko dokumentuaren bitartez egin da.



AMENABAR

Construcciones Amenabar S.A.

P.º de Miramón, 185, Bajo, 20014 Donostia-San Sebastian, Gipuzkoa

www.amenabarconstrucciones.com/

Tlf: 943831100



En Donostia, a 03 de abril de 2022

D. David Pineño, como Jefe de Obra del proyecto **TSH DONOSTIA**

NOMBRE A:

MARTA UGARTE, Técnica del *Departamento de Calidad y Medioambiente* de la empresa CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A., agente CONSTRUCTORA del proyecto presente

CON LAS SIGUIENTES RESPONSABILIDADES:

RESPONSABLE DE LLEVAR A CABO EL REGISTRO DE LOS CONSUMOS DE AGUA, ENERGÍA Y TRANSPORTE, DEFINIR LOS OBJETIVOS ADECUADOS DE CANTIDAD DE RESIDUOS, IMPLANTAR PROCEDIMIENTOS PARA REDUCIR LOS MISMOS Y MONITORIZAR LA GENERACIÓN DE RESIDUOS Y SU CORRECTA GESTIÓN. A SU VEZ, SERÁ RESPONSABLE DE TOMAR LAS ACCIONES NECESARIAS PARA RESPETAR LA BIODIVERSIDAD.

Estas responsabilidades entran dentro del marco del Certificado de Medioambiente BREEAM, y responden a los requisitos impuestos por el mismo.

Este nombramiento se realiza durante la fase de construcción del proyecto e incluye TODAS las fases hasta la finalización del proyecto, incluidas aquellas que se ejecuten una vez haya finalizado la construcción, como puede ser la puesta en marcha de las instalaciones.

Y para que conste a los efectos oportunos firmo la presente,

Responsable:  DAVID PINEÑO, <i>Jefe de Obra</i>	Enterado:  MARTA UGARTE, <i>Dto. De Calidad y Medioambiente</i>
--	--

TSH Donostia

Ref.10934

Calle Hermanos Otamendi 902G, San Sebastián, Gipuzkoa.

- Energía-kontsumoa: eraikuntza-prozesu guztiak gauzatzeko behar diren instalazioen, obra-etxolen eta ekipoen (mugikor eta finkoen) erabileraren ondoriozko energia-kontsumoaren (kWh) datuak gainbegiratu eta erregistratu beharko ditu. Bildutako datuetatik abiatuta, eraikitze-prozesuko energia-kontsumoari buruzko txostenak egin beharko ditu (kWh guztira eta kWh/€100k aurrekontuko) eta karbono dioxidoaren isuriei buruzkoak (kg CO₂^{bal} guztira eta kg CO₂^{bal}/€100k aurrekontuko). Baldintza honekin betez gero, puntu bat eskuratu daiteke.

Datu hauen erregistroa eramateko excel taula bat diseinatu da, non Iberdrolatik iritsitako fakturretan oinarrituz, kontsumitutako energia elektrikoaren erregistroa aurrera eramaten den. Obrarako beharrezkoa den energia elektriko hornitzeko, bi BT hornitze-puntu daude: bata Otamendi Anaiak kalean, zeinak argindarra ematen dion obrari berari (langileen etxolentzako, makineria elektrikorako etab.); eta bestea, bulegoari dagokiona, Bartzelona Etorbidetik. Biak ala biak espediente zein jabe berari dagozkienez, Iberdrolako faktura bateratua da eta ez da

kontsumoen bereizketarik egiten (nahiz eta ondoren fakturan bertan kontagailuen banaketa egin, BREEAMak ez du behartzen kontagailu horien araberako banaketa egitera). Zimentazio fasean, egon badaude ekipo elektrogenoak, BT hornikuntzan arazoren bat egonez gero, edota hornikuntza nahikoa ez izanez gero salbuespenezko hornikuntza-sistema gisa instalatu dira, eta ezinbestekoak izan direnean soilik erabili. Makineria ugariaren eraginez (dumperrak etab.), ekipo elektrogeno hauek dezente erabili dira zimentazio fasean, egitura fasera gerturatu ahala, haien erabilera murriztuz joan delarik, ekainera iristerako jada ekipo elektrogenoak kentzeko erabakia harturik.

25. Taula. Energia kontsumoaren erregistroa.

BREEAM NUEVA
CONSTRUCCIÓN - GST 3

Proyecto: THE STUDENT HOTEL

Superficie construida (m ²)	12.284,36		
Presupuesto (€)	20.149.780,31		

Año	Fecha	Consumo Electricidad (kWh)	Consumo gasoil grupo (l)	Consumo grupos electrógenos (kWh)	Consumo total (kWh)	kWh/€100 k presupuest o de obra	Emisiones CO2 kg	Emisiones CO2 kg/€100k presupuest o de obra
2022	Enero							
	13/01/2022-02/02/2022	544,00			544,00	2,70	180,06	0,89
	10/01/2022-26/01/2022		3.521,00	38.343,69	38.343,69	190,29	12.691,76	62,99
	Febrero							
	02/02/2022-07/02/2022	187,00		-	187,00	0,93	61,90	0,31
	07/02/2022-08/03/2022	1.640,00		-	1.640,00	8,14	542,84	2,69
	03/02/2022-28/03/2023		5.811,00	63.281,79	63.281,79	314,06	20.946,27	103,95
	Marzo							
	08/03/2022-07/04/2022	1.141,00		-	1.141,00	5,66	377,67	1,87
	01/03/2022-31/03/2023	6.434,00		-	6.434,00	31,93	2.129,65	10,57
	02/03/2022-31/03/2024		3.750,00	40.837,50	40.837,50	202,67	13.517,21	67,08
	Abril							
	31/03/2022-30/04/2022	7.078,00		-	7.078,00	35,13	2.342,82	11,63
	Mayo							
	01/05/2022-31/05/2022	821,00	470,00	5.118,30	5.939,30	29,48	1.965,91	9,76
02/05/2022-18/05/2022		470,00	5.118,30	5.118,30	25,40	1.694,16	8,41	
TOTAL		17.845,00	14.022,00	152.699,58	170.544,58	846,38	56.450,26	280,15

Taulan erabilitako konbertsio faktoreak, Aholkulariak ezarritakoak dira.

- Ur-kontsumoa: puntu bat. Instalazioak, obra-etxolak eta eraikuntza-prozesu guztiak gauzatzeko beharrezkoak diren ekipoak (mugikor eta finkoak) erabiltzearen ondoriozko edateko uraren kontsumoari buruzko datuak (m³/€100k aurrekontuko) gainbegiratu eta erregistratu beharko ditu. Bildutako datuak erabilia, guztizko ur-kontsumo garbiari (m³) buruzko txostenak egin beharko ditu, hau da, eraikuntza-lanen benetako kontsumoa ken edozein motatako ur birziklatuaren kontsumoa.

Obra honetan ez da ur birziklatuaren kontsumorik egin, eta ur-horniketa zuzenean Donostiako Urak sare urbanotik egin da. Obrarako uraren hornikuntza J.M. Alkain plazatik bertatik gauzatu da, eta bulegoetakoa, aurretiaz prestatuta zegoen instalakuntzetatik; izan ere, alokatutako lokala, aurretik bulego-eraikina izanik, iturgintza eta saneamendu instalakuntza denak egokiro burututakoan ziren. Hala bada, kasu honetan ere, erregistro-datuak Donostiako Uraketik zuzendutako fakturretatik egin da. Informazio hori ahalik eta gehien xehatzeko asmoz, hilero obrako hornitze-puntuko kontagailuaren erregistroa gorde da, obran bertan kontsumitutakoa bulegoan kontsumitutakotik bereizteko. Hala bada, bi tauletan bildu da informazio hori.

26. Taula. Ur-kontsumoaren erregistroa.

**BREEAM NUEVA CONSTRUCCIÓN -
GST 3**


Impactos en la zona de obra - consumo de Energía - Agua

Proyecto: THE STUDENT HOTEL


Superficie construida (m ²)		12.284,36		
Presupuesto (€)		20.149.780,31		
Año	Periodo	Consumo Agua (m ³)	m ³ /€100k presupuesto de obra	
2021	Diciembre			
	15/12/2021-31/12/2021	434,00		2,15
2022	Enero			
	31/12/2021-27/01/2022	1.225,00		6,08
	Febrero			
	27/01/2022-24/02/2022	1.583,00		7,86
	Marzo			
	24/02/2022-28/03/2022	1.490,00		7,39
	Abril			
	28/03/2022-25/04/2022	1.667,00		8,27
Mayo				
25/04/2022-30/05/2022	1.854,00		9,20	
Junio				
30/05/2022-27/06/2022	643,00		3,19	
TOTAL		8.896,00		44,15

27. Taula. Obrako kontagailuaren irakurketa.

REGISTRO CONTADOR OBRA		LECTURA (m ³)	CONSUMO (m ³)
2022	Abril	5.721,00	
	Mayo	6.729,00	1.008,00
	Junio	7.063,00	334,00



44. Irudia. Obrako kontagailuaren irakurketa.



45. Irudia. Ur kontsumo totala.

- Eraikuntzako materialen eta hondakinen garraioa: materialak jatorriko fabrikatik kokalekuraino garraiatzearen (aurretiazko lanentzako beharrezkoak izan direnak eta paisajismoko materialak barne) eta eraikitze prozesuan sortutako hondakinak haiek deuseztatze, tratatze edota berreskuratze-zentrura eramateko garraioaren datuak gainbegiratu eta erregistratu beharko ditu. Bildutako datuetan oinarriturik, materialetarako eta hondakinetarako txosten independenteak egin beharko ditu erregaiaren guztizko kontsumoari (litroak) eta karbono dioxidoaren guztizko isuriei (CO₂ kg emisio baliokideak) buruz, baita egindako guztizko distantziari (km) buruzkoak ere. Atal honekin betez gero, puntu bat eskuratuko da.

Aurkeztutako ebidentziak: garraioen erregistro-etaulak

Taula hauetan, obrara bertako ekintzek behartuta egindako bidai denak erregistratzen dira, albaran zenbaki, jatorri, egindako kilometro kopuru, bidai kantitate eta erabilitako ibilgailu-motaren arabera.

Taula honen adibidea, ERANSKINA V: GARRAIOEN ERREGISTRO TAULA atalean aurki daiteke, non martxoko garraioen erregistro-etaula atxiki den.

Hondakinen garraioaren (hondakin zein betetze lurrak) kasuan ere berdina egin da. Taula hori eskuragarri dago ERANSKINA V: HONDAKINEN GARRAIOEN ERREGISTRO TAULA atalean.

Kontsumo eta garraioen erregistroa eramateaz gain, proiektuan erabilitako obrako egur guztia legez aprobetxatutako eta merkaturatutako zura dela egiaztatu beharko du, hots, Baso-zur Jasangarria (*Madera Forestal Sostenible, FSC*²⁹) dela. Obrako egurtzat hartzen da eraikuntza-prozesua errazteko erabilia izan den egur oro; besteak beste, enkofratuak, hesiak eta behin-behinean erabilitako gainerako zura. Kontratistak baldintza honekin betetzen dela frogatzen badu, puntu bat emango zaio.

Aurkeztutako ebidentziak: obrara hornitutako zuraren jasangarritasun ziurtagiri

Guzti honekin betetzen dela ziurtatzeko eta ingurugiroarekin erlazionatutako ekintza, eginbehar eta konpromiso denak aurrera eramaten direla egiaztatzeko, akzio-plan bat ezarri behar da, hots, eragiketa nagusiak zuzenduko dituen Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS). IKSak hirugarren batek emandako ziurtagiri bat izan behar du, **UNE-EN ISO 14001**³⁰ arauarekin edo baliokidearekin bat datorrena. Kontratistak, arauak ezarritako betekizunekin bat egiteko, ingurumen-politika bat definitu behar du, eta bertatik abiatuta, egin beharreko jardueren plangintza ezarri, ingurumen-alderdiak eta ingurumen-esparruko lege-eskakizunak identifikatu eta ebaluatzen dituen, ondoren, jarduera horiek kontrolatu eta haietatik ekintza zuzentzaile egokiak sortuz. Horrela, berrikuspen-sistema etengabea ezarritik, etengabeko hobekuntza helburu duen begitza itxi bat sortzen da.

2. Zarata eta bibrazioa

Atal honen helburua zaratak eta bibrazioak tokiko komunitatean duten eragina minimizatuko dituzten ekintzak bideratzea da, horretarako lan-jardunaldi egokiak ezarritik eta obrako jardueren bizilagunengan eragin ditzaketen eragozpenak ahalik eta gehien gutxitzen dituzten estrategiak planteatuz.

²⁹ Forest Stewardship Council zigilua daramaten egur orok, egun Europar Batasunean bildutako marko legalarekin bat datorren bermea du. Marko legal hori, ondorengo akordioek osatzen dute: 2015eko Parisko Akordioa, EBren 2030rako Baso-Estrategia, Egurraren EBren EUTR 2010 Erregelamendua, EBren 2003ko Baso Lege, Gobernantza eta Merkataritza (FLEGT) aplikatzeko Ekintza Plana, Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko 7/21 Lege Nazionala, Mendien Lege Nazionala 2015 eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Lege Nazionala 2015 [49].

³⁰ Espainiako UNE-EN ISO 14001:2004 araua, "Ingurumena kudeatzeko sistemak. Erabiltzeko baldintzak." ISO 14001 nazioarteko arauaren gaztelaniako bertsioa da, eta ingurumen-kudeaketako sistemak bete beharreko baldintzak zehazten ditu [50].

28. Taula. KDKT03 – 1. Zarata eta bibrazioak ataleko frogatze-zerrenda.

Item	Irizpideak	Eskatutako ebidentziak	Eskainitako ebidentziak
a	Jarduera zaratatsuenak planifikatzea, tokiko komunitateari eragozpen gutxien eragiten zaizkion eguneko orduetarako	1. Kontrol operazionala 2. Enpresaren Ingurumen politika	(*)
b	Zarata kontrolatzeko gailuak erabiltzea, adibidez, pantaila akustikoak.	Ez da dokumentu zehatzik eskatzen	Ez da aplikatzen, ez dagoelako zarata maila mugak gainditzen dituen jarduerarik aurrera eramango.
c	Oztopoen eta deflektoreen erabilera inpaktuko eta leherketako jardueretan.	Ez da dokumentu zehatzik eskatzen	Ez da aplikatzen, inpaktu edo leherketako jarduerarik egon ez delako.
d	Komunitatearen bidezko garraioa ez egotea edo gutxienera murriztea.	1. Argazkien txostena 2. Kamioien ibilbidearen planoak	(*)

Aurkeztutako ebidentziak

(*) batez markaturik ageri dira atal honetako ebidentziak, izan ere atal hauek justifikatzeko eskatzen diren agiriak, jadanik Ingurumenarekiko kontzientziarioa atalean aurkeztuak izan dira, beraz ebidentzien bidalketa egiterakoan, Aholkulariari hori bera azaldu zaio.

3. Airearen kalitatea

Atal honen egitekoa, kokalekuan eta tokiko komunitatean hautsa eta airearen bestelako kutsadura prebenitzea da, horretarako hartu behar diren neurriak eta haiek justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa deskribatuz.

29. Taula. KDKT03 – 2. Airearen kalitatea ataleko frogatze-zerrenda.

Item	Irizpideak	Eskatutako ebidentziak	Eskainitako ebidentziak
a	Materialek sortutako hautsa ahalik eta gehien murriztea, estalkiak, biltegiak, kontrol-ekipoak erabiliz edo hezetasun-mailak handituz.	1. Ingurumen jardunbide egokien eskuliburua 2. Argazki txotena	(*)
b	Ibilgailuen mugimenduak sortutako hautsa ahalik eta gehien murriztea ur-espraien bidez (hala badagokio)	1. Ingurumen jardunbide egokien eskuliburua 2. Argazki txotena	1. GST03_2_B_TSH Donostia
c	Kokalekuan materialik ez erretzea.	1. Kartela	(*)

Aurkeztutako ebidentziak

Aurreko atalean gertatzen denaren antzera, atal honetan eskatutako ebidentzia ia denak jada KDKT02 kapituluko 3. Atalean aurkeztuak izan dira, ingurumenarekiko kontzientziarioa atalean hain zuzen ere, non ingurumen aspektu guztiekin zerikusia duten jarraibideak bildu diren; horregatik, hemen ere (*) ikurrak markaturik ageri dira.

Item c azpiatalaren kasuan, aipatu behar da ez dela errekuntzak debekatzen dituen kartel espezifiko bat egin, baizik eta Ingurumen Jardunbide Egokien Eskuliburuan gehitu dela, zeina gune komun guztietan (obran bertan barne) zintzilikatu den.

- **GST03_02_B_TSH Donostia**

Aurretik azaldutako ingurumen jardunbide denak betetzen direla erakustea helburu duen argazkien txotena da berau, hautsaren propagazioa saihestekotan. Hala bada, argazki bilduma honek ondorengoa frogatzen du:

- i. Hautsa sor dezaketen hondakinak tapaki batez estaltzen direla gestore baimenduak eramaterakoan. Eraikuntza prozesuaren fase honetan ez dago hautsa sor dezakeen hondakinik apenas; indusketa lurrak, atera bezain pronto betetze guneetara eramaten dira behar bezala instalita eta hormigoia nahikoa gutxi sortzen da (pilote, pantaila eta antzerakoan pikatze prozesuetatik sorturikoa batik bat).
- ii. Kamioien gurpilak garbitzen direla partzelara materialen deskarga egin eta gunetik irten aurretik. Horretarako, kamioien harreran dagoen langileak mangera bat du bere eskura.

4. Jariatze-uren kudeaketa

Atal honen helburua, ondoriotzat uraren kutsadura ekar dezaketen jarduerak ekiditea da, horretarako arau oso hertsiak ezarriz eta jarraipen eguneratua eginez, obrako jardueren aldaketek, zentzu honetan izan ditzaketen eraginak asko alda baitaitezke obraren fasearen arabera.

30. Taula. KDKT03 – 3. Jariatze-uren kudeaketa ataleko frogatze-zerrenda

Item	Irizpideak	Eskatutako ebidentziak	Eskainitako ebidentziak
a	Drainatze-planoa prestatzea eta erregistroak edo ura sartzeko puntuak seinaleztatzea, arrisku-eremuak nabarmentzeko. Plano hori aldatu egin daiteke lanek aurrera egin ahala.	1. Drainatze planoa	1. Drainatze planoa (*) 2. Saneamendu planoa
b	Posible edo egokia den guztietan, lanak programatzea oso garai euritsuak saihesteko (hau da, urtaro lehorra aprobetxatzea), eta jarduerak aldatzea muturreko euria edo haize bortitzak daudenean.	Ez da dokumentu zehatzik eskatzen	Ez da dokumenturik aurkeztu
c	Malden luzera eta inklinazioa inguratzea eta ahalik eta gehien murriztea.	1. Prozedura	(*)
d	Estalki bat erabiltzea esposizioan dauden eremuak egonkortzeko eta malda edo kanal malkartsuak estaltzeko, adibidez, jutezko esterilla batekin.	1. Prozedura	1. GST03_4_D_TSH Donostia
e	Landaredia lehenbailehen lehengoratztea.	Ez da dokumentu zehatzik eskatzen	Ez da lan honetan aztergai (eraikuntza-osteko faseari dagokio).
f	Obratik kanpo jalkinak garraiatzea murriztea edo debekatzea, jalkitze-putzuak, sedimentuetarako hesiak edo ura tratatzeko sistemak ezarriz.	1. Argazki txostena	(*)
g	Ur garbiaren jariatze-urak bereiztea edo desbideratzea, solido asko duten beste ur batzuekin nahas ez daitezen (horrela, tratatu beharreko ur kantitatea ahalik eta txikiena izango da).	1. Argazki txostena 2. Prozedura	(*)
h	Iragazketak minimizatzeke eta kontrolatzeko drainatze-sistema egokiak ezartzea.	1. Argazkien txostena	1. GST03_4_G_TSH Donostia
i	Kutsagarria izan daitekeen edozein jarduera egitea izendatutako eta behar bezala isolatutako eremuetan, ibaietatik, putzuetatik edo beste edozein ur-ibilguetatik urrun.	1. Ingurumen jardunbide egokien eskuliburua 2. Enpresaren ingurumen politika 3. SGA	(*)

Aurkeztutako ebidentziak

Aurreko bi ataletan gertatzen den modura, atal honetan ere ebidentziatako asko KDKT02 atalean aurkeztuak izan dira (*), ingurumen aspektu denak dokumentu beretan biltzearen ondorio

(Aholkulariak hala eskatuta). Badira, hala ere, pare bat argazki txosten, non dokumentu horietan adierazitakoa betetzen dela frogatzen den.

○ **GST03_4_D_TSH Donostia**

Indusketaren ondorioz malda handiegiak geratu direnean (indusketa eremuaren ertzetan adibidez, oraindik egitura fasea hastear egonda) eta oraindik ezponda egokia egiteke egonda, lurra plastiko batez estali da, lurrari eusten laguntzeko, eta euria egitekotan, partzelaren behealdera (eta ondorioz gero saneamendu sarera) lur partikulak joatea saihesteko. Metodologia hau noski, irtenbide iragankorra izan da, eta obrako jarduerak baimendu dutenean, behar bezalako ezponda antolatu da. Txosten honetan, metodologia hori pausoz pauso erakusten duten argazkiak gehitu dira.

○ **GST03_4_G_TSH Donostia**

Euri asko egiteko aurreikuspena egon den egunetan, partzela inguruko kainu-zuloak geotextilaz estali dira, partikulak haietan barrena joan daitezzen saihesteko. Txosten honetan geotextil horren instalakuntza nola egin den adierazten da argazki bitartez, baita osteko kainu-zuloen garbiketa ere.

5. Material arriskutsuak

Sekzio honen egitekoa, obran erabil daitezkeen material arriskutsuek (erregaiak, olioak, spray-ak...) bertoko ur-ibilguak kutsatzea saihestea da, arrisku hori minimizatzeko irizpideak ezarriz.

31. Taula. KDKT03 – 4. Material arriskutsuak ataleko frogatze-zerrenda

Item	Irizpideak	Eskatutako ebidentziak	Eskainitako ebidentziak
a	Bigarren mailako euste-sistema egoki bat ezartzea erregaia biltegitatzeko andeletan eta beste likido batzuk aldi baterako biltegitatzean, hala nola lubrifikazio-olioak edo fluido hidraulikoak.	1. Deposituaren argazkiak	1. KDKT03_4_TSH Donostia
b	Langileak prestatzea erregaiak eta produktu kimikoak behar bezala lekualdatzeari eta manipulatzeari buruz, isurketarik gertatuz gero jarduteko protokoloekin.	1. Langileen ingurumen formakuntza	(*)
c	Erregaiak biltzeko eremuetan eta fluidoak lekualdatzeko gainerako eremuetan gainazal iragazgaitzak erabiltzea.	1. Kubetoaren argazkia	1. KDKT03_4_TSH Donostia
d	Isurketei eusteko eta horiek garbitzeko ekipo eramangarriak kokalekuaren barruan ezartzea, eta langileei horiek erabiltzeko prestakuntza ematea.	1. Argazkien txostena	1. KDKT03_4_TSH Donostia
e	Osasun-instalazioak ezartzea langile guztien eskura	1. Instalakuntzen argazkiak	1. KDKT02 ataleko 4. Sekzioan aurkeztua

Eskainitako txostenen edukia

○ **KDKT03_4_TSH Donostia**

Txosten honetan, material arriskutsuen kudeaketa eta manipulazioarekin erlazionaturiko aspektu denak bildu dira (fase honetan aplikaziozkoak direnak), arriskuaren identifikazioa eta haien aurreko portaera jarraibideak ezarri ere, jada KDKT02 atalean ezarritakoa gogoraraziz. Honen bitartez, isuriak gertatzeko aukerak murrizteko zehaztutakoa betetzen dela frogatzen duten argazkiak bildu dira:

- i. Erregai-andelek, ezingo dute inolaz ere irekidurarik izan haien goialdean.

- ii. Behealdean, altzairuzko kubeto bat izango dute, izan daitezkeen isuriak lurrera joan ez daitezzen.
- iii. Erregai-andelak, bai eta bera manipulatzeko gehigarriak ere (mangera eta bestelakoak) beti obrako kontainer / almazenean gordeko dira, eta haien erabilera han bertan egingo da.
- iv. Bertan, sepiolita zaku bat egongo da, egon daitezkeen isuriak tratatzeko. Inolaz ere, ez da erregaiez zikindutako lurra berriz ere gainontzeko lurrarekin nahastuko.
- v. Erregaiarekin kontaktuan egondako elementu oro, puntu garbira bideratuko da.

KDKT04 ALDERDI INTERESDUNEN PARTE-HARTZEA

KDKT01 atalean gertatzen zen moduan, atal honen ebaluazioa bai diseinu fasean (DF) edota eraikuntza osteko fasean (EOF) burutzen da, eta kasu honetan, proiektuko Project Manager funtzioa duen agenteak justifikatu beharrekoa da; proiektu honetan, *Bovis Project Management*, eraikuntzan espezializaturiko kudeaketa enpresak. Hori dela eta, atal honen analisia ez da dokumentu honetan aztertuko.

KDKT05 BIZI-ZIKLOAREN KOSTUA ETA BIZITZA BALIAGARRIA

Aurreko atalaren antzera, atal honen ebaluazioa batez ere diseinu fasean (DF) burutzen da, Aurreproiektuan, Oinarrizko Proiektuan eta Exekuzio-Proiektuan, eta beraz, proiektu horiek idazten dituen agentearen erantzukizuna da atal honetan ezarritako baldintzekin betetzea, kasu honetan, *JG Ingenieros S.A.* enpresarena. Horregatik, atal honen analisia ez da dokumentu honetan aztertuko.

OSASUNA ETA ONGIZATEA

BREEAM ES ziurtagiriaren atal honen funts nagusia, CTEko Oinarrizko Dokumentuetan bildutakoa betetzen dela ziurtatzea da, osasungarritasunari, efizientzia energetikoari eta soinuaren aurkako babesari dagokionean. Legeriaren betekizunaren justifikazio hori noski, arkitektoari dagokio eta ez da inolaz ere kontratistaren erantzukizuna; bai ordea, arkitektoak ezarritako eskakizun horiekin betetzen dela ziurtatzea exekuzio fasean (batez ere aldaketaren bat proposatzen denean). Horrela bada, CTE-DB-HS³¹, CTE-DB-HR³², CTE-DB-HE³³ eta CTE-DB-SUA³⁴ arauetan bildutako eskakizunak, zortzi azpiataletan banatzen dira:

³¹ Osasungarritasunari erlazionaturako arauak biltzen dituen Eraikuntzaren Kode Teknikoko Oinarrizko Dokumentua. Eraikinetako barneko airearen kalitatea, hondakinen kudeaketa, hezetasunaren aurreko babesa... bezalako kontzeptuekin erlazionaturako arautegia ezartzen du.

³² Soinuaren aurkako babesarekin erlazionaturako arauak biltzen dituen Eraikuntzaren Kode Teknikoko Oinarrizko Dokumentua.

³³ Energia aurreztearekin erlazionaturako arauak biltzen dituen Eraikuntzaren Kode Teknikoko Oinarrizko Dokumentuak, energia-kontsumoa eta konfort termikoaren inguruko mugak definitzen ditu.

³⁴ Erabilera-segurtasun eta irisgarritasunarekin erlazionaturako arauak biltzen dituen Eraikuntzaren Kode Teknikoko Oinarrizko Dokumentua.

OO01 KONFORT BISUALA

Atal honetan, argiztapenarekin lotutako eskakizunak biltzen dira: argiztapen naturala, artifiziala, luminarien ezaugarriak, luminantzia minimoak guneko etab. Helburua, eraikineko okupatzaileek argiztapen naturalerako eta artifizialerako sarbidea izango dutela bermatzea da, bai eta kontrol-gailuak ere, efizientzia eta konfort bisualeko jardunbide onenak bermatzeko. Atal honetan bete beharreko baldintzak, *CTE-DB-HE 3 Argiztapen-instalazioen eraginkortasun energetikoa* Oinarrizko Dokumentutik eratorritakoak dira.

OO02 BARNEKO AIREAREN KALITATEA

CTE-DB-HS 3 Barneko airearen kalitatea Oinarrizko Dokumentuak ezarritako baldintzak betetzeko asmoz ezarritako azpiatala da. Barneko ingurune osasungarria ezagutzea eta sustatzea du helburu, aireztapen-sistema, ekipo eta akabera egokiak zehatzuz eta instalatuz, hori lortzeko, airearen kutsadura-iturriak ahalik eta gehien minimizatzeko estrategiak hartuz.

OO03 KONFORT TERMIKOA

OO01 KONFORT BISUALA atalaren antzera, hemen ere eraginkortasun energetikoarekin erlazionatutako Oinarrizko Dokumentuan ezarritako arauak betearazten dira, baina kasu honetan, *CTE-DB-HE 2 Instalazio termikoen errendimendua* atalean bildutakoak. Diseinuaren bidez, erosotasun termikoaren maila egokiak lortzen direla bermatu behar da, baita eraikinaren okupatzaileentzako ingurune termiko eroso mantentzeko beharrezkoak diren kontrol-gailuak hautatzen direla ere.

OO04 URAREN KALITATEA

Atal honen funtsa, instalazioetan ura kutsatzeko arriskua minimizatzea eta eraikineko erabiltzaileak ur-iturri garbi eta freskoekin hornitzen direla bermatzea da. Horretarako, *CTE-DB-HS 4 Ur-hornidura* araudian bildutako eskakizunekin bete behar da.

OO05 ERAGINKORTASUN AKUSTIKOA

Eraikinak *CTE-DB-HR Zarataren aurkako babesa* Oinarrizko Dokumentuan azaldutako betekizunak bete ditzan jarraibideak ezartzea da atal honen eginkizuna, eraginkortasun akustikoak, isolamendu akustikoa barne, bere helbururako estandar egokiak betetzen dituela bermatuz.

OO06 SARBIDE SEGURUA

CTE-DB-SUA 9 Irisgarritasuna arautegiari jarraiki, diseinu-neurri eraginkorrak onartzea eta sustatzea, kanpotik eraikinaren barrualdera eta alderantziz sarbide segurua eta arrisku txikikoa sustatzea da atal honen jomuga nagusia.

OO07 ARRISKU NATURALAK

Mehatxu naturalek eraikinean izan ditzaketen eragina murriztu edo deuseztatzeko hartu beharreko neurriak biltzen dira bertan. Demagun, esaterako, eurite handien eraginpean, eraikinean uholdeak ekiditeko diseinu eraginkorra bermatzea.

0008 PISTINETAKO URAREN TRATAMENDU JASANGARRIA

Igerilekuetako uraren tratamendu jasangarria sustatzea da atal honen helburua, kloroaren alternatibak aztertuz, betiere erabiltzaileentzat kaltegarriak diren produktuen erabilera murrizteko. Kasu honetan bete beharreko arautegia *irailaren 27ko 742/2013 Errege Dekretua* da [51], non igerilekuen irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen diren.

Azpiatal hauetako bakoitzeko deskribapenetik ondoriozta daitekeenez, haien betekizunaren bermatzea DF edota EOF faseei dagokio, eta beraz, ez dira dokumentu honetan aztergai izango. Badira ordea, OO atalari dagozkion hainbat betebeharrak kontratista printzipalak frogatu beharrekoak, bere osotasunean, EFan, langileen ongizateari dagozkienak. Irizpide hauek ordea, atal honetan ebaluatu beharrean, KDKT02 ataleko 4 puntuak ebaluatzen dira.

ENERGIA

Orain arte ikusi dugun moduan, BREEAM ziurtagiriaren ildo gidaria eraikin tradizionalak atzean uzteko neurriak biltzea da, arkitektura jasangarrian oinarritutako eraikinei bide emateko, energia-eraginkortasuna izanik kontzeptu berri horren oinarri nagusia. Energetikoki eraginkorra den eraikin batek energia konbentzionalen erabilera minimizatzen du, bereziki energia berriztaezinena, hauek aurrezteko eta zentzuz erabiltzeko. Atal honetan, aldaketa hori agerikoa izan dadin hartu beharreko neurriak biltzen dira.

Neurri horiek, bitan bana daitezke: alde batetik, DF dagozkien betekizunak daude, Energia sekzioko lehen 7 atalak hain zuzen ere, zeinetan instalakuntzen diseinuan eraginkortasun energetikoarekin erlazonaturiko aspektu denak aintzakotzat hartzen direla bermatzen den; bestetik, sistema horien kontratazioan, DF ezarritako baldintzekin betetzen dela ziurtatzen da ENE08 ENERGETIKOKI ERAGINKORRAK DIREN EKIPOAK atalean. Azken atal hau, kontratista printzipalaren erantzukizuna da.

ENE01 EFIZIENTZIA ENERGETIKOA

Atal honen helburua energia-kontsumo operatiboa minimizatzen duten eraikinak balioztatzea eta bultzatzea da, diseinu egoki baten bidez.

ENE02 MONITORIZAZIO ENERGETIKOA

Beharrezkoa izango da energia-kontsumo operatiboaren monitorizazioa ezagutzea eta sustatzea kontagailu osagarrien bidez; hots instalakuntza-mota bakoitzerako, kontagailu-sistema independente bat beharko da izan: kalefakzioa, ur bero sanitarioa, haizagailuak etab.

ENE03 KANPO-ARGIZTAPENA

Eraikuntzaren kanpoko eremuetan energetikoki eraginkorrak diren luminarien instalazioa bultzatzea. Kasu honetan, eraikina inguratzen duen plazaren urbanizazioa, aparteko proiektu bati dagokio (behin eraikinarekin amaitutakoan abian jarriko dena), eta kanpo luminaria denak, proiektu horren baitan doaz. Beraz, atal hau ez da proiektu honetan aztergai.

ENE04 KARBONO-ISURI BAXUKO EDO ZERO ISURIKO TEKNOLOGIAK

Iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren tokiko erabilera egokia ezagutzea eta sustatzea izango da atal honetako zeregin nagusia.

ENE05 ENERGETIKOKI ERAGINKORRA DEN HOTZ-KONTSERBAZIOA

Energetikoki eraginkorrak diren hotz-kontserbazioko sistemen instalazioa sustatzea beharrezkoa izango da atal honetako irizpideekin betetzeko, sistema horiek energia erabiltzetik eratorritako berotegi-efektuko gasen emisio operatiboak murrizten dituztela frogatzeko.

ENE06 ENERGETIKOKI ERAGINKORRAK DIREN GARRAIO-SISTEMAK

Eraikin barruko garraio sistemak (igogailuak, eskailera mekanikoak, korridore ibiltariak...) merkatuan dauden aukeretatik, ahalik eta energetikoki eraginkorrenak direla frogatu beharko da.

ENE07 ENERGETIKOKI ERAGINKORRAK DIREN LABORATEGIAK

Kasu honetan proiektuan laborategirik aurreikusten ez denez, azpiatal hau ez da aplikagarria.

ENE08 ENERGETIKOKI ERAGINKORRAK DIREN EKIPOAK

Energetikoki eraginkorrak diren ekipoen kontratazioa aitortzea eta sustatzea da atal honen helburua.

32.Taula. ENE08 Energetikoki eraginkorrak diren ekipook.

PUNTU ESKURAGARRIAK	BETEKIZUN MINIMOAK				
	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
2	0	0	0	0	0

Aurretik aipatu moduan, benetan obran instalatuko diren sistemek betebeharrak energetikoekin betetzen dutela ziurtatzea, kontratistaren erantzukizuna da. Gainera, maiz gertatu ohi den moduan, kontratazio-prozesuan, arrazoi ekonomikoak eta hornikuntza-arazoak direla medio, proiektuan ezarritakoarekiko hainbat aldaketa suertatu ohi dira; kontratistaren betebeharrak izango da, aldaera horiek eraginkortasun energetikoan eragin negatiborik ez dutela bermatzea. Kontratistaren eginbeharrak izango da, baita ere, behin instalakuntza prozesua amaiturikoan, instalakuntzen martxa jartzean, instalatutako ekipoei aurretik ezarritako baremo energetikoekin betetzen dutela frogatzea. Hala ere, azken puntu hau EOFri dagokio eta beraz, ez da dokumentu honetan aztertuko.

GARRAIOA

Atal honek, bereziki kokalekuaren hautaketarekin erlazionatutako irizpideak biltzen ditu. Bere baita hartzen ditu eraikinaren erabiltzaileek mugikortasunaren esparruan izango dituzten baliabideen analisia, hots, karbono emisio baxuko garraiobideak bultzatzea, hala nola bizikleta bidezko mugikortasuna edota garraiobide publikoen erabilera. Hori hala dela ziurtatzeko, eraikina konexio

urbano egokiak dituen kokaleku batean ezarri beharko da. Mugikortasun jasangarria bultzatzeko helburu horrekin, eraikina garraiobidea horietara egokitua beharko da izan eta bizikletentzako, ibilgailu elektrikoetarako eta abarrerako, instalakuntza eta aparkaleku egokiak izan beharko ditu. Ikus daitekeenez, atal honek bere osotasunean, ez du zerikusirik eraikuntza fasearekin, eta ondorioz, ez da dokumentu honetan aztertua izango.

URA

Orain arteko joerari jarraiki, kapitulu honen ikusmira nagusia ere efizientzia energetikoa da, proiektuaren egikaritze unetik definiturik datorrena ingurugiro-baldintzetan oinarriturik. Bada, hala ere, zeresanik atal honetan proiektuko kontratista nagusiarentzako; izan ere, agente honen erantzukizuna izango da betiere, ur-instalakuntzetarako kontraturiko ekipoei proiektuan ezarritako gutxieneko ezaugarri energetikoekin betetzen dutela ziurtatzea. Sekzio hau 4 azpiataletan banatzen da, zeinetako bakoitzean, kontratistaren eginbeharra zein den azalduko den.

URA01 UR-KONTSUMOA

Atal honen helburu nagusia, ureztatzeko eta edateko uraren kontsumoa murriztea da, eraginkortasun hidrikoko aparatuak eta ura birziklatzeko sistemak txertatuz.

33. Taula. URA01 Ur-kontsumoa.

PUNTO ESKURAGARRIAK	BETEKIZUN MINIMOAK				
	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
5	0	0	1	2	3

Puntu eskuragarri horiek lortzeko, bi baldintza frogatu behar dira:

1. Aparatu sanitarioen efizientzia hidrikoa

- Aparatu sanitarioen efizientzia hidrikoa azterketa burutu da. Atal hau proiektugileari dagokio, eta beraz, ez da dokumentu honetan aztertuko. Aitzitik, kontratazio prozesuan, proiektuan ezarritako marka/modelo desberdinen baten kontratazioa burutzen bada, arrazoi ekonomiko-teknikoak direla medio, aparatu sanitario horiek efizientzia hidrikoa justifikatu beharko da fitxa teknikoen bitartez, baita instalakuntzaren martxa jartzea egiten denean ere, legalizazio prozesuan lortutako emaitzen bitartez ere. Lortutako kalkulu emaitzak BREEAMak ezarritako BREEAM ES URA01 KALKULAGAILUA erremintak ezarritako erreferentzia balioekin balioztatuz beharko dira.
- Efizientzia hidriko deritzo helburu jakin baterako behar den ur kantitatea eta erabilitako edo hornitutako ur kopurua neurturik, helburu horretarako ur-galera murrizteari. Uraren efizientziaren eta uraren kontserbazioaren arteko aldea da, efizientzia hidrikoa hondakinak murriztean oinarritzen dela, eta ez erabilera mugatzean. Ura eraginkorra izan dadin, erabilitako edateko uraren kantitatea murriztu behar da, baina baita edateko txarra den uraren erabilera murriztea ere, egokia denean (ureztatze ura, aparatu sanitarioetako,

etab.). Era berean, azpimarratu egiten du kontsumitzaileek uraren eraginkortasunean izan dezaketen eragina, uraren alferrik galtzea murrizteko portaera-aldaketa txikiak egitean eta produktu eraginkorragoak hautatzean [52].

- Efizientzia energetikoa kalkulatzeko, aintzako hartu behar dira ondorengo elementuak:
 - i. Komunak
 - ii. Pixalekuak
 - iii. Txorrotak (konketa eta, zehaztu direnean, sukaldeko txorrotak, hondakinak ezabatzeko unitateak)
 - iv. Dutzak
 - v. Bainuontziak
 - vi. Ontzi-garbigailua (etxekoa eta komertziala)
 - vii. Garbigailuak (etxekoa eta komertziala/industrialak)

2. Ur grisen eta euri-uren sistemak

- Ur grisen edo euri-uren sistema bat zehaztu denean, ur-bilketa erabiliko da tresna sanitarioen eta ureztatzeko gailuen edateko txarra den uraren eskaria konpentsatzeko. Atal hau DF-tik ezarrita dagoen puntua denez, ez da dokumentu honetan aztertuko.
- Uraren guztizko kontsumo garbiaren berri eman beharko da, litroko, pertsonako eta urteko. Atal hau EOF-ri dagokio, baina atal honen eraikuntza faseko baliokidea KDKT03 INGURUMEN-INPAKTUAK OBRAN_ataleko kontsumo-taulen bidez aztertzen da.

URA02 UR-KONTSUMOAREN MONITORIZAZIOA

Ur-kontsumoa monitorizatu eta kudeatu ahal izatea bermatzea da atal honen jomuga nagusia, hala, ur-kontsumoaren murriztea sustatzeko.

34. Taula. URA02 Ur-kontsumoaren monitorizazioa.

PUNTU ESKURAGARRIAK	BETEKIZUN MINIMOAK				
	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
1	0	1 Irizpidea	1 Irizpidea	1 Irizpidea	1 Irizpidea

Puntu eskuragarri hori eskuratzeko, **1 Irizpidea** frogatu behar da, kasu honetan, modu honetara deskribatzen dena: eraikin bakoitzaren hornidura-sare nagusian ur-kontagailu adimendun baten zehatzapena; hori aplikagarria da, halaber, ura putzu edo iturri pribatu baten bidez hornitzen den kasuetan. Kontagailu honen instalakuntza burutzen dela frogatzeko, kontratista printzipalak haren instalakuntza frogatu beharko du argazkien bitartez eta behin, instalakuntza martxan jartzean, haren funtzionamendua egokia dela frogatu. Bitartean, instalatutako kontagailu bakarra, obrarako ur-hornikuntzaren hartze-puntuaren ezarritakoa da; hilabete amaiera bakoitzean, argazki bat atera zaio

kontsumoaren erregistroa eramateko eta KDKT03 INGURUMEN-INPAKTUAK OBRAN atalean, uraren kontsumo erregistroekin batera aurkeztu dira ebidentzia modura.

URA03 UR-IHESEN DETEKZIO ETA AURREIKUSTEA

Atal honen bitartez, ur-instalakuntzak behar bezala funtzionatzen duela eta horrenbestez, ur-ihesik ez dagoela erakutsi nahi da. Ondoriozta daitekeenez, atal hau EOF-ri dagokio bere osotasunean; instalakuntzaren martxan jartzean hasi eta mantenu fasean zehar luzatzen dena. Honen ardura beraz, instalatzailearena izango da, eta horregatik, ez da dokumentu honetan aztertuko. Kontratataren eginkizun nagusia, lanen gainbegiratzea izango da.

URA04 UR-KONTSUMOAN ERAGINKORRAK DIREN EKIPOAK

Atal hau URA01 UR-KONTSUMOA atalaren baliokidea da, baina kasu honetan, eraikin batean egon daitezkeen aparatu sanitario edo erabilera domestikoko aparatuen efizientziaren inguruan aritu ordez, bestelako ekipoei egiten die erreferentzia, besteak beste, kanpo-ureztatze sistemak edota autoak garbitzeko sistemak. Mota hauetako instalakuntzarik ez dagoenez proiektuan, atal hau ez da dokumentu honetan aztergai izango.

MATERIALAK

MAT01 MATERIALEN BIZI-ZIKLOAREN INPAKTUA

35. Taula. MAT01 Materialen bizi-zikloaren inpaktua..

PUNTU ESKURAGARRIAK	BETEKIZUN MINIMOAK				
	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
1	0	0	0	0	0

Atal honen helburua bizi-zikloa aztertzeko tresna sendo eta egokien erabilera ezagutzea eta bultzatzea da, eta, ondorioz, eraikinaren bizi-ziklo osoan zehar ingurumen-inpaktu txikia (karbonoari dagokionez ere bai) duten eraikuntza-materialak zehaztea. Hori horrela dela ziurtatzeko, kontratataren zeregina izango da eraikuntza prozesuan erabiltzen diren material guztien kontsumoaren erregistroa eramatea. Taula hauetatik abiatuz, eraikuntza fasea amaitzerakoan, BREEAM aholkularien zeregina izango da eraikinaren bizi-zikloa eta ingurumen inpaktua kalkulatzeko, BREEAM kalkulagailua erabiliz.

Materialen kontsumoaren erregistroak honako datu hauek bildu beharko ditu:

- Erabilitako kantitateak, unitateekin.
- Kokalekuan bertan baztertutako unitateak, unitateekin.
- Ordezkatutako, berrerabilitako eta konpondutako kantitateak, unitateekin.
- Berrerabilitako, birziklatutako eta zabortegira bidalitako kantitateak, unitateekin.

36. Taulan kontsumoen erregistroa eraman beharreko materialen kategoriak eta aplikazio adibideak ageri dira. Material hauen kontsumoa CONSUMO MATERIALES.xlsx dokumentuan bildu dira; kontuan izanik dokumentu honek zimentazio fasean oinarritzen dela batez ere, material horiek hormigoia, burdina (barra korrugatuak batez ere, pilote eta pantailen armatuak egiteko erabiliak) eta balastoa izan dira. Taula hau aurretik erakutsitakoen (garraioen erregistroa, kontsumoak..) berdina da. Horregatik ez da beharrezkoa kontsideratu hura ere atxikitzea. Besteetako metodologia bera jarraituz, aintzakotzat hartu beharreko elementuak honakoak dira:

- **TRAZABILITATEA:** dokumentuen jarraipena egitea ahalbideratu behar du taulak, beraz, izendapen bera eduki beharko dute albaranek bai eskaintako karpetan bai taulako erregistroan.
- **KANTITATEEK BAT EGIN BEHAR DUTE:** hots, albaranen karpetan bost dokumentu gordeta baldin badaude, taulan bost dokumentuk agertu beharko dute, ez gehiagok ez gutxiagok.
- **ALBARANAK HILABETEKA BILDURA EGON BEHAR DUTE:** hau da, taulako informazio dena, material mota eta hilabeteka bananduta egon behar du.

36. Taula. MAT01 Materialen kontsumoaren erregistroa.

KATEGORIA	PRODUKTU ADIBIDEAK
1. Zeramika	Adreiluak, baldosak, teilak...
2. Hormigoia	Hormigoia aurrefabrikatua, blokeak, morteroa...
3. Beira	Beira opakatua, leihoak...
4. Plastikoak eta kautxua	EPDM ³⁵ , PVC...
5. Metalak	Altzairua, aluminioa...
6. Harriak	Harri naturala, arbela baldosetan, plakak, plaketak...
7. Zura eta zurezko konposatuak	Zur ijeltua, kontratxapatuak, txirbil orientatukoak, dentsitate ertainekoak, zementuarekin aglomeratutako partikulazko taulak...
8. Igeltsua eta eskaiola	Zarpiatuak, igeltsu hidrofugoak...
9. Isolamenduak	Arroka-artilea, beira-artilea...

Gutxienez taulako kategorien % 30ean (erabiltzen direnen artean) zehaztu dira Produktuaren Ingurumen Aitorpenak (PIA) dituzten produktuak, eta kategoria bakoitzeko produktuen % 80 gutxienez (bolumenean) PIAaren baitan izendatua izan behar da.

MAT02 MATERIALEN HORNIKUNTZA ARDURATSUA

Atal honen bitartez eraikuntzako elementu nagusietarako materialak modu arduratsuan hornitu direnaren zehaztapena ezagutu eta bultzatu nahi da.

37. Taula. MAT02 Materialen hornikuntza arduratsua.

³⁵ Estalkia iragazkortzeko sistema integrala da, EPDM (Etileno Propileno Dieno) laminaz osatua.

PUNTO ESKURAGARRIAK	BETEKIZUN MINIMOAK				
	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
3	0	0	0	0	1 Irizpidea

Atal honen frogapena bi irizpideren bitartez lortzen da:

Aurrebaldintza

- Proiektuan erabilitako egur guztia «legez aprobetxatutako eta merkaturatutako egurra» dela erakustea, hau da, FSC ziurtagiria duela frogatu beharko da. Horretarako, obrara zuzenean egurra hornitzen duten enpresei, zein beraien lanetarako osagai lagungarri moduan zura erabiltzen duten enpresei, ziurtagiria eskatu beharko zaie, froga moduan aurkezteko.

Hornikuntza arduratsua

- Eraikuntzako elementu nagusien zati gisa zehaztutako material aplikagarri bakoitzari hornikuntza arduratsuaren ziurtagiri-maila bat esleitu zaio. Hori horrela dela frogatu ahal izateko, hornitzaile denek indarrean dagoen araudiaren araberako ziurtagiria eskatuko zaio, eta BREEAM ziurtagiriarentzako ebidentzia moduan atxikirik bidaltzeko.
- Hainbat materialen kasuan, kalitatea bermatzeko ez da nahikoa hornitzaileek aurkeztutako ziurtagiriekin, eta eraikuntza prozesuan zehar kalitate-proba ezberdinak egin beharko dira, hormigoia kasu. Proba hauek beharrezkoak diren kasuetan, kontratistaren ardura izango da kalitatea bermatzeko beharrezkoak diren adina probeta ateratzea, eta haiek laborategi kualifikatu batera eramatea, ondoren emaitzen jarraipena egiteko. Emaitza hauek berak ere, froga gisa atxiki beharko dira BREEAM ziurtagiria lortzeko.

MAT03 ISOLAMENDUA

Haren hornikuntza arduraz egin den isolamendu termikoen erabilera sustatzea da atal honen zeregin nagusia.

38. Taula. MAT03 Isolamendua.

PUNTO ESKURAGARRIAK	BETEKIZUN MINIMOAK				
	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
1	0	0	0	0	0

Atal honetan eskuragarri dagoen puntua lortu ahal izateko, gutxienez eraikineko eraikuntza elementu bakoitzean erabilitako isolamenduaren % 80ak (bolumenean) berau modu arduratsuan hornitua izan dela frogatu beharko da, horretarako, mota bakoitzeko ziurtagiriak aurkeztuz. Ebaluatu beharreko isolamendu termikoak, ondorengo eraikuntza elementuetan erabiliak izan direnak dira:

- Fatxada
- Beheko solairuko lauza edo forjatua
- Estalkia

- Instalakuntzak
- Partizioak espazio klimatizatuekin

Nahiz eta atal hau kontratistaren ardura izan, proiektuak iraun duen bitartean ez da isolamendu termikorik instalatu (ez kontratatu) obran, eta ondorioz, ezin izan da atal honetan ebidentziarik aurkeztu.

MAT04 INPAKTUEN KONTRAKO BABESERA ZUZENDURIKO DISEINUA

Atal hau bere osotasunean DF-ri dagokio, eta beraz, ez da dokumentu honetan aztertua izango.

HONDAKINAK

Sektore hau Kudeaketarekin batera, garrantzitsuenetariko bat da dokumentu honetan, haren zeregina obra-fasean ahalik eta hondakin gutxien sortzea, eta eraikinak ustiapen-fasean kudeatzeko prestatzea baita.

HOND01 ERAIKUNTZAKO HONDAKINEN KUDEAKETA

Baliabideen eraginkortasuna sustatzea da atal honen egitekoa, eraikuntzako hondakinen kudeaketa eraginkor eta egokiaren bidez.

39. Taula. HOND01 Eraikuntzako hondakinen kudeaketa.

PUNTO ESKURAGARRIAK	BETEKIZUN MINIMOAK				
	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
3	0	0	0	0	1

Eskuragarri dauden puntuak lortu ahal izateko, irizpideak bitan banatzen dira.

1. Eraikuntzako baliabideen eraginkortasuna

Ondorengo baldintza hauekin betez gero, eskuragarri dauden hiru puntuetatik bi eskura daitezke.

- Kokalekuan sortutako hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen kantitaterako helburu egokiak definitu dira, eta 100 m²-ko (kokalekuko) hondakinak m³-tan edo 100 m²-ko (kokalekuko) hondakin-tonatan adierazten dira.
- Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak ahalik eta gehien murrizteko helburuekin bat datozen prozedurak ezarri dira.
- Kokalekuan sortutako eraikuntzako hondakinen kopurua monitorizatzen da, eta helburuak maiz berrikusten dira.
- Hondakinak Kudeatzeko Plana idazteko eta gauzatzeko arduradunak/obraren kudeatzaileak aurreko irizpideak ezartzeaz arduratuko den pertsona bat izendatu du.

- Bildutako datuetatik abiatuta, 100 m²-ko (azalera eraikia) edo m³-ko (hondakin errealen bolumena denean, ez itxurazko bolumena) sortutako hondakinen kopurua edo eraikuntza-prozesutik eratorritako tonak dokumentatzen dira.
- Eraikuntzako hondakinak sailkatzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko prozedurak ezarri dira, indarrean dagoen legedian identifikatutako hondakinenak gutxienez, kanpoko hondakin-kudeatzaile baimendu baten bidez.

2. Baliabideak zabortegira bideratzea

Atal honetan eskuragarri dagoen beste puntua lortu ahal izateko, honako baldintza hauekin bete beharko da.

- Proiektuan sortutako eraispen-hondakinen (balegoke) eta eraikuntza-hondakin ez-arriskutsuen kopuru esanguratsu bat zabortegitik desbideratu da, jarraian erakusten den 40. Taulan jasotako zifren arabera.

40. Taula. Zabortegietatik desbideratzeen BREEAM ES helburuak, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak berreskuratze-tasa nazionalaren arabera.

TASA NAZIONALA	BREEAM ZIURTAGIRIAK EZARRITAKO TASA
Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen berreskuratze-tasa nazionala (pisuan) % 70ekoa	\geq % 10 hobekuntza aurkeztu behar da tasa nazionalarekiko, hots % 80ko berreskuratze-tasa (pisuan)

- Hondakin-materialak hondakin independenteen multzotan sailkatu beharko dira, berreskuratze-kudeatzaile baimendu baten bidez.
- Bildutako informaziotik abiatuta, ondorengo analisiak burutu beharko dira:
 - Kokalekutik erretiratutako hondakin ez-arriskutsuen helmuga (hau da, instalazioa eta helbidea).
 - Zabortegitik desbideratutako hondakin-maila, sortutako guztizkoaren ehuneko gisa adierazita; hondakin m³-ak eraikitako 100 m²-ko, edota hondakin-tonak, eraikitako 100 m²-ko. Zabortegiaren edozein desbideratzek barne hartzen ditu:
 - a) Materiala kokalkuan berrerabiltzea (in situ edo aplikazio berrietan).
 - b) Materiala beste leku batzuetan berrerabiltzea.
 - c) Materiala berreskuratzea edo berreskuratzea, berrerabiltzeko.
 - d) Materiala hornitzaileari itzultzea, produktua biltzeko sistema bati jarraituz.
 - e) Hondakinen kudeatzaile baimendu batek kokalekuko materiala berreskuratzea birziklatzeko edo balorizazio energetikorako

Laburbilduz beraz, helburu hauekin betetzen dela frogatzeko kontratista nagusiak aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

1. Hondakinak Kudeatzeko Planaren (HKP) laburpen fitxak. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH) kudeatzeko plana kontratistak idatzitako dokumentua da, eta bertan ezartzen da eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak kudeatzeko azterlanean habien helburuak nola lortuko diren [53]. 105/2008 Errege Dekretua da, EEH-en ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena. Horrez gain, 112/2012 Dekretua dago, zeinak, gainera, obran gertatu dena modu frogagarrian egiaztatzen duen Kudeaketari buruzko Azken Txostena (KAT) egitea xedatzen baitu. 105/2008 Errege Dekretuan, HKP-aren eduki minimoa adierazten da:
 - i. Planaren indarraldian zehar sortuko diren EEH kopuruaren aurreikuspena, hondakin arriskutsuen (HA) eta hondakin ez-arriskutsuen (HEA) kantitateak banakatuz eta otsailaren 8ko MAM/304/2002 Aginduaren bidez argitaratutako Europako hondakinen zerrendaren arabera kodifikatuz. Eraikitze pozesian gainera, kokalekuan sortutako HA eta HEA m³-ak eraikitako m²-ko adieraziko dira.
 - ii. Prebentzio-, berrerabiltze- eta birziklatze-helburu espezifikoak, balorizatzeko eta ezabatzeko beste modu batzuk, eta horiek lortzeko epeak.
 - iii. Helburu horiek lortzeko hartu beharreko neurriak, ekonomikoak barne.
 - iv. Hondakinak ezabatzeko leku eta instalazio egokiak.
 - v. Prebentzio-, balorizazio- eta ezabatze-eragiketen kostuen zenbatespena.
 - vi. Finantzabideak.
 - vii. Berrikuspen-prozedura.

Hau dena betetzen dela ziurtatzen duen EEHKP aurkeztu da froga gisa.

2. Ingurumen Kudeaketako Sistema (IKS). IKS erakundearen jarduerak ingurumenean duten eragina aztertzeko erabiltzen den tresna bat da; erakundeari laguntzen dio bere ingurumen-helburuak lortzen modu sistematiko, planifikatu eta dokumentatuan. Organizazioari eraginkortasuna handitzen eta karbono-aztarna murrizten laguntzen dion ingurumen-jarduna monitorizatzen du. IKS-a, ISO 14001 araudiaren baitan ezarritako ebaluazio erreminta da [54][55]. Honez gain, kudeatzaile bakoitzaren dokumentazio eguneratua ere aurkezten da, non hondakin mota bakoitzerako eta haien garraiorako baimendutako gestoreak direla ziurtatzen den.
3. Hondakin kantitatea eta errebalorizazio portzentaia adierazten dituen erregistro-taula, hondakin mota bakoitzaren arabera banaturik: **BREEAM_ES_RSD.xlsx**. Monitorizazio jarraitu honek, EEHKP-ean ezarritako helburuak betetzeko bidean diren edo ez jakiteko analisia burutzea ahalbideratzen du. Gainera, betetze lurren onarpen ziurtagiria ere aurkeztu da froga gisa.

Aurkeztutako ebidentziak: hondakinen erregistro-taula

41. Hondakinen erregistro taula.

Total Residuos Reutilizados/ reciclados (Tn)		415,68						% Desvío a vertedero:		0,00%	
Código LER	Tipo de Residuo	Albarán	Gestor	Total (Tn)	% Reutilización/ Reciclaje	Total dispuesto en vertedero:	Total reutilización / reciclaje (Tn)				
170101	Hormigón	DSC16200097326120210000001	EKOTRADE	19,06	100,00%	0,00	19,06				
170101	Hormigón	DSC16200097326120210000002	EKOTRADE	16,76	100,00%	0,00	16,76				
170407	Metales mezclados	DSC16200097326120210000003	EKOTRADE	1,44	100,00%	0,00	1,44				
020107	Poda	DSC16200097326120220000004	EKOTRADE	0,72	100,00%	0,00	0,72				
170201	Madera	DSC16200097326120220000005	EKOTRADE	0,96	100,00%	0,00	0,96				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000006	EKOTRADE	18,80	100,00%	0,00	18,80				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000007	EKOTRADE	16,42	100,00%	0,00	16,42				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000009	EKOTRADE	17,36	100,00%	0,00	17,36				
170201	Madera	DSC16200097326120220000010	EKOTRADE	0,84	100,00%	0,00	0,84				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000011	EKOTRADE	16,46	100,00%	0,00	16,46				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000012	EKOTRADE	16,36	100,00%	0,00	16,36				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000013	EKOTRADE	10,86	100,00%	0,00	10,86				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000014	EKOTRADE	13,54	100,00%	0,00	13,54				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000015	EKOTRADE	11,26	100,00%	0,00	11,26				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000016	EKOTRADE	12,48	100,00%	0,00	12,48				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000017	EKOTRADE	15,78	100,00%	0,00	15,78				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000018	EKOTRADE	12,98	100,00%	0,00	12,98				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000019	EKOTRADE	16,04	100,00%	0,00	16,04				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000020	EKOTRADE	15,98	100,00%	0,00	15,98				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000021	EKOTRADE	13,72	100,00%	0,00	13,72				
170201	Madera	DSC16200097326120220000022	EKOTRADE	0,84	100,00%	0,00	0,84				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000023	EKOTRADE	13,62	100,00%	0,00	13,62				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000024	EKOTRADE	14,92	100,00%	0,00	14,92				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000025	EKOTRADE	16,44	100,00%	0,00	16,44				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000026	EKOTRADE	19,30	100,00%	0,00	19,30				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000027	EKOTRADE	10,44	100,00%	0,00	10,44				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000028	EKOTRADE	13,34	100,00%	0,00	13,34				
170201	Madera	DSC16200097326120220000029	EKOTRADE	0,86	100,00%	0,00	0,86				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000030	EKOTRADE	13,46	100,00%	0,00	13,46				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000031	EKOTRADE	11,02	100,00%	0,00	11,02				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000032	EKOTRADE	17,86	100,00%	0,00	17,86				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000033	EKOTRADE	18,90	100,00%	0,00	18,90				
170101	Hormigón	DSC16200097326120220000034	EKOTRADE	16,28	100,00%	0,00	16,28				

42. Taula. Hondakinen sailkapena LER kodigoaren arabera.

LER kodea	Hondakin mota
170101	Hormigoia
170102	Adreiluak
170103	Teilak eta zeramika
170106	Hormigoi, Adreilu, teila eta zeramika nahasketa sustantzia arriskutsuekin.
170107	Hormigoi, adreilu, teila eta zeramika nahasketa, 170106 kodigoaren desberdinak.
170201	Zura
170202	Beira
170203	Plastikoak
170204	Kutsatutako zura, beira eta plastikoa edota sustantzia arriskutsuak dituztenak.
170301	Harrikatzen duten nahasketa bituminosoak
170302	170301 kodearen desberdinak diren nahaste bituminosoak
170303	Harrikatzen duten eta mundrun produktuak
170401	Kobrea, brontzea eta letoia
170402	Aluminioa
170403	Beruna
170404	Zinka
170405	Burdina eta altzairua
170406	Eztainua
170407	Metal nahastea
170409	Hondakin metaliko kutsatuak
170410	Hidrokarburo, harrikatzen duten eta beste sustantzia arriskutsu batzuk dauzkaten kableak.
170411	170411 kodearen kable desberdinak
170601	Amiantoa duten isolamendu-materialak
170602	Bestelako sustantzia arriskutsuak dituzten isolamendu-materialak
170603	Aurreko bi kodeen desberdinak diren isolamendu-materialak
170604	Amiantoa duten materialak
170801	Igeltsuzko material kutsatuak
170802	170801 kodearen desberdinak diren igeltsuzko materialak
170901	Merkurioa duten hondakinak
170902	Poliklorobifeniloa duten hondakinak
170903	Sustantzia arriskutsuak dituzten bestelako hondakinak
170904	Hondakin nahastea

Hondakinen erregistro taula formulatu egin da LER kodigoarena erabiliz, behin kodigoa sartu hutsarekin, jada gainontzeko datuak zuzenean bete ditzan (hau da hondakin mota eta balorizazio ehunekoa), horri esker, LER kodigoa eta hondakin kantitatea soilik sartu behar direlarik taulan gainontzekoa automatikoki betetzeko.

4. Aurreko irizpideak ezartzeaz arduratuko den pertsona bat izendatzea, EEHKP idatzi eta gauzatzeko arduradunak/obraren kudeatzaileak izendatua. Izendapen hau, gainontzeko ingurumen-alderdien arduraduna izendatzearekin batera egin da, eta beraz, KDKT02 atalean dago eskuragarri.

HOND02 AGREGAKIN BIRZIKLATUAK

Atal honetan bildutako eskakizunen bidez, agregakin birziklatuak eta bigarren mailakoak ezagutzea eta erabiltzea sustatu nahi da, material birjinen eskaria murrizteko eta eraikuntzan materialen eraginkortasuna optimizatzeko.

43. Taula. HOND02 Agregakin birziklatuak.

PUNTU ESKURAGARRIAK		BETEKIZUN MINIMOAK			
1	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
		0	0	0	0

Atal honetako puntua lortuko da, baldin eta jarraian adierazitako jarraibideekin betetzen bada:

- Erabilitako agregakinen % **25** bigarren mailako agregakinak edo agregakin birziklatuak dira. Ehuneko hori pisuaren edo bolumenaren arabera neur daiteke. Bigarren mailako agregakin horiek izan daitezke:
 - i. Kaolin hondakinak.
 - ii. Arbelezko estalkiak.
 - iii. Hauts bihurtutako errauts hegalaria.
 - iv. Labe altuko zepa.
 - v. Aire bidez hoztutako labe altuko zepa.
 - vi. Altzairuzko zepa.
 - vii. Labe hondoko errautsak.
 - viii. Erraustegi hondoko errautsak.
 - ix. Galdaketako hondarrak.
 - x. Beira birziklatua.
 - xi. Plastiko birziklatua.
 - xii. Pneumatikoak.
 - xiii. Arbel bituminosoa.

- xiv. Ikatz-meatzaritzako hondakinak.
- xv. Hiri-hondakin solidoen tratamenduko hondakinak.
- o Bigarren mailako edota agregakin birziklatu horiek lortu beharko dira:
 - xvi. Kokalekuan bertan.
 - xvii. Kokalekutik 30 km-ko erradio barruan dauden hondakinak prozesatzeko instalazioetan. Funtsean, eraikuntza-, eraispen- eta indusketa-hondakinetan sortuak behar izango dira.
 - xviii. Eraikuntzatik eratortzen ez diren kontsumo ondoko edo industria ondoko azpiproduktuen iturri batetik lortutako agregakin sekundarioak.

Hormigoian agregakin birziklatuen baimendutako erabilerak [56], agregakin ligatuk edo ez-ligatuak direnaren arabera, UNE-EN 12620+A1 arauak ezartzen ditu [57], eta 44. Taulan daude eskuragarri.

44. Taula. Agregakinen aplikazio baimenduak, motaren arabera sailkatuta.

KALITATE HANDIKO AGREGAKIN LIGATUEN ERABILERA BAIMENDUAK*	KALITATE HANDIKO AGREGAKIN EZ-LIGATUEN ERABILERA BAIMENDUAK
1. Sostengu-egitura	1. Asfaltozko oinarria edo antzekoa duten galtzadak
2. Forjatuak, zolata barne	2. Betegarriak eta zigilatze pikortatuak
3. Substantzia bituminosoak edo asentu-geruzak, aglutinatzaileak eta gainazaleko geruzak asfaltatutako gunetarako eta errepideetarako	3. Hodientzako euskarri-geruzak
	4. Azpioinarriak eta zimenduak
	5. Legar bidezko paisajismoa

*Aipatutako araudian, esan bezala, agregakin birziklatuak hormigoian erabili ahal izateko hainbat restriktzio ageri dira, batik bat agregakin ligatuei erlazionaturikoak. Hori dela eta, BREEAM ES ziurtagirian ezarritako % 25 hori, agregakin ez-ligatuen erabilera soilik zentratu daiteke.

BREEAM ziurtagiriak ezarritako baldintzekin betetzen dela frogatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

1. Obrara hornitutako agregakin den erregistroa biltzen duen taula, kantitate eta unitateekin adierazia. Datu hauek denak, kasu honetan, MATERIALAK kapituluaren aurkeztutako erregistro-taularekin batera aurkeztu da, exceleko kalkulu orri bakoitzean, zein material motari dagokion adieraziz.
2. Erregistroa errealitatearekin bat datorrela frogatzeko, hornitutako agregakinen albaranak.
3. Hornitzaile bakoitzak, agregakinek araudian ezarritako baldintza denekin betetzen dutela ziurtatzeko, materialaren kalitate-ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, non beren jatorria eta fabrikazio prozesuak zehazten diren.

HOND03 HIRI-HONDAKINEN KUDEAKETA

Atal hau eraikinaren erabilera faseari dagokionez, ez da dokumentu honetan aztertua izango.

HOND04 PARAMENTU HORIZONTAL EN ESTALDURA

Atal hau bulego-erakinetzat zuzendurikoa da soilik, eta beraz ez da proiektu honetan aplikagarria.

LURRAREN ERABILERA EKOLOGIKOA

LEE01 KOKALEKUAREN HAUTAPENA

Izenburutik ondoriozta daitekeenez, eraikuntza fasea baino askoz ere lehenago datorren eginbeharra da puntu hau; hori dela eta, atal honetan bete beharreko irizpide guztiak frogatuta behar lukete izan kontratista bere funtzioak betetzen hasi aurretik.

LEE02 KOKALEKUAREN BALIO EKOLOGIKOA ETA BALIO EKOLOGIKOA DUTEN BERTAKO ELEMENTUEN BABESA

Atal honen bitartez, faunarentzat eta florarentzat balio murrizta duten lurzoruen urbanizazioa sustatu nahi da, baita kokalekuan dauden eta balio ekologikoa duten elementuak babestea ere, kokalekuaren prestakuntzan eta obraren jardueretatik eratorritako funtsezko kalteen aurrean.

45. Taula. LEE02 Kokalekuaren balio ekologikoa eta balio ekologikoa duten bertako elementuen babesa.

PUNTU ESKURAGARRIAK	BETEKIZUN MINIMOAK				
	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
2	0	0	0	0	0

1. Lurzoruaren balio ekologikoa

- Obra eremuko lurzoria «balio ekologiko txikiko lurzori» gisa sailkatua izan bada, puntu bat lortuko da:
 - BREEAM ES-ak eskaintzen duen balio ekologiko txikiko lurzoriak definitzeko egiaztapen-zerrendaz baliatuz,
 - Edota kualifikazio egokia duen ekologo batek «balio ekologiko txikiko» gisa identifikatu du lurzoria, kokalekuaren azterketa batean oinarritutako ingurumen-ebaluazioko txosten baten esparruan.

Proiektu honen kasuan, bigarren aukera hau izan da erabilitako metodologia eta, obrako jarduerak hasi aurretik, ekologo batek lurzoruaren ebaluazio ekologikoa burutu zuen. Ebaluazio hau BREEAM ebidentzia moduan aurkeztua izan da jokoan dagoen puntua eskuratzeko asmoz: *301642-00001_ECO_THS Donostia v5.pdf*

Txosten tekniko horretan, hainbat gomendio ageri dira [58] lurzoruaren balio ekologikoa hobetzeko. Kontratatista, gomendio horien % 95-rekin bete beharko du gutxienez, azpialal honetako puntua lortu nahi bada.

2. Babes ekologikoa

Obra-eremuaren inguruan eta kokalekuaren mugakide den azalera balio ekologikoa duten elementu guztiek (hau da, obrek eragina izan dezaketenak) babes egokia dute kokalekua garbitu, prestatu eta eraikitzeko jarduerak eragindako kalteen aurrean. Kasu guztietan, kontratista nagusiak babes ekologikoak eraiki beharko ditu, kokalekua prestatzerakoan edo eraiki aurretiazko edozein lan egin aurretik (adibidez, hura garbitzean edo aldi baterako instalazioak ezartzean). Baldin eta balio ekologikoa duten elementu hauek badaude eta elementu horiek mantentzen badira, elementu horiek babestu egin beharko dira, jarraian adierazten den moduan:

- Zuhaitzak: ekologoaren gomendioen atalean adierazi da zein den Donostiako Udalak ezarritako araudia udal zuhaitzak babesterakoan. Obraren garapenean zehar, hasiera batean uste baino arbol gehiago moztu behar izan dira; horretarako Donostiako Udalarari baimena eskatu zaio, baimena eskuratuz, betiere obra amaitzen birlandatzeko konpromisoa hartuz. Bai baimenaren kopia eta baita eskaeraren kopia ere, ebidentzia moduan atxiki dira.
- Kostaldeko garapenak, ur-ibilguak, hezeguneak, ur gezako eremuak eta lurpeko ur ezagunen putzuak babestu beharko dira iragazgaizte-zangen eta kokalekuaren drainatzeen bidez, isurketei aurrea hartzeko eta kutsadura, sedimentazio edo higadura arriskua minimizatzen.
- Babesa behar duten gainerako elementu ekologikoen eta naturguneek, edo horiek babestuko dituzten hesiak izan beharko dituzte, edo, obretatik edo biltegiatze-eremuetatik urrun daudenean, inguruan eraikuntzako edozein jardura debekatuz babestu beharko dira.

LEE03 KOKALEKUAREN BALIO EKOLOGIKOAREN HOBEKUNTZA

46. Taula. Kokalekuaren balio ekologikoen hobekuntza.

PUNTO ESKURAGARRIAK		BETEKIZUN MINIMOAK			
3	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
	0	0	0	0	0

Kokalekuaren baldintza ekologikoa hobetzea helburu duen atal honetan, **3 puntuak eskuratzeko baldintza ezarria izan da** propietatearen eskutik. Puntu kantitate horiek eskuratu ahal izateko BREEAMak ezarritako irizpideak, honako hauek dira:

1. Diseinuaren hasierako fasean, kualifikazio egokia duen ekologo bat izendatu da, kokalekuaren ekologiaren hobekuntzari eta babesari buruzko txosten independente eta inpartziala egiteko. Y
 - a. Ekologoak txosten ekologiko bat aurkezten du, kokalekuaren ekologia babesteko eta hobetzeko gomendio egokiekin.
 - b. Txostena ekologoak kokalekuari egindako bisita/ebaluazio batean oinarritzen da.
2. Aurreko atalean aipatu moduan, kokalekuaren ekologia **hobetzeko txosten ekologikoan jasotako gomendioen % 95, gutxienez, aplikatu dira edo aplikatuko dira**. Txosten ekologikoan bildutako gomendio horiek jarraian ageritakoak dira:

Ekologoaren gomendioak

- i. **% 40:** Lehenik eta behin, hoteleko sarreran eta teilatuan lorontziak jartzea proposatzen da, ale-kopurua eta espezie-kopurua handitzeko, lurzatiaren eta haren ingurunearen biodibertsitatean balioa areagotuz. Bertako espezieak hautatzea proposatzen da, zuhaixka-eta belar-motakoak, inguruko klimatologiara egokituta daudenak eta eskakizun hidrikoa dutenak. Neurri horrekin, biodibertsitatea sustatzeaz gain, inguruko habitatari balio ekologikoa ematea lortuko da. Biodibertsitate galera konpentsatzeko, 4 espezie desberdin landatu beharko dira; baimendutako espezieak, n ageri dira.

47. Taula. Proposatutako espezieak.

ZUHAIKKA / BELARKARA	ESPEZIEAREN IZENA	PROPOSATUTAKO KOKALEKUA
ZUHAIKKA ADIBIDEAK	<i>Arbutus unedo</i>	SARRERAKO LORONTZIAK
	<i>Philadelphus coronarius</i>	SARRERAKO LORONTZIAK
	<i>Lonicera Periclymenum</i>	TEILATUA
	<i>Veronica serpyllifolia</i>	TEILATUA
BELARKARA ADIBIDEAK	<i>Thymus vulgaris</i>	TEILATUA
	<i>Festuca glauca</i>	TEILATUA
	<i>Coreopsis grandiflora</i>	TEILATUA
	<i>Pennisetum alopecuroides</i> <i>Hameln</i>	TEILATUA

- ii. **% 25:** Bigarren gomendio gisa, habia-kaxak eta janlekuak leku jakinetan jartzea proposatzen da, hegazti basatiek habiak errazago egiteko. Kasu honetan, eraikinaren teilatuan jartzea proposatzen da. Beren habiak eraikitzeke edo elikagaiak lortzeko leku egokirik ez izateak nabarmen mugatzen du espezie jakin batzuen presentzia giza jarduerak gehien eragindako eremuetan. Horregatik, habia eta jangela horiek jartzea proposatzen da, alde batetik, espezie horien hedapena eta gizakiarekin elkarbizitzea ahalbidetzeko.
- iii. **% 35:** Makinak mugitzen diren aldiak lurzatiak inguratzen duten zuhaitz-aleak babestea eta mantentzea, kalterik izan ez dezaten. Udal zuhaitzak babesteko jarduketak aurreikusteko prozedurak Donostiako Hiri Antolakuntza Plan Orokorrean (HAPO) indarrean dauden ordenantzetan jasotzen dira [59]. Bertan bildutakoaren arabera:
- Obrako jardueren ondorioz kaltetuak suerta daitezkeen lekuko edo inguruko zuhaitzak 2 m-ko altuera duen eta zuhaitzaren enborretik 20 cm-tara bananduta dagoen egurrezko egitura baten bidez babestu beharko dira.
 - Altura baxuan dauden adarrak kimatu edo lotu egingo dira, urratuak ekiditeko.
 - Gainazaleko sustraiak egotekotan, zoladura berriak egungoa gaintu beharko luke, sustraiak berriz ere lurperatuak utziz. Finkatze-sustraiak (+ 10 cm diametroan) zoladuraren oinarrian sartu beharko lirateke.

Obrak irauten duen bitartean udal zuhaitzen bat erauzi behar bada, Donostiako Parke eta Lorategien Udal Arloari dagokion eskaeraren bidez kudeatuko da. Erauzpenerako prozedura honekin jarraitzea ezinbestekoa da, izan ere, baimenik gabe udal zuhaitzen erauzketaren bat gertatuz gero, zuzenean

gomendioen % 35 lortzeko aukera galduko bailitzake, eta horrenbestez, ezinezkoa izango litzateke gomendioen % 95-rekin betetzeko baldintza egikaritzea. Aurretik ere esan da, obra prozesuan zehar, zuhaitz gehiago moztu behar izan direla; horretarako, baimena eskatu zaio Donostiako Udalari, eta baimena onartua izan da.

LEE04 EPE LUZEKO INPAKTUA BIODIBERTSITATEAN

Kokalekuaren eta eraikinaren inguruko eremuen biodibertsitatean epe luzerako inpaktua minimizatzen dela bermatzeko, atal honetan adierazitako irizpideak jarraitu beharko dira.

48. Taula. LEE04 Epe luzeko inpaktua biodibertsitatean.

PUNTU ESKURAGARRIAK		BETEKIZUN MINIMOAK			
2	EGOKIA	ONA	OSO ONA	BIKAINA	APARTEKOA
	0	0	0	0	0

1. Aurrebaldintza

- Kokalekuan jarduerak hasi aurretik, kualifikazio egokia duen ekologoa bat izendatua izan da.
- Ekologoak, diseinu eta eraikuntza faseetan balio biologikoa babesteari eta hobetzeari buruzko nazioko, eskualdeko eta nazioarteko legeria guztiarekin bete dela frogatu du.
- Kokalekuaren Biodibertsitatea Kudeatzeko Plan espezifiko bat egin da – eraikinaren inpaktua barne hartuta, bai eraikuntzak iraun bitartean, bai funtzionamenduan egon bitartean –, proiektua amaitu ondorengo lehen bost urteetarako gutxienez. Plan hori eraikineko okupatzaileei eman beharko zaie, eta honako hauek jaso beharko ditu:
 - i. Kokalekuan dauden elementu babestu guztien kudeaketa.
 - ii. Habitat berriak, daudenak edo hobetutakoak kudeatzea.
 - iii. Espezieen eta habitaten babesari dagokionez kokalekuari aplika dakioken egungo edo etorkizuneko legegintzako edozein eskakizunen aipamena (tokikoa, nazionala edo eskualdekoa, eta hala badagokio, baita biodibertsitatearen arloko ekintza-planen/estrategien aipamena ere).
 - iv. Ekologoak baieztatzen du ekologiaren alderdi guztiak planaren barruan sartzen direla.

Baldintza hauen denen frogapena, obra hasi aurretik ekologoak burututako Biodibertsitatearen Txostenean biltzen da: [301642-00001_BIO_THS Donostia v5.pdf](#)

2. Irizpideak

Atal honetan, **2 puntuak lortzeko baldintza ezarria izan da**, eta beraz, jarraian adierazitako **sei irizpideetatik laurekin** bete beharko da, gutxienez.

- Kontratista nagusiak «biodibertsitatearen arduradun» bat izendatzen du, autoritatea duena kokalekuko jardueretan eragina izateko eta bere biodibertsitatearen gaineko inpaktu negatiboen minimizazioa bermatzeko, ekologoaren gomendioekin bat etorri.

Irizpide honen betekizuna, atxikitutako *Designación responsable.pdf* dokumentuaren bitartez frogatua izan da; izendapen horretan, David Pineño Obra Buruak, BREEAM arduraduna izendatzen du, kasu honetan Marta Ugarte, Construcciones Amenabar S.A. enpresako Kalitate eta Ingurumen Teknikaria, BREEAMari erlazionatutako kontu guztiez, biodibertsitateari erlazionatutakoak barne, ardura dadin.

Horrez gain, eraikuntza fasearen amaieran, obra-liburuaren kopia bat entregatu beharko da, biodibertsitatearen arduradunak egindako edozein ekintza / ekitaldiren xehetasunak bermatzeko. Halakorik egin ez bada, obra-liburuan berretsia beharko du izan.

- Kontratista nagusiak prestakuntza ematen die obrako langileei proiektuan zehar kokalekuaren ekologia nola babestu jakiteko. Langile guztiei zuzendutako berariazko prestakuntza eman beharko da, operazioak egiten diren bitartean kokalekuaren ekologian kalteak nola saihestu langile guztiek jakin dezaten. Ekologoak egindako txostenean balio ekologikoa duten elementuak babesteko nabarmendutako ondorioetan eta gomendioetan oinarritu beharko da prestakuntza.

Hori hala dela frogatzeko, langileei emandako formakuntza dokumentuen kopia atxikitzen da, non espezifikoki, ekologiarri eta biodibertsitateari erlazionatutako kontzeptu, arau eta gomendioak erantsiak izan diren, ekologoak ezarritakoak barne. Horrez gain, langileen gune komunetan, «*Buenas Prácticas Ambientales*» izeneko kartelak zintzilikatu dira, jarraibideak zeintzuk diren uneoro argi izan dezaten. Formakuntzan kontzeptu berri hauek denak erantsi direla frogatzeko, honako dokumentu hauek atxiki dira:

- Buenas Prácticas Ambientales.pdf*
 - Formazioaren jasotzea frogatzen duen dokumentua: *recibo formación ambiental.pdf*
 - Formakuntzaren edukia.
- Kontratista nagusiak biodibertsitatea babesteko egindako ekintzak erregistratzen ditu, eta horien eraginkortasuna zaintzen du eraikuntza-prozesuaren funtsezko faseetan. Betekizun honek kontratista nagusia behartzen du erregistro horiek jakinaraztera, hala eskatzen zaionean.
Eskakizun honekin betetzen dela frogatzeko, honako ebidentziak aurkeztu dira:
 - Obra Liburua.
 - Argazki-txostena: *LEE04_2_C_TSH Donostia.pdf* – txosten honetan, hartutako neurrien ebidentzia fotografikoak bildu dira obraren abantzuan.
 - Eremu lokalerako balio ekologikoki baliotsua duen habitata sortzea. Aurrekoak honako habitat hauek barne hartzen ditu:
 - Biodibertsitate nazionala, eskualdekoa edo tokikoa bultzatzea, edo, berez, nazionala, eskualdekoa edo tokikoa izatea.
 - Legez onartuta dauden kokalekuen barruan babestuta egotea, edo, legez onartuta ez dauden kokalekuen barruan badaude, biodibertsitatearen arloko tokiko edozein ekintza / estrategia planetan identifikatzea.

Atal honekin betetzen dela frogatzeko BREEAMak eskatutako ebidentziak paisajismo plano eta eskaintza da, baina, prozesu hau eraikinaren akabera faseari dagokionez, oraindik ez dago eskuragarri (udalak eta arkitektoak onartu behar baitute, hau da, proposamena eginik dago jada, baina oraindik ez da erantzunik, eta beraz, ezta behin betiko planorik jaso). Ondorioz, atal hau ezin izan da oraindik frogatu.

- Kokalekuan flora- edo fauna-habitata badaude, kontratistak obrak programatu beharko ditu sortutako eragozpenak minimizatzeko. Adibidez, kokalekua, atariko lanak eta paisajismoa prestatzeko ekintzak urteko une egoki batean programatu edo programatu behar izatea, floraren eta faunaren gaineko asaldurak minimizatzeko. Obrak egiten diren uneak eragin nabarmena izan dezake, adibidez, hegaztien estaltzean, landareen loratzean, hazien ernamuntzean, anfibioetan eta abarretan. Landaredia faseka garbitzeak eragin ekologikoak arintzen lagun dezake. Irizpide gehigarri hori betetzat joko da baldin eta plan argi bat egin bada kokalekuaren biodibertsitatean edozein inpaktu saihesteko jardueren egutegia zehazten duena, ekologo baten gomendioen arabera.

Kasu honetan, ekologoaren txostenetan irakur daitekeen moduan (bai txosten ekologikoan, bai biodibertsitatearekin erlazionaturikoan), «balio ekologiko baxuko» gure urbanizatu bat izanik, kokalekuan ez zegoen habitat esanguratsurik, eta ondorioz, aspektu honetan ez da neurri berezirik hartu behar izan. Aipagarria da gainera, florari dagokionez, partzeko espezie inbaditzaile batez (*Cortaderia Selloana*) estalia zegoela, eta ondorioz, haren abolizioa, izatez, biodibertsitatearentzako onura litzatekeela. Biodibertsitate Txostena beraz, nahiko litzateke, eraikuntza fasean behintzat, puntu hau frogatzeko. Eraikuntza fasea amaitzean, berriz ere ekologoak txosten bat burutu beharko du, non irizpide denak jarraitu direla bermatzen da.

- Diseinu-taldearen eta faunaren eta floraren arloan esperientzia duen tokiko talde baten arteko lankidetzaz ezarri da, azken horrek:
